

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

# **ESKOLA KIROLA: GAUR EGUNGO EREDUAREN AZTERKETA ETA ERALDAKETA PROPOSAMENA**

**EGILEA:** ZUBIKARAI SALEGI, AITOR

**ZUZENDARIA:** USABIAGA ARRUABARRENA, OIDUI

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

**IKASTURTEA:** 2017 – 2018

**DEIALDIA:** 2018ko EKAINA

## AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....	4
2. HELBURUAK .....	6
3. ESKOLA KIROLA GAUR EGUN .....	8
3.1. ESKOLA KIROLA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN:.....	8
Helburu nagusia eta funtsa: .....	8
Azpi helburuak eta jardueren ezaugarriak:.....	9
Parte hartze adina eta kategoria banaketa:.....	10
Ibilbide bereizketa: .....	12
Jarduera motak: .....	14
Lurralde antolaketa: .....	16
Esku hartzen duten eragileak eta hauen eskumenak:.....	17
Jardueren lurralde eremua: .....	18
3.2. ESKOLA KIROLA GIPUZKOAN: .....	19
Jolashezi:.....	25
Programaren nondik norakoak: .....	27
3.3. ESKOLA KIROLA ITZIARREN: .....	29
Kokapena:.....	29
Antolaketa: .....	29
Adin banaketa: .....	29
Jarduerak: .....	30
Espazioa: .....	30
4. ERALDAKETARA BIDEAN .....	31
4.1. HELBURUA ETA SUSTATU BEHARREKO BALIOAK:.....	33
4.2. ESKOLA KIROLA ETA GARAPEN INTEGRALA:.....	34
4.3. KOLEKTIBOA ETA LEHIA.....	36
4.4. SORMENA ETA ERABAKIAK HARTZEA:.....	42
4.5. ADIN BANAKETA .....	47
4.6. LUDIKOTASUNA ETA AUTOTELISMOA ESKOLA KIROLEAN:.....	50
4.7. GURASOEN PAPERA ESKOLA KIROLEAN: .....	54
4.8. AUTOKUDEAKETA ETA ESKOLA KIROLA:.....	57
4.9. DINAMIZATZAILE/HEZITZAILE/MONITOREEN FUNTZIOA: .....	62
4.10. GENEROA, SEXUA ETA ESKOLA KIROLA: .....	64
4.11. NATUR JARDUERAK, NATURAN JARDUTEA ETA ESKOLA KIROLA: .....	68

4.12. ESKOLA KIROLA ETA INKLUSIOA: .....	70
4.13. ALDAGAI EZBERDINETATIK ATERATAKO OINARRI NAGUSIAK....	73
5. APLIKAZIO PRAKTIKORA HURBILKETA: ITZIARKO ESKOLA KIROLERAKO PROPOSAMEN SAIKERA.....	76
5.1. BALIABIDEEN DIAGNOSIA: .....	76
Giza Baliabideak: .....	76
Instalakuntzak/azpiegitura:.....	77
Ingurune naturalerako eta natur-jardueretarako aukerak: .....	79
Garraioa: .....	80
5.2. PROPOSAMENERA HURBILKETA: .....	80
6. AMAIERAKO HAUSNARKETA: .....	87
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK: .....	89
Argitaratu gabeko dokumentuak: .....	95
Elkarrizketak: .....	96
8. ERANSKINAK: .....	97
1.Eranskina: Itziarko Eskola Kiroleko hezitzaileari eginik elkarrizketaren transkripzioa. ....	97

## 1.SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Jarduera Fisiko eta Kirolen Zientzietako graduan sartzerakoan barneratzen den tesi nagusienetako bat, aurretik inork oraindik ere garbi ez bazuen, jarduera fisikoa egunerokotasunean txertatzearen eta ohitura bilakatzearen garrantziarena da. Askotarikoak dira jarduera fisikoak norbanakoari eragiten dizkion onurak, eta zerrenda luze honek jarduera fisikoa pertsona osasuntsuak sortzera bidean alboratu ezin den oinarrietako bat izan dadin eragiten du.

Gaixotasun ezberdinen prebentziorako eta gaitasun fisikoaren hobekuntzarako tresna izateaz gain, pertsonen garapen integralerako erraminta eraginkorra dela ere entzun izan dugu: Hau da, praktika motorrak elkarrekin harremantzeko, sormena garatzeko zein gure burua eta gorputza ezagutzeko aukera emango omen digu. Hein batean, pertsona bezala hezi eta gizartean bizitzen irakatsiko digu jarduera fisikoak.

Idea hauetan oinarrituz, eta fakultatean jasotako edukiak gure behar eta nahi guztiak asetzen ez zituztela ikusita, duela urte pare bat graduko zenbait ikasle elkartu eta gure arloaren inguruan hausnartzeari ekin genion: Zein jarduera fisiko eredu da gaur egun indarrean dagoena? Zergatik? Honek zer nolako eragina du gizartean? Zergatik jasotzen ditugu gure graduan eduki batzuk eta ez besteak?

Pixkanaka hausnarketarako eta gure arloan antzeman genitzakeen hutsuneak betetzeko gogoia indarra hartuz joan ziren, taldea egonkortu eta hausnarketa hauek asterokotasun batez ematen hasi ziren arte (eztabaida prozesu honek 2016an idatzitako “Jarduera Fisiko eta Kirolen Hausnarketa” txostena izango zuen ondorio).

Bada oraindik ere jarduera fisikoen arloaren inguruko eztabaidak ematen jarraitzen dugu, eta zenbat eta gehiago hausnartu, orduan eta zalantza eta analisi esparru gehiago sortzen direla ohartu gara.

Horrela, lan hau hausnarketa ezberdinek eragindako zalantza hauetako bat plazaratzera dator: Jarduera Fisikoaren eta Hezkuntzaren arteko aferarena hain zuzen ere.

Jarduera fisikoaren espezifikotasuna akzio motorra da, eta akzio motorra da jarduera fisikoa hezkuntza esparruan gainerako gaitasunengandik bereizgarri egiten duena. Akzio motor honek pertsonen heziketari gainerako gaitasunek eskaintzen ez dizkien onurak eragiten dizkio. Horregatik, nahiz eta oraindik behar adinako garrantzirik ez zaion ematen, hezkuntza kurrikulumetan funtsezko papera betetzen du.

Jarduera fisikoaren garrantziaz jabetuta, instituzioek kurrikulumean gorputz hezkuntza izenpean tarte bat eskaintzeaz gain, honekin nahikoa ez eta beste zenbait ekimen jarri izan dituzte martxan haurrak jarduera fisikoa praktikatzuz hezi daitezen. Hor kokatzen da eskola kirola, lan honetan aztergai izango dugun fenomeno.

Baina zein heziketa eredu, zein pertsona eredu bultzatzen dute gaur egungo heziketa fisiko eta eskola kirol modeloek? Zein bizi eredu? Zein jarduera praktikatzen dira? Eta zein metodologia erabili?

Heziketa Fisikoko klaseak jaso izan ditut, eskola kirolean parte hartu dut, eta eskola kiroleko hezitzaile izatearena esperimendatzeko aukera ere izan dut. Eta orain gutxi arte ez dut honen inguruan pentsatzeko tarterik hartu ere egin, baina taldean emandako hausnarketa hauetatik ateratako irakaspenek gaur egun indarrean dauden heziketa fisiko eta eskola kirol ereduak idealenak eta aproposenak diren zalantzan jartzera eramane naute.

Beraz, lan honetan zalantza guzti hauek azaleratzeko saiakera egingo da, baina gertukoena, eragiteko aproposena eta jarduteko erosoena sentitzen dudana eremua eskola kirola denez, berau izango da lan honetako ardatz nagusia.

## 2. HELBURUAK

Eskola kirola izango da lanaren ardatza, eta honen inguruan egituratuko da dena. Lanaren helburu nagusia, beraz, gaur egungo eskola kirola zalantzan jarri, eta eredu honi identifikaturiko gabeziatik abiatuz, benetan hezitzailea izan daitekeen eredu berri bateranzko bidean hainbat oinarri finkatzeko saiakera egitea izango da.

Lan honetatik ez da aterako eskola kirolaren inguruko egia absoluturik edo arazo guztiei irtenbidea emango dien eredurik, eta ezta hori nahi ere. Alderantziz, irakurleari hausnarketarako tarte bat irekitzea bilatzen da, orain artean zeresan handirik eman ez duen arlo baten inguruan eztabaidak sortzea.

Gaur egungoekin desadostasunean, bestelako balioetan egituratzen den gizarte eta bizi eredu bat definituko dira, eta eskola kirolek gizarte hori osatzera bidean egin daitekeen ekarpena planteatuko da, eskola kirolean eragina duten alderdi ezberdinetan sakonduz. Jarduera fisikoan lehiakortasunak duen funtzioak, genero auziak edota hezitzaileek duten autoritatea bezalako fenomenoek eragindako hausnarketak dakartza lan honek.

Laburrean, elkartasunean, elkar laguntzan eta kolektiboan oinarritutako gizarte bat sortzera bidean, eskola kirolak haurren heziketan egin dezakeen ekarpenean sakontzea da lanaren xedea.

Eta helburu hau betetzeko, lana hiru atal nagusitan banatuko da: Lehenengo atalean gaur egungo eskola kirolaren diagnosi bat egingo da; EAEko Eskola Kiroleko dekretuetatik abiatu eta lurralde historikotik igaro ondoren, udalerrri mailan sakontzeraino. Bigarren blokean, gaur egungo Eskola Kirolari identifikatutako gabeziatik abiatuz, hauek gainditu nahian, eskola kirol eredu berri batek bete beharreko printzipioak jorratuko dira; horretarako, eskola kirolean eragina duten alderdi ezberdinetan fokua jarriko da, hauetariko bakoitza sakonduz (beti ere aintzat hartuta guztiak osotasun baten parte eta osagarri direla) eta kooperazioan oinarritutako gizarte aske bat jomuga hartuta. Bukatzeko, eredu berriaren eraikuntzan landutako ideia ezberdinei praktikotasuna eman asmoz, bigarren atalean ateratako ondorioak baliatu eta Itziariko eskola kirolean aplikatuko litzatekeen proposamen praktiko bat garatzeko

saiakera egingo da azken blokean, praktikotasunera jauzi egitean sortzen diren zailtasunak aurretik jarriz errealitatera hurbiltzeko asmoarekin.

### 3. ESKOLA KIROLA GAUR EGUN

Atal honetan, EAeko eta Gipuzkoako lege eta dekretuetan oinarrituz, gaur egungo eskola kirolaren oinarri eta printzipio nagusiak aztertuko ditugu, hau ulertzea beharrezkoa izango baita ondoren eraldaketa proposamen konkreturik egin nahi bada; horrela, zuzenean muinera jo nahian, heziketa eta garapena zuzenean baldintzatzen duten funtsak jorratuko ditugu nagusiki. Eskola kirolean eskumenak dituzten instituzio eta erakunde kudeatzaile ezberdinak, lizentziak, arau haustek, etab. aztertzean baino, gehiago murgilduko gara eskola kirolaren helburuetan, antolaketan (adina eta lurraldearen arabera), sustatu nahi diren balioetan eta horretarako proposatzen diren jardueretan, besteak beste.

Behin autonomia erkidego eta lurralde historiko mailako azterketak eginda, atalarekin amaitzeko Itziarren egun eskola kirolak bizi duen egoeraren diagnosi bat egingo da bertako hezitzaileari eginiko elkarrizketa baliatuz. Kasu honetan ere, haurren heziketan eragin zuzena duten aldagaietan jarriko da: jardueretan, erabilitako espazioan edota hurrei ematen zaien autonomian, adibidez.

Hau horrela, testuinguruan kokatzeko, kontuan izan behar da gaur egun eskola kirolaren inguruan indarrean dagoen legea 14/1998 Euskadiko Kirol Legea dela, 125/2008 dekretuaren bidez garatuko dena, zeina zehazki eskola kirolaren nondik norakoak arautzera mugatuko den (125/2008 Dekretua). Dekretu hau oinarri hartuta, ezaugarri hauek betetzen ditu gaur egungo eskola kirolak:

#### 3.1. ESKOLA KIROLA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN:

##### **Helburu nagusia eta funtsa:**

Eskola Kirola hezkuntza prozesuaren baitan biltzen dela aintzat hartuta, ekimen honen funtsa haurren heziketa izango da, beti ere jarduera fisikoa oinarri hartuta. Hau da, eskola kirolaren bidez hurrek eskola aldian izaten duten heziketari jarraipen bat eman nahi zaio, haurraren garapen integrala lortzera bidean osagarrietako bat delarik (125/2008 Dekretua).

Eskola garaian jarduera fisikoa praktikatzen hastea ezinbestekotzat jotzen da, haurrari zenbait onura ekartzen baitizkio: batetik, aipatu bezala, haurrari pertsona bezala garatzean ekarpen zuzena egingo dio, jarduera beraren bidez



zenbait balio eta jarrera transmitituz eta ikaskuntza prozesua osatuz; eta bestetik, jarduera fisikoa praktikatzeko ohitura sustatuko du, bide batez etorkizuneko pertsona eta gizarte osasuntsu baterako bermeak jarriz (125/2008 Dekretua).

Baina haurren hazkuntza prozesu honetan jarduera fisikoa sustatzetik haratago, beharrezkoa da honen bidez, eta beraz, eskola kirolaren bidez zeinbait balio eta printzipio transmititzea, hurrek hauek barnera ditzaten: besteak beste, parte hartzearen garrantzia, lehiakortasuna bigarren plano batera pasatzea, genero berdintasuna eta gizartean erabat errotuta dauden estereotipo eta rol ezberdinen deseraikitzea lirateke sustatu beharreko balioetako batzuk (sarrera).

Balio horiek sustatzera eta ezarritako helburuak lortzera bidean, beharrezkoa izango da eskola kirolak aniztasuna eskaintzea. Hau da, programaturiko jarduerak askotarikoak izan daitezen bermatuko da, baina beti ere praktikaturiko jarduera oro hezigarria izango dela ziurtatuz (sarrera, 2.art.). Horrela, lehiadun jarduerak lehiarik gabekoekin tartekatuko dira, natur-jarduerak ere euren tokia izango dute eta bakarka zein taldeka jardun beharko dira haurrak, besteak beste.

Azkenik, ulertu behar da haurren heziketa prozesuaren zati handiena ikastetxetan ematen dela, araututa dauden eskola orduetan. Hau da, eskola kirola, beste askorekin batera, haurren garapen integrala lagunduko duen esparruetako bat baino ez da; horregatik, beharrezkoa da prozesu honetan eragiten duten arlo ezberdinek norabide berean eta helburu beraren pean lan egitea. Hau horrela, eskola kirolak bat egin behar du hezkuntza sisteman zehazten diren oinarri eta xedeekin, eta alor berari erantzuten diotenez, bereziki koherentea izan behar da gorputz-hezkuntzan planteatzen denarekin (1.art.).

### **Azpi helburuak eta jardueren ezaugarriak:**

Eskola Kirolak bere funtsa bete dezan, bertan planteatzen diren dinamika, praktika eta jarduerak ezaugarri konkretu batzuk izango dituzte, praktika helburuarekin koherente izan dadin. Baina hala ere, haurren heziketa prozesua hain esparru zabal eta anitza izaki, azpi xede batzuk definitzea lagungarria izango da helburu nagusia lortzera bidean. Horrela, aipatu dugu jardueretan aniztasuna eskaini behar duela programa orok, eta aniztasun honek ahalbidetuko du jarduera mota eta forma bakoitzarekin azpi helburu ezberdinak lortzen. Atal

honetan eskola kirolaren baitako jarduerak dituzten ezaugarriak eta jarduera hauen bidez lortu nahi diren bigarren mailako helburu ezberdinak aztertuko ditugu, 125/2008 dekretua oinarri hartuz.

Batetik, bai jarduerak eta bai programek haurren egoerara eta baldintzetara egokituak izan beharko dute: hau da, jarduerak diseinatzerakoan, kontuan hartuko dira haurren garapen fasea, baldintza fisiko eta psikologikoak, ingurune soziala zein eremu geografikoa (bizitokia) (6.art.).

Bestalde, aipatu den bezala, jardueretan aniztasuna bilatuko da, honek haurrari kirol eta praktika ezberdinak ezagutzea eta hauei aurre egitearen bidez gaitasun ezberdinak barneratzea ekarriko baitio, jarduera fisikorako ohitura indartu eta bizimodu osasuntsu bat sustatzeaz gain (6.art.).

Beste hainbat praktika eta jarduera, aldiz, beti ere helburu nagusiari erantzunez (haurren garapen integrala), zehatzago kirol errendimendura bideratuko dira. Gainera, lehia oinarriztat duten praktika hauen bidez ahalarengatik nabarmentzen diren talentu eta promesen detekzioari bide emango zaio, detektatu ondoren hauen garapena errazteko baldintza tekniko guztiak erraztuz (6.art.).

Azkenik, praktika guztietan haur ororen integrazioa bermatzeko saiakera egingo da. Hau da, aniztasun funtzionala duten pertsonak gainerakoekin jarduera arazorik gabe burutu dezaten bilatuko da, eta hori posible izan ezean soilik planteatuko dira ahalmen urritasuna duten pertsonentzako jarduera espezifikokoak (6.art.).

Honenbestez, jardueren aniztasun honekin, aipatu ditugun asmo eta printzipio ezberdinen betetzea bermatzen saiatuko da, hauek helburu nagusia den haurren heziketa prozesuari ekarpena egingo diotela ulertuta.

#### **Parte hartze adina eta kategoria banaketa:**

Eskola Kiroleko programetan parte hartuko duten haurren adin tartea 6 eta 16 urte bitartekoa izango da. Aipatu bezala, hezkuntza prozesu osoaren baitan eta honen osagarri gisa ulertu behar da eskola kirola, eta beraz, adin tartean ere bat egin behar du eskola heziketakoarekin. Horrela, eskola kiroleko programa

hauek Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (12-16) hurrei bideratuak daude (4.art.).

Baina hezkuntza prozesuan adin tarte honen barnean etapa ezberdinak bereizten dira, ulerturik adin bakoitzak ezaugarri eta baldintza ezberdinak dituela eta garapen fasea ere ezberdina dela hauetako bakoitzean. Horrela, lehen hezkuntzako ziklo bakoitzean edo bigarren hezkuntzan planteaturiko helburu, oinarri, programa, eduki eta jarduerak ezberdinak dira, hauetako bakoitza haurren adinera eta garapen fasera doitzuz.

Eskola Kirolean ere haur bakoitzaren adinak eta garapen faseak eragin nabarmena izango du jarduterako orduan, adin bakoitzean haurraren garapen eta gaitasun fisiko zein intelektualak ezberdinak izango baitira. Horregatik, umeak une bakoitzean dituen heziketa beharrei erantzun nahian, eskola kirola adinaren araberako kategoria edo mailaka antolatuko da, adin tarte bakoitzerako programa eta praktika ezberdinak antolatuko direlarik (4.art.).

Kategoria banaketa honetan ikusten da eskola kiroleko aldiak eskola heziketakoekin guztiz bat datozela. Kategoria bakoitzak nolabait esateko ziklo bati erantzuten dio, eta urteak (eta beraz, programak ere bai) urtarriletik abendura bitarte antolatu beharrean, irailtik ekainera antolatzen dira; hau da, ikasturtez ikasturte. Horregatik, maila banaketa egiteko, duten adina kontutan hartzea baino argigarriagoa da kurtso edo programa amaieran izango duten adina kontutan hartzea. Horrela, banaketan ikusiko dugun bezala, 8 urte dituen ume bat baliteke aurrebenjamin edo benjamin mailan aritzea; horregatik, programa edo ikasturte amaieran izango duten adina hartuko da kontuan (4.art.).

Guztira bost maila edo aldi bereiziko dira, kategoria bakoitzak bi adin edo belaunaldi hartuko dituelarik: gaztetxoena, ikasturte amaieran 7 eta 8 urte izango dituzten umeak, aurrebenjamin mailan kokatzen dira; bigarren aldia 9 eta 10 urte dituztenekoa izango da, eta benjamin maila izango da aldi hau definituko duena; adinean aurrera eginda, hirugarren kategoria kimu kategoria izango da, ikasturte amaieran 11 eta 12 urte beteko dituzten haurrak barne hartzen dituena; garapen prozesuan aurrera egin ahala, haurrak 13 edo 14 urte betetzera doazen ikasturtean "haur" kategoriara egingo lukete salto; eta eskola kirolaren bidezko

garapen prozesuari kadete mailan emango liokete amaiera hurrek, 15 edo 16 urterekin (6.art.).

Aurrebenjamin, benjamin eta kimu kategoriak Lehen Hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren zikloekin bat datoz hurrenez hurren, eta haur eta kadete kategoriek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hezkuntza prozesua osatuko lukete.

Beraz, bertako haurren heziketa beharrak asetzeko helburuarekin, kategoria bakoitzerako programa espezializatuak eta jarduera konkretuak proposatuko dira, eta ikasturte osoan zehar kategoria banaketa hau mantenduko da, umeez euren kategoria bereko umeekin bakarrik jardun ahal izango dutelarik.

### **Ibilbide bereizketa:**

Ezaugarri eta azpi helburuen atalean definituriko printzipio eta helburu guzti hauek sakonago landu nahian, eskola kiroleko programetan kategoria ezberdinak banatzeaz gain, kirol ibilbide ezberdinak bereizteko hautua ere egingo da. Ibilbide bereizketa honek fokua helburu konkretuetan jarri eta hauetan gehiago sakontzeko aukera emango dute. Eskola kiroleko programetan 3 kirol ibilbide bereiz daitezke: Kirolean Parte Hartzeko Ibilbidea, Errendimenduari Ekitzeko Ibilbidea eta Kirol Talentu eta Promesak Hautemateko Ibilbidea, Ibilbide hauetako bakoitzak behar bati erantzungo diolarik (3.art.).

Kontuan izan behar da ibilbide bakoitzean jarduera ezberdinak praktikatzeko direla, ibilbide bakoitzaren azalpenean zehaztuko dugun moduan. Bestalde, ibilbide hauetako bakoitzak ematen dituen aukerak, transmititzen dituen balioak eta dituen ezaugarriak kontuan hartuz, ibilbide bakoitza praktikatzeko gutxieneko adin bat eskatzen da, bakoitzean ezberdina izango dena. Honako hauek dira hiru ibilbide nagusiak eta beraien ezaugarriak (8,9,10. art.):

Bertan parte hartzeko gutxieneko adin baxuena duen ibilbidea “Kirolean Parte Hartzeko Ibilbidea” da. Ibilbide hau hiruetatik orokorra izango litzateke, bere helburu nagusiak hurrek kirola eta jarduera fisikoa praktikatzeko ohiturak barnera ditzaten eta bizimodu osasuntsu bat bereganatzen baitira, ahalik eta praktika gehien ezagutzeko xedea baztertu gabe. Horregatik, helburu hauek betetzeko bidea ahalik eta lasterren hasi behar dela ulertuta, ibilbide honetan

umeak aurrebenjamin kategoriatik hasi daitezke parte hartzen. Hala ere, ibilbide honetan badaude hainbat jarduera zeinetan parte hartzaileei benjamin mailan egotea eskatzen zaien parte hartu ahal izateko (8.art.).

Beraz, ibilbide honek oinarrian haurren garapena, hobekuntza eta aisialdi praktikekin gozatzea daude, eta oinarri hauei erantzungo dieten praktikak izango dira ibilbide honen barnean proposatzen direnak (8.art.).

Bigarren ibilbidea “Errendimenduari Ekiteko Ibilbidea” da. Honek bere funtsa, izenak berak definitzen duen moduan, errendimenduan pixkanaka gora egitea da, eta horretarako lehiaketaren munduan gehiago murgiltzen hasiko dira haurrak. Ibilbide honetan errendimenduaren garrantzia areagotzen dela ikusita, bide hau hasteko gutxieneko maila kimuena izango da: bertako praktika batzuk kimuen lehenengo urtetik egongo dira baimenduta, eta beste batzuk praktikatzeko kimu mailako bigarren urtera itxaron behar da (9.art.).

Kirol modalitate eta ibilbide ezberdinen parte hartzaile kopuruan oreka bat bilatu nahian, errendimenduari ekiteko ibilbidean izen ematea mugatu egingo da kopuru aldetik (9.art.).

Bukatzeko, “Kirol Talentuak eta Promesak Hautemateko Ibilbidea” litzateke hirugarrena. Kasu honetan, errendimenduko ekite edo hastapenari jarraipena emanez, kirol praktika ezberdinetan gaitasun eta ahalmen bereziak dituzten, eta beraz, gainerakoengandik nabarmentzen diren eskola haurrak identifikatzea bilatuko luke ibilbide honek, ondoren parte hartzaile hauek eta hauen gaitasunak garatzeko, garapen hori erraztuko duten baliabideak ezarriz (10.art.).

Ibilbide honetan parte hartzeko gutxieneko adina errendimenduari ekiteko ibilbidearen berbera izango da. Hau da, gutxieneko adina kasu honetan ere kimuen mailari dagokiona da, jarduera batzuk burutzeko kimuen mailako lehenbiziko urtekoa izatea nahikoa izango delarik; baina beste zenbait jardueretan parte hartzeko kimuen azken urtean egotea eskatuko da (10.art.).

Azken ibilbide honetan ere izen emate aldetik muga bat jarriko da hiru ibilbideen artean oreka bilatu asmoz, eta muga hau lurralde historiko bakoitzaren araberakoa izango da (10.art.).

### **Jarduera motak:**

Ibilbide bakoitzak helburu eta oinarri ezberdinak dituenez, bakoitzean aurrera eramango diren jarduerak ezberdinak izango dira, helburu bakoitza jarduera mota baten edo beste baten bidez lortzen baita.

Baina ibilbide bakoitzean praktikatuko diren jarduerak zein diren aztertzen hasi baino lehen, dekretuak zehazten duen jardueren sailkapena eta hauen azalpena garatzeari ekingo diogu; behin sailkapen hau eginda, ibilbide bakoitzari hauetako zein jarduera dagozkion definitzean zentratuko gara.

125/2008 dekretuak jarduerak lau multzotan bereizten ditu, eta multzo bakoitzean ere, jarduerak hartuko duen formaren arabera azpi taldeak banatuko dira (7.art.):

Lehenengo jarduera multzoa “Ikaskuntza Jarduerena” da. Hauen ezaugarri nagusia lehiarik ez izatearena da, eta bi multzo ezberdin daude: batetik “hasierako jarduera” izendaturikoak, kirol modalitate ezberdinetako lehen oinarriak ikastea ekarriko diona haurrari; eta bestetik “teknifikazio jarduerak”, errendimenduari ekiteko ibilbideko parte hartzaile eta detektaturiko talentuei bideratutako entrenamendu saioak (7.art.).

Beste multzo batean “lehiaketa jarduerak” biltzen dira, eta honen baitan 3 lehiaketa mota definitzen ditu dekretuak: lehenengoa “lehiaketa moldatu edo parte hartzaileek” osatzen dute. Lehiaketa hauek zenbait moldaketa jasaten dituzte, izaera eskusibo eta hautatzaitetik aldendu eta parte hartzaileago bilakatzeko helburuarekin. “Errendimenduari ekiteko lehiaketak” errendimendura bideraturiko kirol praktika batera bideratuta dauden lehiaketak dira. Azken lehiaketa multzoa “lehiaketa murriztuena” da, zeinak talentu berezia duten pertsonen soilik bideratuak egongo diren (7.art.).

Hurrengo multzoak “hautemate jarduerak” izenpean biltzen diren jarduerari egiten die erreferentzia, eta guztiz bideratuta egongo dira kirol modalitate ezberdinetan gaitasun bereziak dituzten eskola haurrak detektatzera. Horretarako entrenamendu saio gutxi batzuk eramango dira aurrera (7.art.).

Baina badaude hiru jarduera multzo hauetatik kanpo geratzen diren zenbait jarduera ere, eta hauen artean dekretuan bi jarduera moten aipamena

egiten da: kirol eta kultur jarduerak, eta aisialdiko jarduerak. Kirol eta kultur jarduerak kirolaren historiarekin eta urteetan izan duen garapenarekin erlazionatutako kultura jarduerak dira; esaterako, mugimendu olinpikoa aztergai duten praktika kulturalak multzo honen barnean bilduko lirateke. Aisialdiko jarduerak aldiz kirol modalitate bat lantzen dute, baina beti ere lehiaketa eta lehiakortasuna albo batera utziz (7.art.).

Beraz, jarduera sorta anitz honetan, hauetariko guztiak eta bakoitza helburu bat lortzera bideratuko da, eta baita garapenaren fase konkretu batean kokatu ere. Horrela, aurrez aipatu ditugun hiru ibilbideek, euren asmoak lortzeko egokienak diren praktika eta jarduerak erabiliko dituzte:

Kirolean parte hartzeko ibilbidearen kasuan, ikusirik kirolerako ohitura barneratzea eta garapenarekin jarraitzea lortu nahi direla, ez du inongo errendimendurako asmorik izango, eta beraz nagusiki jarduera hauek praktikatu dira ibilbide honetan: hasierako jarduerak (ikaskuntza jardueren barnean), lehiaketa moldatu eta parte hartzaileak, kultur jarduerak eta aisialdi jarduerak. Argi dago jarduera hauekin, esan bezala, errendimendu logikatik kanpo jardun nahi dela. Gainera, nahiz eta ibilbide honetan parte hartzeko gutxieneko adina aurrebenjamin mailari dagokiona izan, benjamin kategoriara arte ez da lehiaketa parte hartzaile eta moldaturik sartuko (8.art.).

Errendimenduari ekiteko ibilbidean lehiaketa eta beste zenbait helburu indar hartzen hasiko dira ikusi dugun bezala, eta horregatik, ibilbide honetan hautemate eta teknifikazio jarduerak, errendimenduari ekiteko lehiaketak eta kirol eta kultur jarduerak eramango dira aurrera. Adinari dagokionean, hautemate jardueretarako gutxieneko maila kimuen lehenengo urtekoa izango da, baina gainerako jarduerak burutzen ez da hasiko kimuen bigarren urtera heldu arte (9.art.).

Azkenik, talentu eta promesak hautemateko ibilbidean, izenak dioen bezala, talentu hauek detekzioa erraztuko duten eta hautaketa honetara bideratuta dauden jarduerak planteatuko dira: hautemate eta teknifikazio jarduerak, lehiaketa murriztuak eta kirol eta kultur jarduerak. Hemen ere, kimuen lehenengo urtean hautemate jarduerekin hasiko lirateke, eta bigarren urtean egingo lukete jauzi gainerako praktiketara (10.art.).

Beraz, esan daiteke eskola kirolean jardueretan aniztasuna bermatzeko saiakera bat egiten dela, eta ondoren jarduera horietako bakoitza, jarduera honek eskaintzen duenaren arabera testuinguru konkretu batera egokitzen da, jarduera hauetariko bakoitza ibilbide ezberdinetan txertatuz.

Hau aztertuta, eragile askok dute eskola kirolaren nondik norakoak zehazteko eskumena, eta haurren garapen prozesu egokia bermatzera bidean, elkarlanean, elkar kontuan hartuz eta eraginkortasunez jardungo dira Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak ezarritako gidalerroak errespetatuz (Sarrera, 3.art., 15.art.).

### **Lurralde antolaketa:**

Haurren garapen prozesu honetan, garrantzitsua da eskola kirolak haurren beharrak asetzea ere. Horrela, haur bakoitzak ezaugarri ezberdinak dituela ulertuta, behar hauek asetzeko eskola kirolaren planteamendua ahalik eta era sakonenean egokitu behar da haur bakoitzarengana.

Haur bakoitzaren ezaugarri bereizgarrietako bat bere bizilekua da. Hau da, bizi den ingurune sozial zein fisikoak erabat baldintzatuko dute bere bizimodua, eta beraz baita heziketa ere. Horregatik, eskola kirolaren programak arlo honi dagokionean haur bakoitzarengan egokitua izan behar dira ahal den heinean. Hori horrela, tokian tokiko eskola kirol ereduak, programak eta jarduerak diseinatuko dira, lurralde historiko bakoitzari horretarako eskumena emanaz, inguru geografiko zein sozial bakoitzeko haurren beharrak ase nahian (Sarrera).

Beraz, EAEko Foru Aldundi bakoitzak eskumena eta betebeharra izango du dagokion inguru geografikoari doitutako eskola kiroleko programak antolatzeko. Gainera, urtetik urtera berritu eta onartu beharko dituzte programa hauek. Hala ere, eskola kiroleko dekretuak zehaztutako helburuei erantzuteko programa hauek norabide batean bideratu behar dira, eta hori dela eta, probintzia bakoitzeko eskola kiroleko programa orok Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak finkatutako printzipioak errespetatu beharko ditu (3.art.).

Bestalde, probintzia mailatik haratago joanez, eskualde bakoitza aztertuz gero, baliteke hauetako bakoitzean eskola kirolaren programan egokitzapen batzuk jasatea eta beraz programa hauek era ezberdinean eramatea aurrera. Ondorengo atalean ikusiko dugun bezala, kategoria konkretu batzuetako



programak eskualdeka antolatuko baitira (5.art.); eta bestalde, beste kategoriatan ere, nahiz eta programa lurralde historikoaren zein autonomia erkidego osoaren baitakoa izan, herri bakoitzen azpiegitura, baliabide materialak, giza baliabideak nahiz ekonomikoak aldatu egingo dira, eta honek ere herri bakoitzeko asterokotasunean programan egokitzapenak ematea eragin dezake. Hala ere, aurrez aipatu bezala, Batzordeak markaturiko jarraibideak kontuan hartuko dira eta ez zaie inolaz ere uko egingo (Sarrera, 15.art.).

Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak Euskal Autonomia Erkidego osorako eskola kirol eredu bat sortzen du, oinarriak, printzipioak eta bete beharreko arauak zehaztuz. Horrela, nahiz eta lurralde historiko bakoitzak eredu hau bere ezaugarrietara egokitzeko aukera izan, bermatuko da haurren garapen prozesua lurralde guztietan norabide orokor beraren baitan ematea (Sarrera, 16.art.).

Laburbilduz, Autonomia Erkidego mailan, eredu homogeen bat bermatu nahian eskola kirolaren oinarri eta printzipioak definituko dira. Baina probintzia bakoitzeko foru organoek nolabaiteko askatasuna izango dute, tokian tokiko hezkuntza programekin uztartuz, eredu hau bere lurraldeko bereizgarritasunetara egokitzeko, beti ere Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak ezarritako pautekin koherentzia mantenduz.

### **Esku hartzen duten eragileak eta hauen eskumenak:**

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko zein eskualde ezberdinek aukera izango dute Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak finkatutako arau eta printzipioak euren beharretara egokituz programak antolatzeko eta hauek aurrera eramateko (Sarrera). Baina antolaketa eta aurrera eramateko prozesu honetan eragile ezberdinek esku hartuko dute, batzuk tokian tokikoak izango direnak, eta besteak probintzia mailakoak (15.art.). Horrela, atal honetan eskola kiroleko fase eta ibilbide ezberdinen antolakuntza eta kudeaketaz arduratzen diren eragile ezberdinak aztertuko ditugu.

Ibilbide ezberdinetako esku hartzeari dagokionean, “parte hartzeko ibilbidea” prestatu, antolatu eta kudeatzeaz arduratuko diren eragileak ikastetxeak izango dira, eta beraz hauek izango dute lehentasuna ibilbide honetako erabakiak hartu eta jarduerak aurrera eramaterako orduan (15.art.).

Gainerako bi ibilbideetan aldiz, hau da, “errendimenduari ekiteko ibilbidean” eta “kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbidean”, kirol klubak, kirol sozietate anonimoak eta beste zenbait kirol elkarte izango dira ikastetxeek parte hartzeko ibilbidean betetzen duten funtzioa beteko dutenak, eta beraz, lehentasunezko esparru (15.art.).

Baina nahiz eta ibilbide bakoitzean antolaketa eta kudeaketa nagusiki eragile batzuen gain geratu, badaude zenbait entitate edo erakunde eragile hauei ekarpenak egingo dizkietenak (15.art.).

Batetik herri administrazioak daude, zeinak jardueren inguruko proposamen eta erabakietarako ikastetxeen eta kirol klubaren arteko elkarlana bultzatuko duten (15.art.).

Kirol federazioek ere funtsezko papera betetzen dute eskola kirolean. Hauek batez ere laguntza teknikoaz arduratuko dira; hau da, jarduera ororen aspektu teknikoak landu eta gidatuko dituzte: lehiaketa jardueretan, esaterako, arbitrajeak, aktak, sailkapenak eta zigorrak koordinatzeaz arduratuko litzateke, besteak beste. Baina lehiaketa jardueretara mugatuzetik haratago, hezkuntza programen eta balioak hautemateko programen diseinuan ere lagunduko dute federazioek. Finean, federazioek eskola kiroleko programetan kolaboratzaile lana egingo dute (15.art.).

Azkenik, lurralde historiko zein eskualde bakoitzak eskola kiroleko programa bakoitzaren neurritik zehazteko eskumena duenez, udalek ere eskola kirolean lan egin beharko dute. Horrela, hauek batez ere programen exekuzioan laguntza eskaintzera mugatuko dira, besteak beste jarduerak aurrera eramateko beharrezko diren instalakuntza eta beharrezko azpiegitura baliabideak erabilgarri jarri (15.art.).

#### **Jardueren lurralde eremua:**

Arestian aipatu ditugun kategoria eta maila ezberdin hauek euren kategoria bereko kideekin jarduten dira eskola kiroleko jardura ezberdinetan, baina mailaren arabera, parte hartzaile bakoitza jardungo den lurralde eremua aldatu egingo da. Hau da, kategoria bakoitzean jardun esparrua geografikoki mugatua dago (5.art.).

Ikusi dugun bezala, dekretuak nolabaiteko autonomia bat ematen die eskualde zein lurralde historiko bakoitzari erkidego maila finkatutako printzipioei muzin egin gabe eskola kirol eredu propio bat antolatzeko eta abian jartzeko. Baina antolaketatik harago, jardute esparruan bertan, kategoria bakoitzean jardute esparru honen zabalpena ezberdina izango da, eta bakoitzak lurralde muga propioak izango ditu (5.art.).

Horrela, haurrak adinean, eta beraz, maila edo kategoriaz igotzen doazen heinean jardute eremu hau zabaltzeko joera bat definitzen du dekretuak: hasieran haurrak gertuko ingurune fisiko zein sozial batean arituko dira, baina kategoriatan eta garapen prozesuan aurrera egin ahala, praktika eremu fisiko zein sozial zabalago batean eraman beharko da aurrera (5.art.).

Maila bakoitzari definitutako lurralde eremuan murgilduz, gaztetxoenen kasuan, lehenengo bi mailatan (aurrebenjaminak eta benjaminak) eskola kiroleko praktika herri eta eskualde mailara mugatuko da, eta beraz parte hartzailea gertuko sentitzen duen eremuan eta gertuko jendearekin arituko da. Hurrengo mailara jauzi egitean, kimu mailara hain zuzen, lurralde eremua zabaldu egingo da, eta eskualde mailan jardutetik lurralde historiko mailan jardutera igaroko dira. Heziketa prozesuari jarraipena emanaz, haurrak kimu mailatik haur mailara egingo dute jauzi, zeinetan praktika autonomia erkidego mailakoa izango den; beraz, zenbait praktiketara probintzia ezberdinetako jendearekin jardun beharko dute parte hartzaileek. Azkenik, eskola kirolaren bidezko heziketa prozesuari amaiera ematen dion maila, aurreko atalean aipatu gisan, kadeteena da, eta praktika eremuari dagokionean, adin honetan erkidegoko mugak gaindituko dira (5.art.).

Beraz, jarduteko ingurune fisiko eta sozialean zabalpen edo areagotze progresibo bat antzeman daiteke haurrek garapenean aurrera egin ahala. Honen ondorioz, hazten doazen heinean gero eta jende eta eremu geografiko gehiagorekin egingo dituzte harremanak, heziketa prozesuarekin jarraitzea ahalbidetuz.

### **3.2. ESKOLA KIROLA GIPUZKOAN:**

125/2008 dekretua aztertzearen bidez EAE maila Eskola Kirolak dituen printzipio eta oinarriak zehaztu ondoren, espezifikotasunera gerturatu nahian,

Gipuzkoako Eskola Kirola zertan dagoen aztertzeari ekingo diogu, lan amaieran Itziarko Eskola Kirolerako proposamen bat egin nahi badugu, beharrezkoa izango baita bertako egoera zehaztasunez ezagutzea; beraz, Itziarko Eskola Kirola Gipuzkoakoaren baitan biltzen denez, Gipuzkoako ereduarekin ere ezagutu beharra dago.

Hau horrela, kontuan izan behar da 14/1998 Kirol Legeak eta 125/2008 Eskola Kiroleko Dekretuak lurralde historiko bakoitzeko organo eskudunei ematen diela eskumena eskola kiroleko urteko programak egitekoa (125/2008 Dekretua). Beraz, atal honetan Gipuzkoa mailan ibilbideka eta kategoriaz kategoriaz egiten diren jarduerak nagusiak aztertuko ditugu. Horretarako, Gipuzkoan 2016-2017 ikasturtean eskola kirol ereduaren inguruan emandako hausnarketa eta berrezartze prozesuan finkatutako ondorio eta printzipio nagusiengan oinarrituko gara, zeinen bidez eskola kiroleko programaren orientazio orokorra, ibilbide ezberdinen orientazioa eta beste hainbat oinarri berrezarri ziren (02-113/2017 Foru Agindua).

Hausnarketa eta erabakitze prozesu honetan ibilbide bereizketa eta jarduerak ezberdinen sailkapena bere horretan mantendu ziren, Eskola Kiroleko Euskal Batzordeak EAE osorako eginiko sailkapena erabiliko delarik Gipuzkoako eskola kirolean ere. Beraz, puntu horretatik abiatuta, ondorengo lerroetan lehenik eta behin kirol ibilbide bakoitzari dagozkion kirol jarduerak multzoak zein diren aztertuko dugu, eta behin hau eginda, kategoriaz bakoitzean ibilbide bakoitzari esleitzen zaizkion kirol jarduerak zehatzak sailkatuko dira (02-113/2017 Foru Agindua):

Ibilbideetako jarduerak multzo ezberdinei dagokionean, honako hauek zehazten dira 02.113/2017 Foru Aginduan (02-113/2017 Foru Agindua):

## 1. PARTE HARTZEKO IBILBIDEA

- a. Hastapeneko jarduerak: jarduerak hauen barnean ere, beste hiru jarduerak multzo handi definitzen ditu Foru Aginduak.
  - i. Ingurunera egokitzeko jarduerak: kirol modalitate batean murgildu aurretik egiten dira, eta hauen helburu nagusia ingurune natural ezberdinetan trebetasunak barneratzea da.

- ii. Garapen psikomotorreko jarduerak: multzo honetan ere oinarrizko gaitasunak barneratzea baimentzen duten jarduerak biltzen dira, ondoren kirol modalitate ezberdinetarako baliagarri izango direnak.
  - iii. Modalitate espezifiko baten hastapeneko jarduerak: jarduera hauek aldiz kirol disziplina konkretuei lotutako gaitasun zehatzak lantzen dituztenak dira. Lehenengo bi jarduera multzoetako praktikak burutzen aurrebenjamin garaian has daitezke haurrak, baina modalitate espezifiko baten hastapenak ez dituzte landuko benjamin garaira arte.
- b. Parte hartzeko lehiaketak: lehiaketa hauek ere bi norabidetan eman daitezke.
- i. Barruko lehiaketak: lehiaketa hauek ikastetxe mailan antolatzen dira, ikastetxeko ikasleak elkarrekin kirol modalitate ezberdinetan jardungo direlarik. Kasu honetan, ikasleak beraiek antolaketa lanean aritzea sustatzen da, taldeak, egutegiak eta emaitzak antolatuz, besteak beste.
  - ii. Kanpokoak: lehiaketak Gipuzkoa mailan eramango dira aurrera. Benjamin eta kimu edo alebin mailatan kirol aniztasuna bermatzen saiatuko da; Haur edo infantil eta kadetetan aldiz haurrak jarduera konkretuetara mugatuko dira (talde kirol bat eta bakarkako beste bat soilik praktikatu dituzte)
- c. Beste jarduera batzuk: Multzo honetan aniztasun funtzionala edo ezgaitasunen bat duten haurrei zuzenduriko jarduerak biltzen dira. Kontuan izan behar da ahal den guztietan ume hauek jarduerak gainerako hurrekin praktikatu dituztela, gainerako aukera eta baldintza berak izanez. Hala ere, aniztasun funtzionala duten hauen integrazioa ezinezkoa den kasuetan, zehazki hauei zuzendutako jarduerak antolatuko dira.
- Horretarako kontuan izan behar da egoera, ezgaitasun eta garapen maila ezberdineko haurrak egon daitezkeela, eta beraz, hauetako bakoitzaren behar oro aseko dituzten jarduerak eskaintzea funtsezkoa izango da.

## 2. ERRENDIMENDUAN HASTEKO IBILBIDEA

- a. Teknikazio jarduerak: jarduera hauetan, 125/2008 dekretuak dioenarekin bat eginda, kirol jakinetarako trebetasunak dituzten haurren hobekuntza bilatzen da. Teknikazio jarduera hauek nolabait esateko bi fasetan bereizten dira.
  - i. Batetik, modalitate bakoitzean gaitasun hoberenak dituzten haurrak detektatzeko jarduerak daude.
  - ii. Bestetik berriz, behin trebeenen hautaketa eginda, hauen gaitasun fisiko, tekniko eta taktikoak hobetzera bideratutako entrenamendu teknifikatuak.

Bi fase edo multzo hauen antolaketa nagusiki nagusiki kirol elkarten eta federazioen esku geratuko da.

- b. Errendimenduan hasteko lehiaketa jarduerak: kirol lehiaketa hauek errendimenduaren hastapenetara bideratuta daudenak izango dira, eta hauetan parte hartu ahal izateko gutxieneko adina alebin edo kimu kategoriari dagokiona izango da. Alor hau ere federazio eta klubien esku egongo da batez ere.

## 3. TALENTUDUNAK ETA ETORKIZUNEKO KIROLARIAK IDENTIFIKATZEKO IBILBIDEA

- a. Teknikazio jarduerak: Ibilbide honetan ere, errendimenduaren hastapeneko ibilbidean bezala, teknikazio jarduerak burutuko dira, aurreko ibilbideko printzipio, oinarri, helburu eta jarduera berak errespetatuz.
- b. Lehiaketa mugatuak: Lehiaketa hauek ere errendimenduko hastapenetakoen antzekoak dira, baina hauetan euren talentu eta gaitasunengatik hautatuak izan diren haurrek soilik har dezakete parte; Gutxieneko kategoria lehiaketa mugatuetan ere alebin edo kimuena izango da.

Jarduera multzo hauetan jarduera eta modalitate ezberdinak biltzen dira, eta mailaz maila, honako hauek dira Gipuzkoako eskola kiroleko ibilbide

bakoitzean praktikatzen diren kirol modalitate eta jarduera nagusiak (02-113/2017 Foru Agindua)<sup>1</sup>:

### **Aurrebenjamin kategoria:**

Aurrebenjamin kategoriako haurrak parte hartzeko ibilbidean soilik jardun ahal izango dute, eta hori hala izanik, nagusiki praktikatuko dituzten jarduerak hastapeneko jarduerak izango dira. Hauen barnean, gehienak natur-ingurunean praktikaturikoak izango dira (mendi irteerak, eskalada ... ), baina igeriketa, gorputz adierazpena eta beste zenbait jarduera ere landuko dira. Bestalde, kontuan izan behar da jarduera gehienak inklusiboak izango direla, eta aniztasun funtzionala duten pertsonen gehienez parte hartu ahal izango dute.

Jarduera hauez gain, kontuan izan behar da geroago aztertuko dugun “Jolashezi” egitasmoa ere kategoria hontara bideraturiko programa bat dela, eta beraz programa horretan parte hartuz beste zenbait jarduera ere praktikatu ahal izango dituztela hurrek.

### **Benjaminak eta alebinak edo kimuak:**

Bi kategoria hauetan, parte hartzeko ibilbidea aztertzen badugu, jarduera oso antzekoak eramango dira praktikara, eta nahiz eta kategoria aldatzearekin batera ñabarduraren bat alda daitekeen, ezaugarri gehienak antzekoak dituzte bi mailetako jarduerak:

Adin hauetan aipaturiko ibilbidearen barnean batetik kirolean hasteko jarduerak edo hastapenekoak praktikatzen dituzte. Hala ere, aurrebenjamin kategorian ez bezala, hastapeneko jarduera hauek gehienbat lehiadun kirolek bideraturiko hastapenak dira (beisbol, herri kirolak eta igeriketakoak, besteak beste), nahiz eta abentura eta natur-jarduerei ere tartea eskaintzen zaien (mendi ibilaldiak esaterako). Jarduera multzo honi dagokionean, benjamin kategoriatik kimu mailara printzipio gehienak errespetatzen dira, baina jarduera berri gehiago ere txertatzen dira kimu kategoriarantz jauzi egitearekin batera (oinarrizko sorospena, urpeko jarduerak ... )

---

<sup>1</sup> Maila bakoitzean praktikatzen diren kirol modalitateen eta jarduera espezifikoen inguruko informazio guztia: <http://www.gipuzkoakirolak.eus/es/programa-deporte-escolar>

Bestetik, parte hartzeko lehiaketak ere kategoria hauetan hasten dira sartzen. Bai benjamin eta bai alebinetan askotariko lehiaketa kirolak praktikatzen dira, izan taldekakoak (8ko futbola, 7ko errugbia) edo izan bakarkakoak (atletismoa, badimntona, etab.), baina parte hartzeko lehiaketen kasuan maila batetik bestera arauetan aldaketak handiagoak dira: benjaminen kasuan ez baita inongo sailkapen zein txapeldunik onartzen eta izendatzen, eta taldeak mistoak izango dira; alebinen kasuan aldiz sailkapen bat egituratzen da, honek eskualde bakoitzeko txapeldunak sortuko dituelarik, zeinak Gipuzkoako txapelketetan parte hartzeko aukera izango duten.

Baina kimu kategorian ez da parte hartze ibilbidea jorratzen den ibilbide bakarra; errendimenduan hasteko ibilbidean eta talentudunen detekziorako ibilbidean ere har dezakete parte hurrek (kategoria honetan aurrengo aldiz). Horregatik, ibilbide hauetan gauzatzen diren jarduerak zein diren aztertzea ere beharrezkoa da:

Errendimenduan hasteko ibilbidea aztertuz, sailkapenean bereizi dugun moduan, batetik teknifikazio jarduerak landuko dituzte hurrek; xake, futbola, belar hockey-a edo igeriketa gisako kiroletarako prestatzeko jarduerak hain zuzen ere. Baina teknifikazio jarduera hauez gain, jarduera hauetan ikasitakoa lehiaketa egoeran praktikan jarri ahal izango dute hurrek errendimenduan hasteko kirol lehiaketetan parte hartuz (Tenis, eskubalo, saskibalo, futbol eta esku pilota lehiaketetan zehazki esanda).

Talentuen identifikaziorako ibilbidean ere teknifikazio jarduerak zein kirol lehiaketak izango dituzte, baina ibilbide honetan kirol modalitateen aukera askoz murriztagoa izango da; Gimnastika, futbola eta esku pilota bakarrik landuko dira.

### **Infantilak eta kadeteak:**

Infantil eta kadete mailan ere, alebinetako jarduera banaketa bera egingo da. Parte hartzeko ibilbidean egitura berbera mantenduko da, hastapeneko jarduerak eta parte hartzeko lehiaketak bereiziz. Aldaketa bakarra kirol modalitate gero eta gehiago praktikatzeko aukera egotearena da. Horrez gain, parte hartzeko lehiaketen kasuan, alebin kategorian eskualdeka lehiatzen bazen, maila hauetan lurralde historiko mailan lehiatuko da.



Baina hala ere, bi maila hauetan, parte hartzeko lehiaketei dagokionean, haurrak banakako eta taldekako kirol banatan soilik jardun ahal izango dira, espezializaziora bideratuz.

Beste bi ibilbideetan ere infantil mailan oinarri berak errespetatuko dira, nahiz eta alebinetatik infantiletara errendimenduan hasteko ibilbidean ere kirol modalitateen eskaintza areagotuko den. Horrela, atletismoa, txirrindularitza, arrauna edo karatea bezalako modalitateak gehituko zaizkie alebin mailakoei.

### **Jolashezi:**

2016-2017 ikasturtean eskola kirolaren inguruan Gipuzkoan emandako hausnarketa prozesu horretan zenbait egokitzapen, berreste eta aldaketa emateaz gain, prozesu honek egitasmo berri baten sorrera ere ekarri zuen: “Jolashezi” egitasmoarena hain zuzen ere<sup>2</sup> (Jolashezi, d.g.).

Programa hau 6 eta 8 urte bitarteko umeen garapen motor, kognitibo, emozional eta soziala lantzeko eta gauzatzeko programa bat da; finean, haurren garapen integralaren bidean aurrerapausoak ematearekin batera, hauek gizartean bizitzen ikas dezaten bilatzen da, besteak beste; horretarako, kulturartekotasuna, hezkidetzeta eta parekidetasuna bezalako balioak txertatzea izango da oinarri, euskal kulturaren transmisioa bermatzearekin batera, ondoren ikusiko dugun bezala (Jolashezi, d.g.).

Bestalde, ulertuta programa hau eskola kiroleko lehenengo fasera bideratuta dagoela, beste asmoetako bat haurrak eskola kiroleko ondorengo faseetarako ahalduntzea eta prestatzea izango da (Jolashezi, d.g.).

Baina programa honen sorrera ez litzateke emango, eskola kirolaren paradigma hezitzaile eta parte hartzaile bat ez balego. Horregatik, ezinbestekoa da paradigma honen oinarriak ulertzea “Jolashezi”ren jaiotza eta egitasmoa bera ulertzeko: ikuskera honek prozesuan, praktikan eta prozesuan bertan izandako bizipen, emozio eta esperimazioan zentratuko den eskola kirol bat defendatzen du, erabat inklusiboa izango dena. Gainera, berdintasunezko eta kooperaziozko harremantze eredu bat izango du ardatz. Hau horrela, banaka

---

<sup>2</sup> “Jolashezi” egitasmoaren inguruko informazioa lortzeko hiru dokumentu erabili dira, esteka honetan daudenak: <http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/jolashezi>. Programaren eta sekuentzia didaktiko guztien garapena sakonduta bertan aurki daitezke.

zein taldean jardutea eta jarduten ikastea bilatuko du, beti ere bizipenak bultzatu nahi horretan emaitzari pisua kenduko zaiolarik, nahiz eta emaitzak ere baloratuko diren (Jolashezi, d.g.).

Abiapuntu hau izanik, egitasmo honek zenbait printzipio izango ditu (Jolashezi, d.g.):

- Praxiologia motorra: egitasmo honek pertsona bere osotasunean ulertuko du; Hau da, haurren heziketa globala bilatuko da. Horregatik, gaitasun motorrak hobetze hutsetik haratago, arlo sozial zein kognitiboak ere landuko dira egoera motor ezberdinak baliatuz.
- Euskal kulturaren transmisioa: haurrek euskal kulturaren nondik norakoak ezagutu eta barneratzea ere beharrezkoa izango da euskal jendartearen bizitzaren ikas dezaten, eta horretarako tresna oso aproposa da joko-jolasek eskaintzen digutena. Hauen bidez euskal kulturako zenbait balio eta ohitura barneratuko dituzte haurrek. Baina honek ez du esan nahi gainerako kulturak baztertu behar direnik; kulturartekotasuna ere sustatu behar da, izan kultura batekoa edo bestekoa, bakoitzaren eskubideak errespetatuzetik hasita.
- Balio hezkuntza: euskal kulturaren bereizgarri diren ohitura eta balioez gain, beste zenbait balioen ikasketa ere bultzatu nahi da “Jolashezi”rekin. Besteak beste, autoestimua inguruko lanketa, empatia, autonomia, elkarlana, zentzu etiko eta morala edota inklusioa.
- Hezkidetzaren balioen bidezko heziketarekin jarraituz, hezkidetzaren lanketa ere lehenengo planoan jartzen du egitasmoak. Horrela, generoak eragindako rol, balio eta jarreretatik aldendu eta botere eta hierarkiarik gabeko balioen bidez hezteko bilatuko da, horretarako hainbat neurri hartuko direlarik (espazio banaketa, estereotipoak, hizkuntzaren erabilera ... kontuan izan).
- Konfiantzaren pedagogia: heziketa integralaren barnean, norbere buruarengan sineste, norberarekin eta taldearekin konfiantza izatea eta seguru sentitzea ere landu beharreko gakoetako bat da, eta “Jolashezi” egitasmoan aintzat hartuko den beste faktoreetako bat izango da.

### **Programaren nondik norakoak:**

Aipatu gisa, “Jolashezi” 6 eta 8 urte bitarteko hurrei zuzenduta dago, aurrebenjamin kategoriako hurrei hain zuzen ere; baina adin tarte honen barnean, adin bakoitzarentzat programa espezifiko bat prestatuko da. Hau da, lehenengo urteko aurrebenjaminari zuzendutako programa bat egongo da, eta bigarren urtekoentzat beste bat, bi adin bereiziko direlarik (Jolashezi, d.g.).

Bi programa bereizten diren arren, biek egitura berbera izango dute, eta hiru bloketan bereiziko dira, bi programetako blokeak berberak izanik. Horrela, bloke bakoitzean eduki, eta beraz, jarduera ezberdinak landuko dituzte finkatutako helburu eta asmo guztiak erdiesteko. Beraz, Ikasturtea hiruhilekoka antolatzen den gisa, hiruhileko bakoitzean bloke bat eramango da aurrera (Jolashezi, d.g.).

Horrez gain, bloke hauetako bakoitzean sekuentzia didaktiko ezberdinak banatuko dira, sekuentzia ezberdinen bidez proposaturiko edukia era ezberdin batean landuz. Beraz, programa bakoitza 3 bloke nagusiz eta 14 sekuentzia didaktikoz egituratuko da (Jolashezi, d.g.).

Lehenengo bi blokeetan bosna sekuentzia landuko dira, eta azkenengo blokean, luzeran laburragoa izango denez, lau. Sekuentzia hauetariko bakoitza lau saioz osatua egongo da, bloke bakoitza topaketa saio batekin amaituko delarik. Hona hemen ikasturteko 3 bloke nagusiak (Jolashezi, d.g.):

- Urritik abendura bitarte “Ni, Gu eta Dantza” deituriko blokea jorratuko dute bi programetan.
- Urtarrila, otsaila eta martxoan zehar “Ni, Gu eta Zu Jolasten eta Jokutzen” blokearen txanda izango da.
- Kurtso amaieran azkenik, apirila eta maiatzean zehar “Gu eta Zu Klean” deituriko atalari emango zaio bide.

Aipatu bezala, bloke bakoitza eta bertan landu nahi diren edukiak jorratzeko egitasmoak sekuentzia didaktiko ezberdinak baliatzen ditu. Guztira sei sekuentzia didaktiko mota bereizten dira egitasmo honen barnean (Jolashezi, d.g.):

- Bakarkako ekintzak: Sekuentzia hauek norbanakoan zentratuko dira nagusiki, bere gaitasun eta trebezia motor ezberdinak hobetzean (desplazamenduak, koordinazioa, gorputza ezagutzea ... )
- Buruz burukoak: Halakoetan bi ikasle elkarrekin oposizio egoera batean daudela arituko dira, bakarkako duelu bat osatuz. Jarduera hauekin norbanako bakoitzak aurkariaren ekintza irakurri, interpretatu eta honen arabera erabakia hartzea bilatuko da.
- Kolaborazioan oinarritutakoak: halako jardueretan haurrak taldean lan egingo dute, eta ez dute inongo aurkaririk izango. Hau da, praktika hauen funtsa talde lanean, kooperazioan eta elkarlanean oinarrituz praktikaren eskaria gainditzea izango da, jardueraren helburua lortzea.
- Kolaborazio-oposizioaren sekuentzia: kasu honetan, kolaborazio sekuentzian eskatzen den bezala, haurrak taldean arituko dira, baina kasu honetan aurkako talde bat izango dute. Horrela, duelu egoera bat sortuko da, eta egoera honetan, norbanako bakoitzak aurkariaren eta kideen ekintzak interpretatu eta honen arabera erabakiak hartu beharko ditu.
- Adierazkortasun sekuentzia: sekuentzia honek biltzen dituen jardueratan, haurrak sormenaz eta irudimenaz baliatu beharko dira gorputz adierazpenaren espresio ezberdinak gauzatzeko.
- Ziurgabetasun espazialari dagokion sekuentzia: Zenbait jardueratan espazioarekiko ziurgabetasuna izan ohi da kontuan hartu beharreko faktoreetako bat; hau da, jarduleak ez du guztiz kontrolatzen jarduten den espazioa, eta ingurunearen faktore ezberdinek eragin zuzena dute jardulearen ekintzan. Horrela, inguruneak praktika hauetan informazio bat eskaintzen dio jarduleari, eta jarduleak hau interpretatu eta honen arabera erabakiak hartu beharko ditu praktikan arrakasta izan dezan.

Horrela, bloke bakoitzak bere eduki, helburu eta ezaugarrietara gehien egokitzen diren sekuentzia didaktikoak erabiliko ditu.

Bukatzeko, “Jolashezi” egitasmoak ez ditu asteburuetakoa partidak antolatuko, eta partida hauen ordean, bloke bakoitzaren amaieran topaketa batzuk burutuko dira. Baina topaketa hauek ez dute partiden logikarekin zerikusirik izango: bloke honetan landutako eta garatutako eduki eta gaitasunak praktikan jarriz familiako kideen harremantzea izango du te helburu; hau da, adin

ezberdinetako jendearen elkarrekintza bilatzen da, eta familien partaidetza ere lortu nahi da. Esaterako, lehenengo bloke amaierako topaketetan euskal dantzak egingo dira, haurrak ikasitakoa praktikan jarriz eta beste pertsona batzuekin hau elkarbanatuz (Jolashezi, d.g.).

Gipuzkoako Eskola Kirolaren azterketarekin amaitzeko, laburbilduz esan daiteke EAE-ko Eskola Kirolari jarraipena ematen diola, 125/2008 Dekretuan finkatutako printzipio gehienak errespetatuz. Hala ere, 2016-2017 ikasturtean emandako hausnarketa prozesuak berrikuntzak ere ekarri ditu, Jolashezi egitasmoa besteak beste.

### **3.3. ESKOLA KIROLA ITZIARREN:**

Diagnosiaren azken zatian Itziarren gaur egun praktikatzen den eskola kirolaren nondik norakoak ezagutuko dira, hemen ere eskola kirol modeloa baldintza dezaketean alderdietan enfasia eginez.

Horretarako, Itziarko Eskola Kiroleko hezitzaileari eginiko elkarrizketa erabiliko da informazio iturri gisa<sup>3</sup> (Alberdi, 2018):

#### **Kokapena:**

Itziarko Eskola Kirola Debako Eskola Kirolaren adar bat da. Itziar oraindik herri ez izatean (auzo udala da), beste hainbat arlo bezala, eskola kirola ere Deban zehaztutakoaren baitan biltzen da.

Antolaketa eta urteko plangintza Deban erabaki, eta ondoren Itziarko hezitzaileak saioak plangintza horretara egokitu behar izaten ditu.

#### **Antolaketa:**

Ikasturteko antolaketari dagokionean, astean zehar bi saio izaten dira, Itziarren bertan, ordubetekoak. Baina horrez gain, bi astetik behin, larunbatetan Debako taldearekin elkartu eta lehiaketa ezberdinak praktikatzen dituzte: eskubaloiko, saskibaloiko eta futboleko partida ezberdinak hain zuzen ere.

#### **Adin banaketa:**

Taldea oso murrizta izatean (12 umez osaturiko taldea dago Itziarko Eskola Kirolean), adinaren eta kategoriaren arabera banaketa egitea zaildu

---

<sup>3</sup> Elkarrizketaren transkripzioa eranskinen atalean aurki daiteke

egiten da; horregatik, aste barneko saioetan guztiak elkarrekin aritzen dira. Haurrak Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik hasi eta seigarren mailara bitartekoak dira, 8 eta 12 urte tartean dituztelarik.

### **Jarduerak:**

Kirol ezberdinak praktikatzean oinarritzen da Itziarko Eskola Kirola. Debatik ezarritako printzipioei jarraiki, asteburuan lehiaketa egokitzen den asteetako bi saioak partidari jokatu den kirola lantzeko baliatzen dira. Hau da, adibidez, asteburuan futbol partidua jokatu behar badute hurrek, aste honetako bi saioetan futbola praktikatuko da.

Asteburuetan lehiatzeko hiru kirol modalitateak hauek dira: futbola, eskubaloia eta saskibaloia.

Asteburuan lehiaketarik ez dagoenean aldiz, kirol joko ezberdinak praktikatzen dira aste barneko saioetan: frontenisa, boleibola eta pilota dira hauetako batzuk.

Baina ikus daitekeen bezala, beti lehia kirolen aldeko hautua egiten da. Natur-jarduerak zein bestelako jolasek ez dute lekurik.

Gainera, kirol lehiakorretan zentratzea gutxi ez eta hauek praktikatzerako orduan Debako Eskola Kiroletik bultzatu nahi izaten duten ideia entrenamenduarena da. Hau da, saioak entrenamenduak bailitza planteatzen dituzte, helburu nagusia landutako kirolean gaitasun tekniko eta fisikoak hobetzea izanik.

Horrela, saioak honela egituratzen dira (partidetako kirola lantzen diren saioak batez ere): saioa beroketa jolas batekin hasten da, eta ondoren egokitutako kiroleko oinarritzko atalak landu (pasea, teknika eta jaurtiketak besteak beste) eta saioa partida batekin amaitzen da.

### **Espazioa:**

Eskola kiroleko saio guztiak frontoian eramaten dira aurrera Itziarko kasuan, bertan baitaude aipaturiko kirolak praktikatuko ahazteko baldintza eta baliabide aproposenak; porteriak edo saskibaloiko saskia kasu.

Gauzak honela, natur-ingurunea edo kalea bezalako espazioek ez dute tokirik Itziarko Eskola Kiroleko planteamenduetan.

## 4. ERALDAKETARA BIDEAN

Behin Euskal Autonomia Erkidegoko, Gipuzkoako eta Itziarko gaur egungo Eskola Kirolaren oinarri, printzipio eta nondik norako orokorrak ezagutu eta aztertuta, ondorengo atalean analisi hau abiapuntu izanik, egun indarrean dagoen eredutik aldatu edo behintzat eskola kirolean kontuan hartu eta landu beharko liratekeen aspektu eta oinarri ezberdinak mahai-gaineratu eta ebaluatuko dira. Hau da, bai gaur egungo ereduko printzipioak zalantzan jarriz edo bai hauek berretsiz, eskola kirol hezitzaile baterako funtsezkoak diren zenbait puntu sakonduko dira atal honetan.

Azterketa eta ebaluazio hau egiteko adierazle ezberdinak jorratuko dira, adierazle hauetako bakoitzaren arabera eskola kirolak bereganatu beharko lituzkeen ezaugarri ezberdinak eztabaidagai jarriz eta honekin batera, proiektuak izan beharko lukeen izaeraren hurbilpen bat eginez.

Baina aipatu dugu proposatuko diren aldaketa hauek egungo ereduak izan ditzakeen gabezia eta hutsuneetan oinarrituko dela. Horregatik, ezeren aurretik lagungarri suertatuko da egindako analisitik atera diren gabezia nagusiak zein izan daitezkeen ezagutzea:

- Lehenik eta behin, planteatzen diren helburuen eta horretarako proposatutako jardueren artean koherentzia faltaren zantzuak aurki daitezke; edo praktikan garaturiko jarduerak Eskola Kirolak definitutako helburuak lortzeko aproposenak direnaren zalantza eragin, bederen (inklusioa eta genero parekidetasuna bermatzerako orduan esaterako).
- Adin banaketa eta honen araberrako maila ezberdinen bereizketa oso zurruna bultzatzen da, adin bakoitzeko pertsonak bere adinekoekin soilik jardun ahal izango duelarik.
- Errendimendura bideratutako logika nagusitzen da, adin ia gazteenetatik gainera. Honen adierazle izan daitezke Errendimenduari Ekiteko Ibilbidea eta Kirol Talentu eta Promesak Hautemateko Ibilbidea, edo baita proposatzen diren jarduerak edota klub eta federazioen esku hartzea ere.
- Errendimendu logika nabarmentzeaz gain, espezializaziorako joera ere identifika daiteke adinean aurrera egin ahala. Infantil eta kadete mailatan

jarduera kopuru mugatua praktikatzeko aukera ematen da esaterako, jarduera ezberdinak probatzeko abagunea murriztuz.

Hauek dira gaur egungo Eskola Kirolari antzeman ahal zaizkion hutsuneetako batzuk, baina aldatu beharreko elementuak izan ditzakeen moduan, hainbat indargune ere baditu, eta horien artean “Jolashezi” egitasmoa nabarmenduko nuke, benetan eredu hezitzaile eta inklusibo baten aldeko apustua eta horrekiko koherentea den proposamena egiten duenaren ustearekin.

Behin hauek aztertuta, esan bezala, alderdi ezberdinen sakontzeari ekingo zaio, hautako bakoitza eredu berri baten proposamen saiakera baten bilduz.

Proposamena ulergarriago egite aldera, ebaluazioa adierazle adierazle egingo da. Baina ezin da ahaztu eskola kirolari zein haurren heziketari zentzua bere osotasunak ematen diola. Hori dela eta, garatuko diren adierazle guztiak eta hauetako bakoitza elkarrekin erlazio estuan daudenaren ikuspuntua da lanketa ulertzera eramango gaituena. Are gehiago, adierazle bakoitzak besteengan eragin zuzena izango du, eta osotasunaren ikuspuntua mantendu ezean, zentzua eta eraginkortasuna galduko dira.

Ondorengo adierazleak erabiliko dira eskola kirol eredu berri baterako oinarritzkoak izango diren alderdi ezberdinak lantzeko:

- Eskola Kirolaren helburua eta sustatu beharreko balioak.
- Eskola Kirola eta garapen integrala.
- Lehiakortasuna eta balio kolektiboak eskola kirolean.
- Erabakiak hartuz sormena garatu.
- Adin banaketa eskola kirolean.
- Ludikotasuna eta autotelismoa erdigune.
- Gurasoen funtzioa eskola kirolean.
- Eskola Kirola: autokudeaketarako esperientzia gune.
- Dinamizatzaile/hezitzaile/monitoreen garrantzia.
- Generoa eta sexuaren lanketa eskola kirolaren bidez.
- Natur-jarduerak, naturan jardutea eta eskola kirola.
- Inklusiora bidean eskola kirolek lehen urratsak.



Lehengo hariari jarraika, adierazle guzti hauen arteko erlazioa azpimarratu beharra dago, eta inklusioa bermatzean lehiakortasunaren aldeko hautua egiteak edo beste balio batzuk sustatzean eragina izango duen bezala, autokudeaketak eta sormenaren lanketak ekarpen zuzena egingo diete garapen integralari, edota hezitzailearen paperak erabat baldintzatu ditzake autokudeaketaren, sormenaren eta genero auziaren lanketak nahiz inklusioa. Ildo beretik, adierazle hauetako bakoitza ezin da gainerakoengandik independente bezala ulertu, eta heziketa prozesuan eragitekotan, izaera integraletik eragin beharra dago.

Adierazle bakoitza aztertzen hasi aurretik, ezin aipatu gabe utzi jorratuko diren puntu hauek maila ezberdinekoak direla. Hau horrela, ildo batzuk nolabait esateko teorikoagoak izango dira, eta beste batzuk aldiz eskola kiroleko egiturari loturiko neurri praktikoei erantzungo diete. Era berean, eta aurrez aipaturiko arrazoia dela medio, adierazle bakoitzaren sakontasuna ezberdina izango da, eta baita bakoitzetik ateratako neurri eta praktikoak ere.

#### **4.1. HELBURUA ETA SUSTATU BEHARREKO BALIOAK:**

Eskola Kirola, orain arteko analisisian ondorioztatu bezala, haurren heziketa prozesuan ekarpena egingo duen beste fenomeno bat gehiago da; hau da, hezkuntza prozesu orokorraren barneko osagaietako bat (125/2008 Dekretua). Hau horrela, haurrak heztea eta euren garapenean pausuak eman ditzaten ahalbidetzea da eskola kirolaren xede nagusia (125/2008 Dekretua).

Finean, eskola kirolak jarduera fisikoaren bidez norbanakoaren garapen integrala gauzatzen eta pertsona bera garatzen lagunduko du. Jarduera fisikoa praktikatzek berarekin dakar praktikatzaileari zenbait balore transmititzea, nortasun bat eraikitzen lagunduko duelarik (Gutiérrez, 2004; Goñi eta Zulaika, 2000), eta hau horrela izanik, eskola kirolak jarduera fisikoak dituen aukera eta berezitasunak baliatu behar ditu gainerako hezkuntza prozesua aberasteko. Hau da, norbanako bakoitzari fisikoki, intelektualki, moralki, sozialki eta kulturalki garatzeko baliabideak emango dizkio eskola kirolak (Hernández, 2014).

Baina jarduera fisikoen mundua hain anitza den honetan, jarduera fisiko forma bakoitzak, eta beraz, praktika konkretu bakoitzak, bere barne logikan biltzen dituen ezaugarrien arabera, balore zehatz batzuk transmititu eta gaitasun konkretu batzuk garatu ditzan ahalbidetuko dizkio praktikatzaileari (Etxebeste eta

Urdangarín, 2004). Horregatik, aukeratzen ditugun jardueren eta praktiken arabera, eta beraz, eskola kirolari ematen diogun orientazioaren arabera, era batean edo bestean eragingo du haurren hezkuntza eta garapen prozesuetan (Etxebeste eta Urdangarín, 2004; Goñi eta Zulaika, 2000).

Hainbat autorek baieztatu bezala, heziketa fisikoa berau gauzatuko den kultura eta gizartearen isla da, eta beraz, gizarte horretako balio eta ohitura ezberdinak barneratuko ditu eskola kirolean parte hartzen duen haurrak (Etxebeste et al., 2014). Beste era batera esanda, haurrak heziketa fisikoaren zein eskola kirolaren bidez gizartean bizitzen ikasiko du (Etxebeste eta Urdangarín, 2004).

Hau ikusita, ondoriozta dezakegu jarduera konkretu bat edo bestea erabilia, edo eskola kirol eredu bat edo bestea, hauen araberako pertsona motak eta beraz gizarte mota zehatz bat eraikiko ditugula. Horregatik, beharrezkoa deritzot eskola kirolaren bidez zein pertsona mota garatu eta zein balio sustatu nahi diren ondo definitzea, honek ondoren praktika batzuk edo besteak erabiltzera eramango gaituelako.

Horrela, eskola kirolaren helburu nagusia honako hau izan beharko litzateke nire aburuz: elkartasunean eta elkarlanean oinarritutako gizarte batean eta ludikotasuna erdigunean jarriz bizitzen ikasiko duten pertsona burujabe, ahaldun, osasuntsu eta solidarioak sortzea, edo bide horretan ekarpena egitea bederen.

Helburu hau lortzeko, aipatu dugun bezala, eskola kirola zenbait printzipiotan oinarritu beharko litzateke, eta jarduera konkretu batzuk bildu beharko lituzke bere baitan. Honenbestez, ondorengo puntuetan, helburu hau duen eskola kirolak izan beharreko oinarrien sakontze bat egingo da.

#### **4.2. ESKOLA KIROLA ETA GARAPEN INTEGRALA:**

Behin eta berriro aipatu dugu hezkuntzaren funtzioa pertsonak integralki garatzea dela, edo izan beharko lukeela behintzat, eta eskola kirolak bide horretan garapen honen osagarri izan behar duela.

Baina garapen integrala aipatzen denean, zeri egiten zaio erreferentzia? Kontzeptu honek berarekin osotasunaren paradigma edo ikuskera dakar. Garai

batean hainbat autorek definitutako izakiaren ikuskera dualista (gorputza eta arima elkarrengandik bananduta egotearena) alde batera utzi, eta garapen integralak pertsona bere globalitatean ulertzen du, osotasun bat bailitzan. Horrela, Rey eta Trigo autoreek diotenaren arabera (2000), pertsona ulertzeko pentsamendu, sentimendu, gizarte, natura eta mugimendu kontzeptuak kontuan izan behar dira, eta guzti hauek osatzen dute pertsona.

Eskola kirolaren arloa aztertuz, gure arloak pertsonaren garapen integralari, eta beraz, pertsonari berari jarduera fisikoen eta motrizitatearen arlotik egin behar dio. Motrizitateak, jokabide motorren arloak hain zuzen ere, gorputzaren esku hartzea eta mugimendua ditu oinarrian, baina gorputz biomekanikoak eginiko mugimendu mekanikoetara mugatzetik haratago, norbanakoaren dimentsio kognitibo, afektibo eta erlazional ezberdinak jartzen ditu praktikan: emozioak, ezagutza, pertzepzioa, akzioa, nahiak, etab. Horrela, pertsona motorki, sozialki, afektiboki eta kognitiboki inplikatzeko eskatzen du motrizitateak (Renzi, 2009; Parlebas, 2014).

Honenbestez, motrizitatearen munduak norbanakoa bere osotasunean inplikatzeko duenez, bere berezitasunaren bidez zenbait gaitasun barneratuko dizkio norbanakoari (Renzi, 2009):

- Gaitasun pertzepzioak: norbanakoarengan eragina duten inguruko estimuluak deskodifikatzeko gaitasuna, eta ondoren, honen interpretazioaren bidez aurkitzen den egoera eta testuingurua ulertu eta honi zentzua emateko gaitasuna.
- Gaitasun taktikoak: Arazo edo egoera motor ezberdinen aurrean, aukera ezberdinak baloratu eta horien artean egokiena aukeratzeko gaitasuna.
- Erlazionatze gaitasuna: zenbait jarduera motorrek, barne logikak hala definituta, helburu bat lortzeko gainerako kideekin erlazionatzera eta estrategia ezberdinak adostera behartzen dute norbanakoa, honetarako gaitasuna indartuz.
- Gaitasun koordinatiboak: gaitasun honek nerbio sistema kontrolatzeko eta nerbio sistemaren eraginpean dauden faktoreak erregulatzeko ahalmenari egiten dio erreferentzia (oreka esaterako).

- Gaitasun kondizionalak: mugimenduan eragina duten aspektuak dira multzo honi dagozkionak. Hau da, malgutasuna, abiadura, erresistentzia eta indarra hain zuzen ere.

Hauei beste zenbait ahalmen motor (gorputz kontzientzia edo postura ezberdinen barneratzea adibidez) (Renzi, 2009) eta norbanakoaren ezagutzan sakontzea (Jarduera Fisiko eta Kirolen Hausnarketa, 2016)<sup>4</sup> gehituta, nagusiki hauek dira jarduera fisikoek heziketarako eta garapenerako eskaintzen dituzten baliabideak. Bestalde, kontuan izan behar da gaitasun hauek ondoren arlo motorretik kanpo ere eguneroko bizitzara transferigarriak eta aplikagarriak izango direla (Renzi, 2009; Parlebas, 2014); horregatik, jarduera fisikoen munduak garapen integralean eta norbanakoa bere osotasunean heztea funtzio garrantzitsua betetzen du.

Baina ikusi dugu, jarduera batzuk edo besteak erabiliz gero, balore batzuk edo beste batzuk transmititu edo gaitasun batzuk edo besteak landuko ditugula (Etxebeste eta Urdangarín, 2004; Goñi eta Zulaika, 2000). Horregatik, benetan pertsona osoak hezi nahi baditugu, aipaturiko alderdi eta gaitasun guztiak jorratu beharko dira. Honenbestez, asmo horretara bideratutako eskola kirol ereduak lortu nahi bada, eredu horretan jarduera ezberdinen aniztasuna bermatzea gakoetako bat izango da gaitasun guzti horiek lantzeko eta beraz, pertsona integralki garatzeko. Hau da, eskola kirolean jarduerak askotarikoak izan beharko dira, pertsona egoera ezberdinetan jarriko dutenak eta gaitasun ezberdinak lantzea ekarriko dutenak, beti ere guk barneratu nahi ditugun balore eta printzipioak errespetatuko dituztelarik.

### **4.3. KOLEKTIBOA ETA LEHIA**

Aipatu dugunez, eskola kirolak haurrek gizartean bizitzen ikasteko esparru bat gehiago izan behar du, baina ez edozein gizartetan, baizik eta elkartasunean eta kooperazioan oinarritutako gizarte batean. Gauzak horrela, eskola kirolean hautatzen ditugun jarduerak horretara bideratuak izan behar dira, eta are gehiago

---

<sup>4</sup> Dokumentu hau zenbait web orriren bidez zabaldu izan da. Hona hemen dokumentua eskuratu ahal izateko esteka ezberdinak:  
[-https://borrokagaraia.wordpress.com/2016/11/23/jarduera-fisiko-eta-kirolen-hausnarketa/](https://borrokagaraia.wordpress.com/2016/11/23/jarduera-fisiko-eta-kirolen-hausnarketa/)  
[-http://haraba.info/ikasle-talde-batek-jarduera-fisikoen-eta-kirolen-inguruko-hausnarketa-bat-publiko-egin-du/](http://haraba.info/ikasle-talde-batek-jarduera-fisikoen-eta-kirolen-inguruko-hausnarketa-bat-publiko-egin-du/)

gaur egun lehiakortasun eta indibidualismo baloreak guztiz errotuta dauden gizarte batean bizi garela kontuan izanik.

Baina elkartasunaren eta talde izaeraren mesedetan bideratuko den eskola kirolean jardueren hautaketa koherentea egiteko, ezeren aurretik gaur egungo lehiakortasun eta indibidualismo balioen jatorria aztertzea beharrezkoa da, analisi honek erreproduzitu behar ez den eredua zein den ezagutzen lagundu diezagukeelarik:

Manifestu Komunistan zehaztu moduan, historian zehar emandako arlo ezberdinetako garapenek eta aldaketek (nagusiki produkzio erarenak eta industrializazioak) gaur egun gure bizitza kapitalismo industrial deituriko formazio sozialaren baitan egituratzea eragin dute. Aro honetan, historiako garai guztietan egon den klase edo talde sozial ezberdinen antagonismoa forma berri batean ematen da: bi klase nagusi bereiziz, burgesia eta langileria, elkarren arteko talkan daudenak (Engels eta Marx, 2004).

Horrela, bi klase ezberdin hauen botere ezberdintasuna dela eta, klase zapaltzaile eta klase esplotatu bat bereizten dira kapitalismoan (Engels eta Marx, 2004). Kapitalismoak xede nagusizat aberastasuna sortzea duen honetan, klase zapaltzaileak, burgesiak hain zuzen ere, gaitasuna du sortzen den aberastasun oro bere propietate bihurtzeko (Garagarza, 2015).

Hau da, kapitalismoak eta dominazio burgesak funtsa lan asalariatuan duela zehazten dute Marx eta Engelsek: esan bezala, produzitzen den aberastasun guztia gutxi batzuen eskuetan geratzeak beste jende konkretu batek bere lan indarra saldu beharra eragiten du; langile klaseak hain zuzen ere. Hau da, langile klase deitzen diogunak ez du gaitasunik aberastasunik biltzeko, eta beraz, bere biziraupena bere kabuz ziurtatzeko ez du gaitasunik; aberastasunik ez izatean, ez baitu beharrezko tresnak, janaria edo arropa sortzeko baliabiderik bere esku (Engels eta Marx, 2004).

Beraz, langile klaseko pertsona oro behartuta dago bere lan indarra saltzera biziraun ahal izateko, soldata baten truk. Hau hala izanik, nolabait esateko langilea beste pertsona baten menpe geratzen da, eta aberastasuna

pilatzeke gaitasuna duen burgesa egoeraz baliatzen da langilea esplotatzeko, zapaltzaileak eta esplotatuak bereiziz.

Lan asalariatu honek, eta esplotazioak nagusiki, langileak biziraupenerako zailtasunak izatea eragingo du, eta honek berarekin langile ezberdinen arteko lehiakortasuna dakar, eta baita indibidualizazio bat ere (Engels eta Marx, 2004), eta hona hemen gaur egungo gizartea gidatzen duten bi oinarrien sorburua.

Horrela, Bhrom-ek (1982) ere gizarte kapitalista besteak beste errendimenduan eta lehiakortasunean oinarritzen dela berresten du. Balio hauek gizarteari txertatzeko, ordea, hainbat tresna ezberdin erabiltzen ditu Estatuaren baitan eraikitzen den klase zapaltzaileak: besteak beste, Eliza, hezkuntza esparrua eta komunikabideak. Hau da, burgesia hainbat “aparatu ideologikoz” baliatzen da bere ideologia gizarteko maila guztietara zabaltzeko (Althusser,1988).

Eskola kirolarekin lotura zuzena duten egituretara jauzi eginez, hezkuntzari dagokionean, klase zapaltzaileak eremu hau baliatzen du txiki txikitatik haurrei balore eta ideologia jakin batzuk transmititzeko, beti ere burgesiaren mesedetan (Garagarza, 2015). Hau da, haurrak etorkizunean lan merkatuan lan indarra saltzeko eta lanean ahalik eta errendimendu altuena eskuratzeko prestatzen dituzte, edukiak ildo horretara bideratuz, eta esparru honetan ere lehiakortasun eta errendimendu printzipioak txertatuz (Garagarza, 2015). Honen adierazgarri da, esaterako, unibertsitatera sartzeko nota minimo bat lortu beharraren kasua: ahalik eta errendimendu eta nota hobereana lortu behar izaten da ikasten jarraitu ahal izateko, eta hori gutxi balitz, ondoko kidea baino nota altuagoa izatea komeni dela sinestarazten dute, lehiakortasun betean murgilduz.

Beraz, besteak beste, hezkuntzaren bidez ere aurrez aipaturiko errendimendu eta lehiakortasun balioak transmititu nahi zaizkie haurrei. Honi lotuta, indibidualizaziorako joera nabarmena eta pentsamenduaren garapenaren oztopatzea ere ezaugarritzat ditu gaur egungo hezkuntza tradizionalak (Ocampo, 2008).

Eskola Kirolaren kasuan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kasuan behinik behin, gazte gaztetatik egiten da errendimendu eta lehiakortasuna barneratzearen aldeko hautua, nahiz eta helburuetan aurkako balioen alde egin: horren adibide garbia dira “errendimenduari ekiteko ibilbidea” eta “talentuak eta promesak hautemateko ibilbidea” deituriko ibilbideak. Hauen bidez, adin goiztiarrenetatik ahalik eta maila hobereana erakutsi beharra irakasten zaie haurrei. Eta ez hori bakarrik; gainerakoen gainetik nabarmentzea ere lagungarri bailitzan irudikatzen dute, talentudunak gutxi batzuk baino ez baitira izango. Baina hain sakonera jo gabe ere, asteburuetan antolatzen diren talde ezberdinen arteko partida eta txapelketak ere lehiakortasunaren sustapenerako ekimenak dira; federazio eta klubek duten Gipuzkoako Eskola Kirolean esku hartze maila ere, erakunde hauen izaera lehiara eta errendimendura bideraturikoa izanik, aipaturiko balioak indartzen direnaren adierazle direla esan daiteke.

Jarduera fisikoak gizartean bizitzen ikasteko balio duela ikusi eta ondorioztatu dugun bezala, jarduera fisiko mota batzuk edo besteak erabili, gizarteratze hau aldatu egingo dela ere aztertu izan da (Etxebeste eta Urdangarín, 2004; Goñi eta Zulaika, 2000).

Orduan, finkaturiko helburuei jarraiki, gaur egun kapitalismoaren mesedetan dauden hezkuntza eta kirol sistemetatik aldenduz, eskola kirolek bizitza erdigunean jartzen duen giza taldea hezteari ekarpena egin behar zaio.

Baina elkarbizitzan eta elkar laguntzan oinarritutako haurrak nahi baditugu, lehiakortasunak, eta beraz kirolak, jarduera lehiakorrek eta hauetan eragiten duten faktoreek duten eragina aztertu beharra dago:

Batetik, barne logika aztertzen badugu, kirolak beste hainbat jarduerak eskaintzen ez dituzten baldintzak eskaintzen dituzte arlo motorrean zentratuz besteak beste (Monjas, 2004). Gainera, kirolaren izaera lehiakorra guztiz hezitzailea denaren aldeko iritzi ugari dago, lehiak norberaren gainditzean eta perfekzioaren bilaketan ekarpen handia egiten baitu zenbaiten esanetan (Monjas, 2004; Durán, 2013). Edonola ere, uste honen aldekoek lehiatzea ona dela aipatzen dute, beti ere arerioa norbere burua baldin bada eta ez aurkako taldeko partaideak. Hau da, zenbaiten ustez, nahiz eta kirol lehiakorra gizartearen isla izan, kiroleko testuingurua “sanotzat” dute, eta beraz galtzaile eta

irabazle bereizketak kalteak eragitetik haratago, onurak baino ez dakartza: irabazteak segurtasuna eragin diezaioke haurrari, eta galtzeak aldiz hurrengoan gogorrago ekiteko nahia zein frustrazioak onartzeko ikasketa, esaterako (Gutiérrez, 2004; Durán, 2013).

Beste teorizatzaile batzuk aldiz, kirola batere etikoa eta hezitzailea ez dela defendatzen dute. Hau da, kirolak esentzian irabazle eta galtzaileen bereizketa dauka, eta beraz haurrari irabazteko obsesioa eta ondorioz, albokoa zapaltzeko obsesioa eragin diezaioke hauen ustetan, eta honek garapenean kalteak eragin ditzake, galtzaileengan batez ere. Gainera, albokoa zapaltze honek elkartasuna sustatzea baino berekoikeria eragiten duela diote (Durán, 2013).

Aurreko bi ikuspuntuak gainditzera, Brohm-en (1982) esanetan kirola, praktika lehiakorren sistema instituzionalizatu bezala ulertuta, sistema kapitalistaren produktu bat da. Hau da, kirola estatu kapitalistaren aparatu ideologiko bat da, ezarritako ordena mantentzeko baliatzen duena. Horrela, kirolak forma bakarra izango du, eta ordena mantentzeko asmo horretan, bere baitan errendimenduaren, lehiakortasunaren, indibidualizazioaren edota produktibitatearen balioak izango ditu bere baitan. Funtsean, gizarte kapitalista industrialaren adierazpide bat gehiago da, bere balioak transmitituko dituelarik. Gainera, kirolak zentzua kapitalismoan eta kapitalismoarekin soilik duela berresteko, autoreak berak aipatzen du nola kirolaren desagerpena formazio sozial kapitalistaren gainditzearekin batera soilik etor daitekela.

Ikuspuntu honekin bat eginda, tesi hau plazaratzea garrantzitsua da ulertzeko nola kirola inoiz ez den izango hezitzailea. Hau da, ezinezkoa da kirola norbanakoaren eta taldearen garapenerako aberasgarria izatea, ezin baita kiroleko testuingurua inondik ere "sanoa" izan. Honenbestez, kirola ez da inolaz ere hezitzailea izango, eta eskola kirolaren helburu diren kooperazio eta solidaritatearen aurka eragiten du. Hori dela eta, eskola kirolean kolektibotasunari lotutako balioak sustatu nahi badira, lehen pausua kirola, praktika lehiakorren sistema instituzionalizatu gisa ulertzen den kirola hain zuzen ere, alboratzea izan behar litzake.

Lehiakortasun hau sustatzen duen ezaugarrietako bat markarena da; markagailu edo puntuazio sistema bat izateak hain zuzen ere. Zenbait praktikek



bere barne logikaren funtsezko ezaugarri dituzte markako elkarrekintza eta puntuazioa, eta halako praktketan, irabazle eta galtzaileak bereiziz ematen zaio amaiera jarduerari (Parlebas, 2014). Kirol guztiek dute markagailuaren ezaugarri hau, baina beste zenbait joko-jolasek ere irabazle eta galtzaile bereizketara garamatzaten barne logikak dituzte (Parlebas, 2014): baloi errea edo azeri buztana jolasek esaterako.

Baina bai memoriadun praktika hauek, eta baita beste zenbait praktikek ere, barne logikan duten beste ezaugarri bat elkarrekintza motorrena da. Hots, elkarrekintza hau ematen den jardueretan, norbanakoak gainerako partaideen (taldekide zein aurkariak) ekintzak deskodifikatu behar ditu, eta bere erabakia horren arabera doitu (Parlebas, 2014). Horrela, norbanakoaren garapenerako erabat aberasgarria da oposizio egoera batean, aurkaria defenditzerako orduan bere ekintza interpretatu eta horren arabera erabaki bat edo beste hartzea. Egoera horretan aurkariak eragindako ziurgabetasun bat sortzen da, eta horrek momentuan gainerakoen ekintzen arabera erabakiak hartzea eskatzen du (Parlebas, 2014). Ondorioz, bat bestearen aurka aritzeak kolaborazio hutseko edo bakarkako praktikek ematen ez dituzten baliabideak eta bizipenak ematen dituzte hurren heziketarako (Jarduera Fisiko eta Kirolen Hausnarketa, 2016).

Beraz, aurkariarekin ematen den elkarrekintza hau norbanakoaren garapenerako mesedegarri dela ulertuta, oposizio egoerak ezin dira erabat ezabatu eskola kirolek. Aldiz, markagailudun eta irabazle eta galtzaileak definitzen dituzten praktikak eskola kirolean murriztu behar direlakoan nago. Bi irizpide hauek aintzat hartuz, oposizio egoera bere baitan duten jolas memoria gabeak lirakeke eskola kirolean nagusiki landu beharreko praktikak, lehiakortasun aferari dagokionean behintzat.

Esaterako, kate luzearen jolasean, harrapatzaile eta iheslarien artean oposizio egoera bat ematen da, baina jolasaren bukaeran ez dago irabazle edo galtzailerik. Beraz, kasu honetan prozesua bera da garrantzia duena eta ez emaitza; prozesuaz eta jardueraz gozatzen da, eta ez geroko emaitzaz (Etxebeste, 2009). Ondorioz, garapenerako aberasgarria den elkarrekintza motorra ematen da, baina lehiakortasun balioak sustatu gabe.

Lehiakortasunaren afera landuta, kolektiboan, elkartasunean eta solidaritatean hezterako orduan jorratu beharreko beste gai bat praktika indibidual, psikomotor eta kolaboraziozkoen artean garrantzia nori eman erabakitzearena da.

Psikomotorretan, jarduleak bakarka jardungo dira, eta beste partaideen ekintzak ez du eraginik izango berean. Beraz, praktikaren arrakasta nagusiki norbanakoaren abilezian oinarrituko da. Kolaboraziozkoetan aldiz, jarduera burutzeko taldekide edo partaide batekin kolaboratu beharko dut, nire ekintza egiteko nire kidearena interpretatzea funtsezkoa izango delarik (Etxebeste, 2009). Horrela, ikusita jarduera fisikoek gizarteratzen laguntzen digutela, kooperazioan oinarrituriko jarduera fisikoak praktikatzeko ezinbestekoa izango da ondoren eguneroko bizitzan gainerakoekin harremantzeko gai izateko (Etxebeste, 2009). Beraz, eskola kirolean halako jardueri garrantzi handia eman beharko litzaiekelakoan nago. Azken batean, halako praktikek, eta zehatzago esanda jolas kooperatiboek, gainerakoekin harremantzeaz gain, talde estrategiak lantzerako, talde antolaketa garatzerako, akordioak adosteko zein rol ezberdinak hartzerako behartzen baitute norbanakoa (Omeñaca et al, 2001).

Honenbestez, gehienez kolaboraziozko praktikak erabiliko nituzke eskola kirolean, eta horien artean esaterako aukera aproposa da erronka kooperatiboena, zeinetan erronka bat gainditzeko edo helburu bat lortzeko talde lana funtsezkoa eta beharrezkoa izango den eta taldeko partaide guztiak ezinbesteko izango diren.

Esanak esan, honek ez du esan nahi praktika psikomotor zein indibidualik burutu behar ez denik eskola kirolean, hauek ere zenbait onura ekartzen baituzkie norbanakoari, geroago aztertuko dugun gisan. Beraz, hau kontuan hartuta, aipatutakoa berretsiz, jardueretan aniztasuna bermatzea funtsezkoa izango da, haurrak zenbat eta egoera ezberdin gehiagori aurre egin, gehiago ikasiko duelako.

#### **4.4.SORMENA ETA ERABAKIAK HARTZEA:**

Etorkizuneko pertsonak burujabe eta ahaldunduak izatea nahi badugu, ezinbestekoa izango da izaera kritikoa garatuta duten pertsonak sortzea, eguneroko bizitzako egoera ezberdinen aurrean erabakiak hartu ahal izateko

(Jarduera Fisiko eta Kirolen Hausnarketa, 2016). Beraz, hezkuntza prozesuan, aurrez jorratutako izaera kolektibo, elkartasun eta kooperazio balioez gain, ezinbestekoa deritzot sormena eta erabakiak hartzea lantzeari; garapen integralaren osaketan aldagai hau oinarri izango baita.

Gaur egungo hezkuntza ereduaren kasuan, klase zapaltzailearen mesedetan egonik, aipatu dugu nola haurrari, berau lehiakortasun eta produktibitate balioetan hezteaz gain, pentsatzea eragozten zaion eta ez zaion uzten izaera kritikoa gara dezan, ez baita halakorik komeni (Ocampo, 2008). Azken batean hezkuntza haurrak etorkizuneko lan ezberdinetarako prestatzeko esparru da, eta beraz edukiak horretara bideratzen dira, haurren irudimena eta kritikotasuna oztopatuz (Garagarza, 2015).

Baina eredu honen aurka, eskola kirolaren helburua pertsonak integralki garatzea baldin bada, horretarako baliabideak eskaini behar ditu bertan planteatzen diren jardueren bidez. Horrela, eskola kirola baliatu behar da haurrek sormena eta izaera kritikoa gara ditzaten; horretarako jarduera fisikoak tresna eraginkorrak dira, hainbat jardueratan, hauek barne logikan duten ziurgabetasuna dela eta, estimulu ezberdinen aurrean, estimulu hauen informazioa irakurri eta erabaki bat edo beste hartzea ezinbestekoa izango baita jarduera burutu ahal izateko (Parlebas, 2014).

Jarduera hauek jarduera ziurgabeak deiturikoak dira, eta bi multzotan banatzen dira: Batetik, ziurgabetasun eta kontrol falta hau ingurune fisikoaren ondorio diren jarduerak bereizten dira; eta bestetik gainerako partaideen ekintzak norberaren ekintzan eragiten duten jarduerak daude.

Espazioarekiko ziurgabetasuna duten jardueren kasuan, jardungo den ingurunea ez dago estandarizatua, eta jarduleak ez du espazio hau kontrolpean izango. Hau horrela, jarduleak etengabe inguruneak ematen dion informazioa deskodifikatu beharko du, eta horren arabera erabakiak hartu. Etengabe egon beharko du ingurune fisikoak ematen dion informazioa irakurtzen, honek eragin zuzena izango baitu ekintzan, eta espazioaren interpretazio hau egin ezean ezingo baita jarduera arrakastaz burutu (Parlebas, 2014).

Ziurgabetasun mota hau ulertzeko, hona bi adibide kontrajarri: 100 metroko lasterketa batean, ez dago espazioaren araberako ziurgabetasunik;

jardungo den espazioa erabat ezaguna eta etxekotua da jardulearentzat, eta hori gutxi balitz, espazio hau ahalik eta gehien estandarizatzeko, arautua izango da. Ondorioz, espazioak jarduleari ez dio informaziorik eskainiko, eta ez du erabakirik hartu beharko; bere lasterketaren ekitean eta teknikan erabat zentratu ahal izango da.

Surf-aren kasuan aldiz, ingurune fisikoak eragindako ziurgabetasuna agerikoa da. Olatu guztiak ez dira berdinak, eta haizeak, euriak eta beste zenbait baldintzek ere eragiten dute. Horregatik, jarduleari ez dio balio, 100 metroko lasterkariari bezala, beti mugimendu automatizatu berbera egitea. Kasu honetan bere ekintza inguruneko baldintzetara egokitu behar du. Hau da, aipatutako baldintzen arabera, olatua hartzera toki batera edo bestera joan beharko da, haizea ere kontuan hartu beharko du, olatu bakoitzaren tamaina ... Funtsean, etengabe inguruneko informazioa interpretatzen eta honen arabera erabakiak hartzen egon beharko da.

Alderaketa eginez, espazio zitureko jardueretan ez da espazioaren irakurketa eta interpretaziorik egin beharko; ziurgabeetan aldiz, interpretazio hau ezinbestekoa izango da jarduera burutzeko; are gehiago, interpretazio honen arabera erabaki bat edo beste hartu beharko da.

Bigarren taldea ziurgabetasun sozialaren litzake. Kasu honetan egoeraren erabateko kontrol ez hori gainerako jarduleek eragiten dute. Halakoetan, gainerakoen (izan aurkari edo taldekideen) ekintzak erabat baldintzatzen du norbanakoarena, eta beraz gainerakoen arabera jokatu beharko du. Beste era batera esanda, jarduleak beste partaideen asmoak irakurri beharko ditu, bai taldekide zein aurkarienak, bere ekintza burutzeko (Parlebas, 2014).

Adibideak jarritz, 100 metroko lasterketan, nahiz eta beste batzuen aurka lehiatu, aurkarien ekintzak ez du norbanakoarena baldintzatzen; jarduleak bere ekintza berdin burutuko du aurkaria izan ala ez, eta bere teknikan soilik zentratuko da. Futbolaren kasuan berriz, kideari pase bat ematean bere mugimendua aztertu behar dut, eta horren arabera pasea toki batera edo bestera bideratu; edota aurkaria defendatzerakoan, nire desplazamendu norabidea hark egiten duenak baldintzatua izango da guztiz.

Finean, ziurgabetasun sozialik ez duten jarduerak ez dute eskatzen gainerakoen ekintzaren interpretazio eta horren arabera erabaki hartzerik. Gainerako partaideek eraindako ziurgabetasuna dutenak aldiz bai, eta elkarrekintza hau beharrezkoa izango da jardueraren gauzatzeko. Gainera, ulertu behar da interakzio edo elkarrekintza honetara jarduerak berak behartzen duela jardulea, eta ez dela kanpotik behartutako faktore bat, hau izango delarik jarduera fisikoen berezitasunetako bat (Parlebas, 2014). Matematikaren kasuan, esaterako, problema bat ebazteko taldean jardutea eskatu dezake irakasleak, baina era berean ebatzi daiteke bakarka, beste inoren beharrik gabe. Kasu horretan behartua izango litzake elkarrekintza hau. Aldiz jarduera fisikoan, gainerakoekin edo besteen keinuak interpretatzen jardun ezean, ezin da jarduera aurrera eraman.

Izan soziala edo izan espaziala, ziurgabetasuna zenbat eta handiagoa izan, erabaki hartze maila orduan eta handiagoa izango da. Erabakiak hartzeak gainera, inteligentzia motorra eta gaitasun kognitiboak garatzen lagunduko digu, praktikak berak eskatuko baitigu gaitasun hauek praktikan jartzea. Halako jarduerak, horregatik, ekarpen handia egingo diote norbanakoaren garapenari, pertsonaren sormena, adierazpen gaitasuna, eta arrazoiketa estimulatuko baititu besteak beste, autoestimua eta ongizate sententzioa igoaraziz (Rey eta Trigo, 2000).

Gaur egungo jardueren azterketa eginez gero, Parlebasen (2014) esanetan gero eta joera handiagoa dago ziurgabetasun espaziala ahalik eta gehien murriztera, eta ahal izanez gero ezabatzerara. Gainera, egun indarrean dauden jarduera fisiko eskaintza askok eta askok norbanakoa gorputz huts bat balitz bezala tratatzen da, arlo soziala zein kognitiboa albo batera utziz. Horrela, norbanakoa pertsona bat gisan ulertu beharrean robot bat bailitzan ulertzen dute (Rey eta Trigo, 2000).

Gipuzkoako Eskola Kiroleko programa aztertuta aldiz, esan genezake ziurgabetasun espazialak baduela tokirik (bela, mendi ibilaldiak, arku jaurtiketa, espeleologia, arrantza, eskalada ...), nahiz eta lehiaketa mundura murgiltzen joan ahala espazio zurrerako jarduerak nagusitzen diren. Ziurgabetasun sozialari

dagokionean berriz, programan gainerakoekiko ziurgabetasuna duten jarduera soziomotorrak nagusitzen dira psikomotorren aurrean.

Jarduera ziurgabeek eta erabakiak hartu beharrak gaitasun kognitiboak garatzen lagunduko duenez, eta jarduera fisikoetan ematen diren jokabide motorrek haurren pertsonalitatea garatzen lagunduko dutenez (Parlebas, 2014), eskola kirolak nagusiki praktika ziurgabeen (espazio zein kideekiko ziurgabeak) aldeko hautua egin beharko luke. Eguneroko bizitzan egoera ezberdinei aurre egin eta erantzun egokia emateko gai diren pertsonak nahi badira, horretarako gaitasunak landuko dituzten praktikak sustatu behar baitira. Beraz, praktika ziurgabeak nagusituko lirateke nik defendaturiko eskola kirol ereduan.

Jarduera ziurgabe hauen barnean, ahalik eta aniztasun handiena bermatzeko apustua egitea ere lagungarria izango da: Espazio ziurgabeko jarduerak, kolaboraziozko jarduera soziomotorrak, kolaborazio-oposiziozkoak edota oposizio hutsekoak ere tartekatu daitezke.

Horrez gain, anibalentziazko jarduerak ere lagungarriak dira erabakiak hartze hau lantzeko. Hauetan, elkarrekintza motorren norabidea ez dago guztiz zehaztua; hau da, kideekin ezarritako elkarrekintza ez dago barne logikak definitua, eta beraz jarduleak erabakiko du gainerakoekin kolaboraziozko edo oposiziozko harremana ezarri (Parlebas, 2014). Azeriaren, oiloaren eta sugearen jolasean esaterako, talde batek erabaki dezake beste batekin kolaboratzea hirugarrenaren aurka biak batera joateko; edo alderantziz, aurkaritza mantendu dezakete.

Baina praktika ziurgabeak bultzatzeak ez du esan nahi praktika ziurrak guztiz alboratu behar direnik, hauek ere garapen integralean onurak ekar baititzakete. Multzo honetan espazio etxekotuan burutzen diren bakarkako praktikak nagusituko lirateke.

Jarduera hauen barnean badaude zenbait praktika eskola kirolean erabiliko ez nituzkeenak, haurren heziketan laguntzen ez dutenaren usteagatik. Hau kirol psikomotorren kasua da; atletismoa edo igeriketa, esaterako. Hauek lehia baten baitan praktikatzeko diren momentutik, jardueraren funtsa keinu tekniko konkrituak ahalik eta eraginkorren burutzea da, albokoa baina emaitza

hobea lortzeko. Eta lehiaren atalean zehaztu moduan, balio hauek oztopo izan daitezke haurren garapenean. Horregatik, lehiaketa psikomotorrei (espazio etxekotu eta ziurretan egiten direnak) ez diet zentzurik aurkitzen eskola kiroleko programa batean.

Baina aurrekoak ez bezala, badaude haurraren heziketan paper garrantzitsua betetzen duten praktika psikomotorrak ere, beti ere lehiarik gabekoak izango direnak. Jarduera psikomotor hauek norbanakoarengan eta bere gorputzean gehiago zentratzea ahalbidetzen dute, eta beraz norberaren gorputza zein gaitasunak sakonago ezagutzea (Jarduera Fisiko eta Kirolen Hausnarketa, 2016).

Osasunaren aspektu fisikoari lotuta, esaterako, beharrezkoa izango da gorputz postura egokiak umetatik lantzea, hauek landu ezean hezur eta gihar sistemetan etorkizunean disfuntzionalitateak pairatzeko arriskua baitago, eta baita giltzaduretako desgasteak, deskonpentsazioak eta lesioak ere. Beraz, gorputzaren ezagutzak, kontrolak eta arnasketa lantzeak pertsonaren osasunean eragin zuzena dauka, eta beraz baita garapen integralean ere (Espinoza-Navarro et al, 2009; Fernández, Santana eta Merino, 2011). Halako jarduera psikomotorrak lantzea, beraz, beharrezkoa izango da pertsona osasuntsuak haztera bidean. Horrela, ez da inondik jarduera psikomotor ziur oro baztertu behar.

Laburbilduz, ziurgabetasun fenomenoari erreferentzia eginez, eskola kirolean nagusiki praktika ziurgabeak burutu beharko lirateke, baina aniztasuna bultzatuz eta praktika psikomotorrei ere tarte bat eskainiz. Hau da, finkatutako helburuekin bat datozen bitartean, jardueretan ahalik eta aniztasun zabalenaren alde egin behar delakoan nago.

#### **4.5. ADIN BANAKETA**

Eskola Kirolari elkartasunaren eta elkarbizitzaren baloreetan hezteko funtzioak esleitu dizkiogu, honek kolektiboan eta komunitatean oinarrituko den gizarte batera eraman gaitzakeelakoan, gaur egun jaten gaituen lehiakortasun eta indibidualismoak alboratuz. Baina kolektiboan oinarritutako gizarte bat nahi izateaz gain, kolektibo burujabe eta autosufiziente bat nahi da.

Hau da, talde izaera garatu nahi bada haurrengan, kooperazioan jardute horren barnean, besteak beste haurrek elkarrekin ikastea nahitaezkoa izango da, guztiek guztiengandik ikastea (Pujolas et al, 2006).

Haur bakoitzak, gainera, errealitate ezberdina bizi duenez, bizipen ezberdinak bizi izan ditu gainerako haurrekin alderatuz. Horregatik, norbanakoaren bizipenak gainerakoekin partekatzea guztiz aberasgarria izan daiteke, nolabait elkarrekin ikasteko baliabide bat izan daitekeelarik.

Jarduera fisikoak aukera ematen digu taldean jarduteko, eta egoera ezberdinei taldean oinarritutako erabakien bidez irtenbidea emateko. Elkarrekin ikasteko esparru eraginkorra da beraz motrizitatearena ere (Renzi, 2009).

Baina jarduera norekin praktikatze hutsak ere eragina du sozializazioaren ikaskuntza honetan. Zenbat eta jende ezberdin gehiagorekin jardun, orduan eta gehiago garatuko da erlazionatzeko eta kooperazioan jarduteko gaitasun hau, azken batean ezaugarri eta bizipen ezberdinak baititu bakoitzak, eta bakoitzaren arabera era ezberdinean jardungo baita.

Adibidez, ez da berdina erronka kooperatibo bat aurrez ezagututako adin eta herri bereko pertsonekin gainditzea, edo arraza, sexu, adin zein beste ezaugarri ezberdinak dituzten pertsonak taldekide izatea. Eta ez da berdina izango beti talde berarekin aritzea, edo jarduera bakoitzean partaide berriez osaturiko taldean aritzea. Pertsona ezberdinekin jardunez gero, ezaugarri ezberdineko kideekin ikasten duzu egoerei aurre egiten, estrategia ezberdinak landuz eta rol ezberdinetan arituz; finean, jardule aldetik aniztasuna bermatuta, norbanakoak gaitasun gehiago bereganatuko dituela esan daiteke, eta baita kolektiboak ere.

Bada, gaur egungo eskola kirol ereduak printzipio honen aurka egiten duten zenbait neurri hartu ditu, nagusiki adinari eta eremu geografikoari loturikoak:

Batetik, adinaren araberako mailaketa zehatz eta zurrun bat egiten du (125/2008 Dekretua). Eskolako adin eta fase bereizketari jarraiki, kategoria ezberdinak banatzen dira, eta antolatzen diren jarduera ia denek kategoria banaketa hau errespetatu behar dute. Hau da, norbanakoak bere kategoria



bereko jendearekin soilik jardun dezake gaur egungo eskola kirolean. Honi lotuta, kategoria bakoitzean ibilbide edo adar ezberdinak ere bereizten dira, eta honek kategoria bereko haurren banaketa ere eragiten du (125/2008 Dekretua). Talentuen detekziorako eta teknifikaziorako ibilbidean esaterako, gaitasun aurreratuak dituztenak soilik hautatzen dituzte (125/2008 Dekretua), eta beraz hauek ezin izango dute talde horretarako hautatuak izan ez direnekin jardun.

Bestetik, dekretuan ikusi da eremu geografikoen arabera ere banaketa bat ematen dela. Kasu honetan, adinaren eta kategoriaren arabera eskualdeka, lurralde historikoaren baitan edota autonomia erkidego mailan jardun daiteke (125/2008 Dekretua).

Hau ikusita, haurren indibidualizaziorako nolabaiteko zantzuak antzematen zaizkio gaur egungo ereduari nire aburuz. Eremu geografikoaren arabera banatzea zentzuzkoa ikusten dudan moduan (antolatzeko erraztasunagatik batez ere), kategoria banaketa zurrun honek zenbait kasutan haurren garapena oztopa dezakeela uste dut.

Aipatu moduan, kategoria banaketa honek beti jende berarekin jardutera behartzen zaitu, eta adin berekoak ez diren beste batzuekin aritzea oztopatu. Bada uste dut ezinbestekoa dela adin ezberdinetako jendeak jarduera ezberdinak partekatzea, adin ezberdineko jendeak elkarri asko baitauka emateko. Hau da, adin nahasketa hau erabat aberasgarria delakoan nago talde izaeraren eta norbanakoaren garapenari begira. Esaterako, mendi irteera bat burutzerako orduan, 13 urteko haur batek eskola kirolean hasi berri den 6 urteko bati laguntza handia eman diezaioke, izan esperientzia gehiago duelako edo izan errealitate ezberdinak bizi izan dituztelako. Baina alderantziz ere, 13 urtekoak ziur zer ikasi asko izango duela 6 urteko umearengandik, ziur aski bere adineko batengandik 9ikasi ezingo duena. Beraz, esango nuke adin ezberdinen arteko elkarrekintza norbere eta taldearen garapenean beste oinarrietako bat dela, eta beraz inondik ere ezin zaiola elkarrekintza honi mugarik ezarri.

Egia da adin ezberdina izateak sarritan garapen fase ezberdinak eta beraz, gaitasun ezberdinak izatea dakarrela. Hau da, adinean aurrera egin ahala norbanakoa garatzen joango da, bai fisikoki, baina baita kognitibo eta afektiboki ere (Gallahue eta Cleland, 2007; Murillo, 2012). Hormonen agerpenak

norbanakoaren garapenean eragina izango du eta muskulu masa ere gero eta handiagoa izango da, besteak beste (Iglesias, 2013). Indarraren kasuan esaterako, ikerketek frogatu dute adinean aurrera egin ahala indarra hartzen doala norbanakoa (López et al, 2016).

Adin ezberdineko pertsonen artean egon daitezkeen ezberdintasun eta garapen fase ezberdin hauek eragin zuzena izan dezakete jarduterako orduan, hainbat jardueratan jarduleen arteko desoreka nabarmenak sortuz. Harrapaketa jolasean adibidez, 13 urteko batek eta 6 urteko batek batera jolastuz gero, 13 urtekoa fisikoki askoz garatuago egongo denez, desoreka nabarmenak sortuko dira, eta desoreka honek eragingo duena zera da: jarduera hau biotako inorentzat aberasgarria izatea, batek ezintasunagatik eta besteak gehiegizko erraztasunagatik, inork ez baitu gozatuko ziurrenik.

Horregatik, argi dago zenbait jardueratan ezinbestekoa izango dela adinaren edo garapenaren arabera banaketa bat egitea garapena ez oztopatzeko eta praktika horren bidez guztiek gozatu eta ikasteko. Baina badaude beste zenbait jarduera garapen ezberdintasun horiek hainbesteko eraginik ez dutenak, eta are gehiago, aberasgarri izan daitezkeenak elkarrekin ikasteko bide horretan.

Eskola kirolak, honenbestez, gaur egungo eredu gertatu ez bezala, adin ezberdineko pertsonen elkarrekintzak duen aberastasuna baliatu beharko luke, aipaturiko arrazoi eta izan ditzakeen onurengatik. Hala ere, erronka bat luke aurrean adin nahasketa hau zein jardueratan izan daitekeen onuragarri, lagungarri eta hezitzailea eta zeinetan ez den hezitzailea izango aztertzerako orduan. Beraz, uste dut eskola kirolak nahitaez adin ezberdinen arteko elkarrekintza hau ahalbidetu behar duela, eta horretarako baliabideak eskaini, baina beti ere aurrez jarduera konkretu bakoitzean honek dakartzan ondorio positibo zein negatiboan irakurketa eta interpretazioa eginez.

#### **4.6. LUDIKOTASUNA ETA AUTOTELISMOA ESKOLA KIROLEAN:**

Eskola kirolari esleitu diogun beste helburuetako bat ludikotasuna eta zorientasun kontzeptuak bizitzaren erdigunean jartzearena izan da, gaur egungo bizi ereduaren erabat ahaztuak eta alboratuak izan baitira, ondorengo lerroetan aztertuko den gisara.

Marx eta Engelsek (2004) ondorioztaturikoa gogora ekarriz, egungo gizarte kapitalistaren oinarria lan asalariatua dela ikusi dugu; hau da, gizarteko klase jakin batek bere lan indarra saldu behar izatea biziraun ahal izateko, eta hau gaur egun zortzi orduko lanaldira mugatuko litzateke nagusiki.

Horrela, lan indarra saldu behar honek denboraren banaketa bat eragin du: batetik norbanakoak lanean pasatzen duen denbora dago, lan indarra saltzen pasatzen duen ordu kopurua hain zuzen ere; bestetik berriz egunean geratzen zaion gainerako denbora dago, hau da, denbora librea deitu izan zaiona (Egibar, 2008).

Denboraren banaketa hau ulertzea garrantzitsua da, honek pertsonen zorientasunean eragin zuzena baitu. Lan indarra saltzeak, egiten den lana zure ez sentitzea eragiten du, eta halabeharrez egin behar izatean (eta ez borondatez), ez da inondik ere plazerrezko jarduera bat izango, eta langilea sakrifikatua eta bere buruaren jabetza faltarekin sentituko da (Acebedo-Afanador, 2015). Beste muturrean, denbora librea eta aisialdia lituzke langileak soldatapeko lanetik askatzeko esparru, errealizatzeko eta plazerra eta gozamena bezalako sentsazioak esperimentatzekoak (Silva, 1970).

Horrela, denboraren banaketa honek zera eragiten du: uneoro zoriontsu izatea bilatu beharrean, uneoro zorientasuna iritsi zain egotea. Onartutzat ematen da lanean zoriontsu izan ezin daitekeenaren ideia, eta puntu horretatik abiatuta, asteburua heltzeko zain, oporrak noiz helduko edo jai egunak noiz izango esperoan egoten gara, une horietan behintzat zoriontsu izateko (Egibar, 2008).

Gainera, erlazio sistema kapitalistan, aisialdi eta denbora libreak errealizazioaren, norbanakoaren garapeneren eta plazerrerako eta gozamenerako esparru izatearen funtzioak erabat galdu ditu. Hau da, gaur egun aisialdia, hurrengo eguneko lanaldirako deskantsatzeko esparru izateaz aparte (Acebedo-Afanador, 2015), sistema kapitalistaren mantenurako tresna eraginkor bilakatu da: sistemak aisialdia baliatzen du gizartean bere ideologia txertatzeko (komunikabideen bitartez esaterako), kontsumo logikatik kanpo dagoen garapen zantzu oro abolituz (Silva, 1970). Horrela, gehiago murgiltzen gaitu kapitalismoaren esferan, denbora libreko helburu bakarria ahalik eta gehien

kontsumitzea edo diru gehien pilatzea izango direlarik (Acebedo-Afanador, 2015). Hots, aisialdia ere alienatzailea izango da, eta ez da inondik askatzailea eta norbanakoaren garapena, errealizazio eta dibertsioa bermatuko dituena izango (Silva, 1970).

Baina osasuntsu egoteko ezinbestekoa da pertsona zoriontsuak izatea. Zoriontasunik gabe ez dago ongizaterik (Egibar, 2008; Jarduera Fisiko eta Kirolen Hausnarketa, 2016). Gure bizitzako erdigune beharko luke zoriontasunak, eta aurrera eramaten ditugun jarduera zein erabaki orok zoriontasuna lortzea behar lukete helburu.

Hezkuntza esparruan ere gaztetatik ohitu nahi izaten gaituzte zoriontasun falta horretara, bizitzaren zati bat sakrifikatzea beharrezkoa izango dela sinestera, gero zoriontsu izateko. Egibarrek (2008) ere hala berresten du bere lanean (20.or.):

*Ludikotasunari begira gure haurrei txikietatik ikuspuntu berdina ezartzen diegu. Ikastetxeetan gero eta gutxiago jolasten da, jarduera akademikoa gero eta gehiago lan ardua bezala hartzen da. Ez da kasualitatea askotan. Soin Heziketako arloa jolas garaia balitz bezala hartzea. Finean, prozesu pedagogikoan arriskua dago ludikoa den guztia garrantzi gutxikoa balitz bezala kontsideratzea.*

Honen aurka, gaur egungo errealitatean ditugun oztopoak oztopo, eskola kirolaren esparrutik eragiteko saiakera bat egin behar da zoriontasuna erdigunean izango den gizarte batera bidean. Baina zoriontasun ez da ulertu behar sarri eman zaion ulerkera erromantikotik, baizik eta norbere buruaren jabe eta aske izatea, elkartasunezko harreman sanoak garatzea, eta egiten den orok gure errealizazio eta plazerrerako ekarpena egitea oinarri dituen ulerkeratik.

Helburu honen bila, eskola kirolean ludikotasunari zentralitatea eman behar zaiolakoan nago. Ludikotasunak jolasari eta jolasak berak sorturiko plazer eta gozamen sentimenduei egiten die erreferentzia, eta izaera ezberdineko beste zenbait helburuetatik askatzen eta aldentzen du (Parlebas, 2014).

Gaur egungo egoeraren azterketa eginez, izaera ludiko hau erabat galtzen ari da, eta praktika ezberdinen instituzionalizazioak, errendimendu bilaketak,



Koadroari erreparatuz, esperientzia autotelikoaren eta gozamen sentsazioaren gakoa trebetasunaren eta erronkaren zailtasunaren artean oreka bilatzea izango da. Demagun erronkaren zailtasuna handia dela baina trebetasunik ez dugula honi aurre egiteko; bada kasu horretan antsietatea sentituko dugu, eta ez dugu praktikaz gozatuko. Alderantziz, trebetasun maila handia denean, baliteke erronka errazegia egitea, eta beraz aspertzeko arriskua eragiten du. Beraz, esperientzia autotelikoa izateko beharrezkoa da bi aldagaiak orekan egotea, eta erronka eta trebetasuna zenbat eta handiagoak izan (beti ere orekan mantenduz), orduan eta autotelikoagoa izango da esperientzia; orduan eta gehiago gozatuko da.

Gaur egungo eskola kirolean, errendimendu eta tekinfikaziora bideraturiko ibilbideak daudenez, esan daiteke praktikarekin gozatze hutsa zenbait kasutan alboratu egiten dela, ahalik eta errendimendu altuena lortzearen eta ahalik eta kirolarik gaitu eta onenak sortzearen mesedetan. Bada, aurreko azalpenetan oinarrituz eta gaur egungo ereduak bultzatzen duena haurrentzat onuragarriena ez dela ulertuta, eskola kirolean ludikotasun eta autotelismo hauen aldeko apustu sendoa egingo nuke.

Ondorioz, arlo honi dagokionean jolasak zein natur-jarduerak indartuko nituzke eskola kirolean, futbola, eskubaloia edo atletismoa bezalako kirol praktika lehiakorrei garrantzia kenduz. Besteak beste ezkutaketa jolasak edo mendiko orientazio erronka batek ludikotasun hau lehen lerroan jar dezaketelakoan nago.

#### **4.7. GURASOEN PAPER A ESKOLA KIROLEAN:**

Jakina da gurasoek euren seme-alaben heziketa prozesuan funtzio oso garrantzitsua betetzen dutela, zenbait ohitura eta baloreen transmisioan eragin nabarmena dutelarik haurraren. Jarduera Fisikoaren praktikaren alorrean ere zeresan handia dute gurasoek (Romero et al, 2009). Gainera, frogatu izan da gurasoek jarduera fisikoarekiko jarrera positiboa izateak haurren jarduera fisikoarekiko duten interesean eragin zuzena duela (Nuviala, Ruiz eta García, 2003). Hau horrela, eskola kirola haurren heziketaren parte denez, eskola kirolaren bidez haurraren garapenari egiten zaion ekarpenean ere ezinbestekoak izango dira aita-amak.

Gurasoak eurak ere ezinbestekoa da jarduera fisikoaren sustapenean duten paper garrantzitsua jabetzea. Baina jarduera fisikoa burutzera bultzatu eta horretarako erraztasunak emateaz gain, lagungarria izango da euren seme-alabek jarduera fisiko hau zein eratan eta nora orientatuta burutzen dutenaren jakitun izatea (Nuviala, Ruiz eta García, 2003). Hau da, jarduera fisikoa sustatzeak bezainbesteko garrantzia izango du emaitzaren aurrean ondo pasatzea bezalako baloreei indar emateak (Tuero, Zapico eta González, 2012).

Gaur egun gurasoen eta hurrek praktikatzen duten jarduera fisikoaren arteko erlazioaren diagnosi bat eginenez, batetik esan daiteke gurasoek nahiko interes maila baxua erakusten dutela euren haurraren kirol praktikarekiko (Romero et al, 2009), eta praktikatzen duten jarduera fisikoari lotutako aspektu pertsonal eta motibaziokoak apenas ezagutzen dituztela (Fraile et al, 2004). Bestetik, hori gutxi balitz, interesa adierazten dutenetan haurrak errendimendura eta lehiakortasunera bideratu nahi izaten dituzte (Fraile et al, 2004; Nuviala, Ruiz eta García, 2003).

Hau formakuntza faltaren ondorio izan daiteke, edo behintzat gaur egun gero eta indar gehiago hartzen ari diren jarduera fisiko eredu hezitzaileen inguruko ezagutza eza (Tuero, Zapico eta González, 2012). Beraz, batetik gurasoengan formakuntza prozesu bat eman beharra gakoetako bat izango da.

Baina aita-amak haurraren heziketari loturiko aspektu ezberdinetan formatzeaz gain, heziketa prozesuan bertan (izan eskolan edota eskola kirolean) duten inplikazioa sustatu eta areagotu behar da. Argi dago heziketan pisu handia duten bi izate direla eskolarena eta familiarena, eta gaur egun nahiz eta biak elkarrengandik nahiko aldentuta egon, haurraren garapena errazagoa, osoagoa eta eraginkorragoa izango da elkarlanean eta koordinatuta jarduten badira (Torío, 2004). Azken batean, gurasoak zenbat eta gertuago egon haurraren heziketatik, garapen eta lorpenak handiagoak izango dira haurraren (Pizarro, Santana eta Vial, 2013).

Beraz, argi dago gurasoen inplikazioak haurren heziketan onurak ekarriko dituela. Horrela, eskola kirola eremu aproposa izan daiteke gurasoen inplikazioa bultzatzeko, bai antolakuntzan edo bai jardueren praktikan bertan ere.

Haurrengan onurak eragiteaz gain, adin ezberdinak elkarrekin jardutea guztiz aberasgarria izan daitekeela ikusi dugun moduan, guraso eta haurrak elkarrekin jardutea ere guztiz onuragarria izan daiteke; eta ez haurrentzat bakarrik, gurasoek ere belaunaldi ezberdinen arteko elkarrekintza honetan gazteengandik asko ikasiko luketelakoan nago. Guraso eta haurren arteko erlazioa ere sendotuko luke gainera (Pizarro, Santana eta Vial, 2013).

Gaur egun zenbait gurasok eskola kirola eta tankerako jarduerak asteko ordu batzuetan haurrengandik libratu ahal izateko baliatzen dituztenaren susmoa dut, eta honek inplikazio falta nabaria eta haurren aspektu ezberdinen ezagutza eza dakartza.

EAEko eskola kirolean, antolakuntza aldetik ere ez da ahalegin berezirik egiten gurasoak proiektura hurbiltzeko, eta aita-amek jardueretan parte hartzeko ez dute inongo aukerarik.

Bada, gurasoen inplikazioa funtsezkoa dela ikusita, eskola kirolak gurasoen parte hartzea sustatzean indar handia jarri beharko luke. Bultzada hau bi formatan egikaritu liteke: Batetik, ezagutza gabezia hau gainditzeko, gurasoei zuzendutako formakuntza saioei bide emango nieke, haurren garapenean eragina duten balore eta aspektu ezberdinen onura eta kalteak landuz besteak beste (lehiakortasuna, kooperazioa, etab.). Bestetik berriz, ulertuta jarduera fisikoen munduak eta eskola kirolak horretarako baldintza idealak eskaintzen dituztela, hainbat jarduera burutuko nituzke guraso eta seme-alabek taldean burutzekoak.

Inplikaziorako bigarren neurri honen kasuan, guraso gehienek astelehenetik ostiralerako denbora tarte okupatuta izan ohi dute; horregatik, asteburuak baliatuko lirateke guraso eta haurren interakzio hau praktikara eramateko. Horrela, gaur egun asteburutan hurrek partiduak egiten dituzten moduan, aberasgarriagoa litzateke denbora tarte hau familia ezberdinek mendi irteerak, bizikleta txangoak edo erronka kooperatiboen topaketak elkarrekin egiteko baliatzea.

Laburrean, eskola kirol programan beharrezkoa ikusten dut, haurren eta gurasoen ikaskuntza eta elkarren arteko harremana aberastuko dituelakoan, zenbait jardueretan gurasoen parte hartzea bultzatzea hurrekin kolaboratuz. Eta



aipaturiko arrazoiengatik, asteburua litzake horretarako garai aproposa. Esaterako, hilabete bakoitzeko azken asteburua horretarako baliatzea eraginkorra litzake.

#### **4.8. AUTOKUDEAKETA ETA ESKOLA KIROLA:**

Etengabe aipatu da eskola kirolaren bidez euren buruaren jabe diren pertsona askeak eraiki nahi direla. Hau da, inoren eta ezeren menpe ez dauden pertsona autonomoak, euren bizitzako esparru guztiak dituzten behar eta nahien arabera antolatzeko gai izango direnak.

Baina gaitasun hau ez da egun batetik bestera lortzen, eta norbere bizitza egituratu ahal izateko, pertsonarengan aurretik ahalduntze bat eman beharko hainbat baliotan, ikasketa prozesu baten bidez (Martos et al, 2014). Honenbestez, komenigarria izango da haurtzarotik ahalduntze honetan pausuak ematen hastea.

Beste era batera esanda, egunerokotasuna askatasunez eta bere kabuz kudeatzeko gai den gizartea nahi bada, hezkuntza esparrutik hasi beharko litzake hori sustatzen eta hurrei kudeaketa propio horretarako guneak eskaintzen, esperimintatzen has daitezten. Heziketa fisikoa eta jarduera fisikoak ere baliabide eraginkorrak dira ahalduntze hori emateko eta hurrek autonomia eta talde antolaketa bezalako balioak barneratzeko (Murillo, 2012); horregatik, eskola kirolak ere ezin dio kudeaketa propio honetarako aukerak emateari uko egin.

Kudeaketa gaitasun hau autokudeaketa edo autogestio terminoarekin ezagutarazi dute zenbait ikerketek, eta baita hau hezkuntzan landu eta aplikatzeko beharra azpimarratu ere (Lorente eta Joven, 2009; Murillo, 2012). Baina autokudeaketaz ari garenean zeri egiten diogu erreferentzia zehazki?

Autokudeaketa, nolabait esateko, norbanako edo talde batek, eragiten dioten aspektuetan erabakitzeko duen gaitasuna da (Murillo, 2012). Hots, komunitate batek bertako parte hartzaile guztien akordioaren bitartez egikaritzen den kudeaketa bat da, parte hartzaile hauetako bakoitzaren ikuskera eta balioak errespetatuz eta kontuan hartuz ematen dena, autonomia eta kanpoko eragileen eraginik gabekoa (Usabiaga, d.g.)

Horrela, autogestioa ematen den kasuetan, komunitate batek bere eguneroko behar eta interesak identifikatu eta hauei aurre egingo lieke edo defendatuko lituzke antolakuntza planifikatu, autonomo eta parte hartzaile baten bidez erabakiak hartuz (Murillo, Prados eta Jiménez, 2015).

Termino hau hezkuntza esparrura ekarrita, ikasgela barneko autokudeaketa ikasleek saioa euren kabuz antolatu eta kudeatzearen bidez ematen da. Hau da, ikasketarako komunitate bat sortuko da, ikasle eta irakaslez osatua, eta guztien artean erabaki eta arautuko dira eragiten dioten aspektu ezberdinak: zer ikasi eta nola ikasi nahi duten edo harremanak nola garatuko diren, besteak beste.

Praktikara jauzi eginez, autogestioari lotuta egongo lirateke esaterako saioetan zein eduki landu ikasleek erabakitzea, saioa ikasleek dinamizatzea, saioa bere osotasunean antolatzea, saioan zehar gertatzen diren arazo, liskar eta erabaki espontaneoak aurrera ateratzea edo baita klasean erabiliko diren prozedura, metodologia eta ebaluazio sistemak definitzea ere, besteak beste (Lorente eta Joven, 2009; Murillo, 2012; Murillo, Prados eta Jiménez, 2015).

Autogestioa hezkuntzan aplikatu beharraren ideia hau zabaltzen ari da, besteak beste, hainbat onura eragin dakizkiokelako haurrari edo haurra parte hartzaile den komunitate edo taldeari (Lorente eta Joven, 2009; Murillo, 2012):

- Haurren motibazioa areagotuko du: Lorente eta Joven-ek (2009) eginiko ikerketan ondorioztatu modura, haur askok era positiboan baloratzen dute saioak autokudeatzeko esperientzia, nahiz eta erronka erraza ez izan. Beraz, motibazio pizgarri izan daiteke esperientzia hau. Gainera, ikasketaren protagonista nagusia ikaslea izatean, jarduerak bere behar eta nahien arabera izango dira, eta honek ere motibazioa mantentzen lagunduko.
- Talde izaeraren indartzea: Autogestionatzeko behar honek taldean jokatzeko irakasteaz gain (izan talde funtzionamendua, elkarrekiko errespetua nahiz guztion parte hartzea), taldean jardute honek identitate kolektibo bat eragingo du, errespetuzko komunitate bat eraikiz, norbanako bakoitza kolektibo honen parte garrantzitsu sentituko delarik.

- Ahalduntzea eta garapena: autokudeaketak haurrak gaitasun batzuk garatu ditzan estimulatuko du; besteak beste, hausnarketarako joera, kritikotasuna, ardurazko jokabidea, erabakiak hartzea, gainerakoekiko enpatia eta errespetua edota kooperazioa.
- Egunerokotasunera transferentzia: Aipaturiko gaitasun hauek guztiak eguneroko bizitzara transferigarriak izango dira, eta ondorioz, gure bizitzak antolatzeko eta askatasunez bizitzeko aurrera pausuak eman daitezten lortuko da.

Alderdi guzti hauek kontuan hartuz, autokudeaketari espazio zabala eskain behar litzaioke hezkuntzako esparru ezberdinetan; izan eskolan edo eskola kirolean. Gaur egun, hezkuntzako lege eta kurrikulum ezberdinei erreparatuz gero, gehienetan ikasleen autonomia garatzearen beharra azpimarratzen da; baina zalantzazkoa da ea praktikan helburu hori betetzeko neurriak hartzen den. Hau da, teoria eta praktikaren artean alde handia antzeman daiteke sarritan (Martos et al, 2014). Teoriak teoria eta garapenak garapen, oraindik ere indarrean dagoena hezkuntza eredu bertikal bat (irakasleak jakintza transmititu eta ikasleek jasotzen dutena) dela esan daiteke (Murillo, 2012), hierarkikoa, zeinen bidez pertsona obediente eta akritikoak sortzea bilatzen den, irudimena eta autonomia bezalako gaitasunen garapena oztopatuz (Garagarza, 2015).

Eskola Kiroleko dekretu eta legeek ere pertsonen garapen integralaren alde lan egitea zin egiten dute, baina praktikan, dinamizatzailerak jarraitzen dute eguneroko jarduerak proposatzen, saioa gidatzen eta erabaki nagusiak hartzen. Horren adibide da Itziarko Eskola Kirola ere, bertako hezitzaileak elkarrizketan azaldutakoan oinarrituz (Alberdi, 2018).

Beraz, egungo egoera aztertuta eta jarduera fisikoen munduak honetarako eskaintzen dizkigun aukerak ezagututa, garaia iritsi da dekretu eta teoretatik praktikara jauzi egin eta eskola kirolean eguneroko eta asteroko saioetan autokudeaketaren fenomenoak aplikatzeko, bere bururen jabe izango den komunitate aske eta autonomo baten mesedetan.

Hala ere, fenomeno hau aplikatzea ez da erraza izaten errealitatean. Pertsonalki ere, haurrekin aritu izan naizen esparru ezberdinetan, haurrei saioa

kudeatzeko aukera emandakoan hainbat oztopo eta frustrazio sentitu izan ditut: denbora asko galdu izan dut horretan, haurrak ez dira ados jarri izan edota ados jarri izan dira baina hezigarriak iruditzen ez zitzaizkidan jarduerak adostu izan dituzte (praktika lehiakorrek esaterako). Itziarko eskola kiroleko begiraleak ere, elkarrizketan aipatu du haurrei jarduera aukeratzeko funtzioa eman izan dienean beti futbola aukeratu izan dutela lehenengo aukeratzat (Alberdi, 2018) .

Horrela, eragin dezakeen denbora galera edo beste hainbat faktoreren ondorioz, autokudeaketak, edo behinik behin honen aplikazioak, zalantzak eragin dakizkioke dinamizatzailari (Murillo, Prados eta Jiménez, 2015). Horregatik, arrakasta izan dezan, hainbat kontsiderazio hartu behar dira kontuan (Lorente eta Joven, 2009; Martos et al, 2014; Usabiaga, d.g.):

- Autokudeaketa honen ezarpena hutsetik asteen, kontuan izan behar da dinamika hau aurrera eramateko parte hartzaileek harremanetarako gaitasun pertsonal batzuk garatuak izan behar dituztela. Hala nola enpatia, errespetua, autokontrola, gainerakoak entzutea edo kritika eraikitzaileak egiteko gaitasuna.
- Kooperaziozko testuinguru bat egon behar da egituratua, eta ez lehiakortasun giroa, autoritatearen nahia sustatuko duena.
- Progresioaren printzipioa: Haurrak irakaskuntza eredu bertikal batera ohituta dauden honetan, orain arte halakorik egin ez dutenean saio bat gidatzeko eskatzean, haurraren kontrako erreakzioren bat eragin dezake. Gainera, aipatu bezala, autokudeaketarako haurrek aurretiaz gaitasun batzuk eskuratu behar izango dituzte. Ondorioz, aldaketak pixkanaka txertatzea izango da gakoetako bat, gaitasun horiek barneratzen eta autokudeatzera ohitzen joan daitezen. Progresio honetan, lagungarria izango da etengabe sentsazioak partekatzea, autokudeaketari antzemandako onurak, zailtasunak nahiz esperientziak azalduz.
- Konplexutasunaren kontzientzia: Magnitude honetako aldaketa bat txertatzeak zailtasunak ditu berarekin. Horregatik, frustrazio sentimenduetan inor erori ez dadin, dinamikako parte hartzaile guztiak (baita dinamizatzaille edo irakaslea ere) kontziente izan behar dira hasieran kostatu egongo zaienaren, denbora asko galduko dutenaren edo

atzera pausuren bat ere egon daitekenaren inguruan. Zailtasun hauek partekatzea ere mesedegarria izan daiteke.

Beraz, nola aplikatu daiteke eskola kirolean autokudeaketa, kontuan hartuta 6 urteko haurrak izan daitezkeela parte hartzaileak, eta aplikatzerakoan praktika lehiakorretan erori gabe (hauek dira egun haurrak gehien motibatzen dituztenak) eta liskarrik sortu gabe?

Lehenbizi, ikusita hurrez gaitasun batzuk beharrezkoak direla, eskola kiroleko lehengo urteak gaitasun hauek barneratzeari bideratuta egongo lirateke. Honekin batera, jarduera bakoitzak sustatzen dituzten balioak eta gaitasunak interpretatzeko ahalmena sustatu beharko litzake. Horretarako, jarduera bakoitzaren ondoren, edo saio amaieran, praktika bakoitzaren balorazioa egiteko tarte bat hartuko litzake, guztiok batera edo parte hartzea bermatzeko talde txikitik egin daitekeena.

Bestalde, adin gazteeneko haurretatik hasita, arazo edo liskar bat dagoen bakoitzean haurren artean konpon dezaten sustatu, dinamizatzailaren burua bigarren plano batera eramanez.

Gerora, eskola kirolean aurrera egin ahala, pixkanaka beharrezko gaitasunak barneratzen eta zenbait balioen eta praktiken ulerkera interpretatzen doazela ulertuta, pixkanaka saioko zenbait atal dinamizatzen hastea sustatu beharko litzake: hasiera, lasaitasunera itzulera ...

Adinean gora doazela, talde ezberdinak egin eta talde bakoitzari saio bat dinamizatzeko aukera ematea ere aberasgarria izan liteke, saio bakoitzean parte hartzaile guztiei jarduera ondoren ekarpenak egiteko aukera emanez (zer aldatuko lukete, hobetzekoak ... ), irakaspenak atera ditzaten.

Laburki azalduta hauek lirateke autokudeaketa txertatu asmoz eskola kirolean hartu litezkeen neurrietako batzuk. Ikusi dugun moduan, teoritik errealitatera sarritan alde handia dago, eta eskola kirolean ere ez da bestelakorik gertatzen, eta uneoro aplikazio honen inguruko zenbait galdera sor daitezke fenomenoaren espezifikotasunean sakonduz: Noiz proposatu daiteke jarduera berri bat? Nola emango zaio proposamen honi onespina edo deuseztapena?

Proposamen bat baino gehiago egotean zer? Nola banatu dinamizaziorako ardurak?

Hau ikusita, esan daiteke errealitatean murgiltzerako orduan oraindik ere hainbat gabezia antzeman daitezkeela. Hala ere, aurreko argudioetan islatzen da autokudeaketaren beharra eta eskola kirolean ere hau aplikatzearen garrantzia. Horregatik, erraza ez dela eta beti eraginkorra izango ez dela ulertuta, pixkanaka alor honetan aurrera pausuak ematea eta praktikan neurriak hartu eta aldaketak planteatzea funtsezkoa izango da.

#### **4.9. DINAMIZATZAILE/HEZITZAILE/MONITOREEN FUNTZIOA:**

Bai hezkuntzan eta bai eskola kirolean autokudeaketari lekua eskaintzeko beharraz jabetuta, honen gauzapenean aintzat hartu beharreko faktoreetako bat irakasle edo hezitzaileak betetzen duen funtzioa izan behar litzake.

Orain artean indarrean egon den hezkuntza eredu tradizionalan, lehen planoan egon izan den sujetua irakaslea izan da, eta ikasleak bigarren maila batean geratu izan dira. Hau zergatik? Bada, ulertu izan delako irakaslea dela jakintzaren jabe dena. Horrela, ikasleek irakasleak dakien hori barneratu beharko dute, memoria landuz. Honek klase zapaltzaileak zapalduta bizitzera ohituko diren sujetuak sortzeko duen nahiari erantzuten dio, pertsona kritikotasun eza sustatuz eta errealitatearekiko kontzientzia barneratzea oztopatuz. Hau horrela, ikasleak ez dira inoiz pertsona aske eta burujabeak eraikiko eredu honi jarraika (Ocampo, 2008).

Gainera, egitura hierarkiko honek eragiten duen beste ondorio bat honako hau da: irakasleak autoritate osoa izatean, ikasleek ez dute erabaki guneetan inongo parte hartze eskumenik, nahiz eta erabaki hauek berarengan eragin zuzena izan (Garagarza, 2015).

Eskola kirolari dagokionean ere, gaur egun, EAeko hiru Foru Aldundiek "Asmoz" fundazioaren laguntzaz aurrera eramandako hezitzaileen formakuntza ikastaroan, nahiz eta helburu nagusietako bat bezala haurraren garapen integrala markatzen den, autokudeaketaren aurka, hezitzaileari autoritatea eskaintzen zaio: hezitzailea da uneoro haurrei zer egin eta nola egin behar duten esango diena, eta haurrentzat eredu izango dena (Fernandez de Larrinoa, d.g.).

Baina haurren autokudeaketaren alde egitekotan, lehenengo pausua hezitzaileak bere pribilegio eta autoritateari uko egitea izango da (Murillo et al, 2015). Ulertuta irakastea ez dela jakintza transmititzea (Lorente eta Joven, 2009), hezitzaileak egia osoaren jabe denaren ustea alboratu behar du (Murillo, 2012).

Autokudeaketa eredu batean, ikasleak pasibo izatetik aktibo izatera igaroko lirateke, eta jakintza jaso eta memorian gorde beharreak, jakintza sortu egingo lukete. Hau da, ikaskuntza komunitate bat sortuko litzake, eta komunitate hau izango da jakintza sortuko duena. Horrela, komunitate hau ikasle eta irakasle edo hezitzailez osatuko litzake, biak maila berean jarriz eta egitura hierarkiko eta irakaslearen autoritateak ezabatuz (Lorente eta Joven, 2009). Hau da, komunitate honen parte izaki, ikasle orok eta irakasle edo hezitzaileak elkarlanean eta denen iritzia maila berean ezarriz erabaki ezberdinak hartuko dituzte (zer ikasi, nola, zein metodologia erabiliko duten gisako erabakiak) (Murillo, Prados eta Jiménez, 2015).

Beraz, protagonismoa ikasleei emanaz, hezitzaileak ikasleei, hauek ikasketa prozesua gara dezaten laguntza eskaini behar die (García-Pérez eta Mendía, 2015); ikasleak jakintzaren produkzio horretara (beharren identifikaziora, erabakiak hartzera eta metodologiak definitzera besteak beste) bideratu beharko ditu (Murillo, 2012). Horretarako arazo ezberdinen irtenbideak adosteko eta gainerako erabaki markoetako ardura ikasleen gain utziz eta aipatutako komunitate honek harturiko erabaki oro errespetatuz (Murillo, 2012).

Finean, ikasleek autokudeatutako proiektu zein saioetan, hezitzaileak honako neurri eta printzipio hauek errespetatu beharko ditu (García-Pérez eta Mendía, 2015; Murillo, 2012):

- Autoritateari uko egin eta bien bitartean ikasleriari/haurrei erabakitzeko ardura eman.
- Haurren autokudeaketarako beharrezko baliabideak erraztu: testuinguru aproposa, horretarako espazio eroso eta behar adinako denbora.
- Protagonismoa haurrei emateak ez du esan nahi inplikazioa murriztuko denik. Komunitatearen parte den momentutik, gainerako ikasleek bezala, bere iritzia partekatuko du, eta bere esperientziatik kritika eraikitzaileak egin eta ikasleek euren proiektua eraikitzen jarrai dezaten sustatuko du.

- Uneoro haurren autonomia eta inizatiba bultzatuko ditu.
- Oreka bat bilatu: hezitzaileak haurrei laguntza eman behar die, baina protagonismoa beti haurrei emanez; autokritikarako, akordiorako, eztabaidarako baliabideak eskain, baina ekitea bera komunitatearen esku utziz.

Autokudeaketa aplikatzean zailtasunak antzeman diren bezala, hezitzailearen papera aztertzerakoan ere praktikaren konplexutasuna ez da atzean geratzen. Eskatzen duen denborak, hasierako zailtasunek eta beste zenbait faktorek hezitzaileari autokudeaketaren eraginkortasunaren inguruko zalantzak ekartzen dizkio burura, eta ondorioz sarritan, frustrazioak eraginik edo, saiakera egin arren erabakia hezitzaileak berak hartzen amaitzen du. Bada, halako irtenbide espontaneo eta inertziazkoak ekiditen saiatu beharra dago, bestela berriro ere hezkuntza eredu tradizionala erreproduzitzen baita, honek dakarren guztiarekin (Murillo, Prados eta Jiménez, 2015).

Ikusi da autokudeaketa aplikatzean hezitzaileek funtzio garrantzitsua betetzen dutela; baina gainerakoan ere, hau da, autokudeaketan oinarrituak ez diren proiektuetan ere, esan beharrik ez dago eragin zuzena dutela haurren jardunean. Hori dela eta, izan eskolan, eskolaz kanpoko ingeleseko saio partikularretan edota eskola kirolean, hezitzaileak formatzeari zentralitatea eskaini behar zaio, beti ere jomuga haurrak integralki garatzean eta kooperaziozko bizi eredu solidario eta aske bat sustatzean ezarrit.

#### **4.10. GENEROA, SEXUA ETA ESKOLA KIROLA:**

Genero parekidetasuna, hezkidetza edota praktika misto edo ez mistoen afera gaur egun pil pilean dauden gaiak dira, eta eskola kirolean ere zeresan handia ematen ari dira. Hainbat buruhauste eragiten ari da haurrak parekidetasunean hezteko erronka hau.

Ezeren aurretik, hezkuntzaren eta pedagogiaren funtsetako bat hurrek bizi duten errealitatea ezagutu eta hau ulertzeko baliabideak eskaintzea da (Ocampo, 2008). Bada, generoren kasuan ere, hurrek fenomeno honi dagokion errealitatea ezagutzea eta ulertzea beharrezkoa da, eta gaur egun, haurrak parekidetasunean hezi nahi izaten dira, baina generoa zer den, nondik datorren



eta nola egituratzen den ikasteen behar adinako enfasia egiten ez delakoan nago.

Generoa eraikuntza sozial bat baino ez da, erlazio sozial bat (Fausto-Sterling, 2006; *Marxismo y opresión de género*, 2015). Pertsonak, jaiotzatik, ezaugarri biologiko konkretu batzuekin jaiotzen dira, eta ezaugarri biologiko horiek sexu deituriko kategoriaren baitako “*continuum*” batean biltzen dira. Horrela, ardatz honen bi muturretan osagai anatomiko guztiz ezberdinak dituzten bi polo bereizten dira: arrak alde batetik, eta emeak bestetik. Baina aipatu bezala, “*continuum*” bat da, eta batzuk muturretan kokatuko diren bezala, beste batzuk osagai anatomiko eta biologikoen nahasketa bat izango dute, batzuk ar kategoriarekin lotu izan direnak eta besteak emeenarekin (Fausto-Sterling, 2006). Horregatik, esan daiteke pertsona bakoitzak ezaugarri anatomiko eta biologiko ezberdinak dituela, eta beraz, sailkapenak albo batera utziz, guztiok ezberdinak garela.

Baina gure gizartean, historikoki, sexuaren kategoria banaketa dikotomiko batera mugatzeaz gain (arrak eta emeak soilik bereiziz) (Fausto-Sterling, 2006), bi sexu hauen gainean genero kategoriak eraiki izan dira. Hau da, generoa eraikuntza sozial bat baino ez da. Ez da naturak, genetikak edo biologiak definitzen duen zerbait; gizakiak artifiziaiki eraikia da. Sexuaren ikuspegi binarioari jarraiki, generoari dagokionean ere aurkako bi genero nagusi sailkatzen dira: gizonezkoa edo maskulinoa, arrari lotu izan zaiona; eta emakumezkoa edo femeninoa, emeari atxikia. Baina hori gutxi balitz, generoak bereizi ez ezik hauen arteko erlazio modua ere inposatu izan da, bakoitzari jokabide eta ezaugarri espezifikoa esleituz (Fausto-Sterling, 2006; *Marxismo y opresión de género*, 2015). Gainera, erlazio modu hau inposatzea baliatu izan da pertsona batzuegan zapalkuntza areagotzeko, eta gizarteko klase dominatzailea honetaz baliatuz izan da etekin ekonomikoa errazago lortu eta aberastasun gehiago pilatzeko (*Marxismo y opresión de género*, 2015; Zetkin, 1896).

Horrela, jaiotzatik barneratu nahi izaten da gizartean bi sexu eta bi genero bereizten direla, eta sarritan naturalizat jotzen dira, bakoitza bere jokabide eta jarrerekin. Heziketa fisikoaren arloan ere, genero bakoitzari keinu, jarrera edo

gorputz erabilera ezberdinak egotzi izan zaizkio. Genero bakoitzak gorputzari ematen dion erabilerak, gainera, rol bereizketa bat eragiten du (Scharagrodsky, 2004).

Guzti honengatik, honakoak izan behar luke eskola kirolaren lehenengo funtzioa, generoari dagokionez: batetik, haurrak ohar daitezela generoa eraikuntza bat baino ez dela, norbanako bakoitzari jarrera konkrituak barneratzea eragingo diona; eta horrez gain, sistema binarioari uko eginez, sexuaren baitan aniztasun askoz handiagoa dagoela bi muturretan oinarritutakoa baino. Hau da, lehenengo eta behin, neska eta mutilen osatutako talde bat ulertu beharrean, ezaugarri biologiko eta anatomiko ezberdinak dituzten pertsonen osatutako taldea ulertu behar du haurrak. Hots, pertsona orok bereiztasun propioak dituela eta guztiak ezberdinak direla, baina ez ezberdinak izanagatik gehiago edo gutxiago.

Behin hau esanda, eta ulertuta egungo umeei ere generoaren banaketa barneratuta dutela, berriro ere praktikak dakartzan zailtasunekin egiten dugu topo: eskola kiroleko praktikak mistoak izan behar dira? Ala neskek eta mutilak bananduta jardun behar dira?

Bada hainbat herritan eredu mistoa indarrean jartzeko saiakera egin ondoren, ondorioztatu da sarritan eredu misto honek nesken parte hartzea murriztea eragiten duela, nahiz eta beharrezkoa ikusten duten neska zein mutilak elkarrekin hezteak. Nesken parte hartze murrizketa hau talde kirolean ematen da nagusiki; hau ikusita, planteatu izan da aukera bat izan litekeela talde kirolean neska eta mutilak bananduta aritzea eta gainerakoetan elkarrekin, hezkidetzak sustatuz (Azurmendi, 2017).

Nabaskuesen (2017) arabera, haur bakoitzak ezaugarri eta abilezia ezberdinak ditu, eta beraz, hainbat praktikatan ezberdintasun honek batzuen garapena oztopa dezake. Horregatik, helburua haurren garapen integrala dela kontuan hartuta, genero bereizketak albo batera utzi eta pertsona guztiak ezberdinak diren ulerkeran oinarrituz, hauei bakoitzaren garapenean zentratu beharko litzake eskola kirola. Ondorioz, honetan eragina duen faktore garrantzitsuena eta erabakigarria ez da izango agian generoen arabera banatuta

jardun behar diren haurrak ala bateratuta; baizik eta ea benetan pertsona guztien garapenera zuzenduta dagoen ala ez (Nabaskues, 2017)

Beraz, jardueraren antolaketa praktika bakoitzaren arabera izan beharko litzakeela iruditzen zait. Hau da, praktika, jolas edo jarduera bakoitzean aztertu beharko litzateke zein antolaketa eredu den egokiena guztion garapenerako. Esaterako, badaude zenbait jarduera indarra bereizgarri izango dena (Harrapaketa jolasean esaterako, alde handia dago 6 urteko eta 12 urteko baten artean); kasu horretan, agian elkarrekin jolasten jarriz gero desoreka nabarmena eman daiteke, eta ez da bata zein bestearentzat aberasgarria izango. Ondorioz, halakoetan banatzea ez dut desegokia ikusten (izan adinaren, indarraren edo beste irizpideren baten arabera, beti ere guztien garapenaren mesedetan). Edo agian batzuetan desoreka hauek sortu behar dira, desoreka hauetatik ere norbanako bakoitzak (bai zailtasun gehiago dituenak eta bai erraztasun gehiago dituenak) irakaspenak atera ditzakeelako, norbanako eta taldearen garapenaren mesedetan. Hala eta guztiz ere, uste dut gaitasun fisikoak guztiz erabakigarriak diren jarduerak ahalik eta gutxien txertatu behar direla eskola kirolean, eta elkarlanean jarduten eta kooperatzen ikasten den eta beste zenbait gaitasun (piskologikoak, erabakiak hartzea edo estrategiak lantzea hauen adibide) indartzen dituzten jarduerak erdigunean jarri. Erronka kooperatiboetan, adibidez, ezaugarri ezberdinetako norbanakoak elkartzea aberasgarria litzake, talde izaera hori garatu eta ezberdintasun horiek aldeko faktore bihurtzen ikasiko dutelarik.

Gaur egungo eskola kirola aztertuz gero, gaitasun fisiko konkretu batzuk gainjartzen dituzten kirol lehiakor eta hegemonikoak dira nagusi; hala nola futbola, atletismoa edo eskubaloia. Honen eraginez, lehiakortasunaren atalean aipatu gisan, izaera indibidual eta lehiakorra barneratzeaz gain, nagusiki gaitasun fisikoan oinarrituriko jarduerak direnez, azkarrak, indartsuak eta erresistenteak ez diren haurren garapena oztopatuko da, eta baita izaera kolektiboaren, taldean bizitzen ikastearen eta elkarlanaren garapena ere. Horrela, generoa irizpidetzat hartuz, halako jardueretan emakumeak izan litezke euren garapena mugatua ikus dezaketenak, bi generoak batera jarduteak emakumeen parte hartzea murrizten baita (Azurmendi, 2017).

Atal honekin amaitzeko, esan daiteke mistoa edo ez mistoaren inguruan eztabaidatzen aritu beharrean, lehenik eta behin generoak baztertu eta pertsona ezberdin eta anitzak jarri behar direla erdigunean. Eta behin pausu hau emanda, pertsona hauen elkarbizitzarako lagungarriak diren jarduerak planteatu, eta jarduera bakoitzean garapen eta elkarbizitza hauek indartzeari begira aproposenak diren antolaketak erabili.

#### **4.11. NATUR JARDUERAK, NATURAN JARDUTEA ETA ESKOLA KIROLA:**

Natur-jardueren berezitasunetako bat jarduten den ingurune edo espazioak eragindako ziurgabetasuna izanik, ikusi dugu honek dakarren informazio deskodifikazioaren beharrak norbanakoaren garapen integralari ekarpen zuzena egiten diola: sormena eta egoera ezberdinen aurrean erabakitzen ikastea garatzen dira, besteak beste.

Baina natur-jarduerak, ingurune ziurgabeen burututako jarduerak izateaz gain, badituzte beste zenbait berezitasun, zeinak jarduera hauek eskola kirola bezalako esparru batean lantzearen beharrezkotasuna justifikatzen duten, duten izaera hezitzaileagatik.

Esaterako, frogatu izan da natura ingurunean jarduera fisikoa praktikatzeak eragin positiboa duela osasunean, hautemate psikologiko, fisiologiko eta emozionalak hobetuz (Brymer, Cuddihy eta Sharma-Brymer, 2010). Gainera, beldurraren kudeaketa eta autokonfiantza bezalako aspektuak ere indartzen ditu, honek norbanakoaren ongizate eta autokontzeptuan duen eragina baztertu gabe (Brymer, Cuddihy eta Sharma-Brymer, 2010).

Hori gutxi balitz, norbanakoaren onuretatik haratago, ingurune basatian burututako jarduerak pertsonen arteko komunikazioa, konfiantza eta arazoei taldean irtenbidea emateko sena ere bultzatzen dituzte, talde izaera eta kohesioa indartuz (Ewert eta McAvoy, 2000 ).

Hala ere, onura hauek aztertu ondoren, atal honetan nagusiki natur-jardueretan eta naturaren eta gizakion arteko harremana aztertuko da.

Gaur egun ingurugiroari loturiko krisi sakonean murgilduta gaude, eta klima aldaketa, deforestazioa, desertifikazioa, biodibertsitatearen galera edo kutsadura horren adierazle dira. Krisi hau, hein handi batean, gizakiak eta gizakiaren

bizimoduak eta bizi ohiturek eragindakoa izan da. Esaterako, naturako baliabideak mugagabeak direnaren usteak natur-ingurune honekiko esplotazioa ekarri izan du, norbanakoa erdigunean jarriz ingurune naturala bera beharrean (De Castro, Cruz eta Ruiz-Montoya, 2009).

Jarduera fisikoei dagokionean ere, gizakion bizi ohituren barneko fenomeno bat diren heinean, zehazki ingurune naturalean praktikatzen diren jarduerak eragin eta inpaktu bat eragiten dute ingurugiroan. Besteak beste, praktiketan kontzienteki jokatzen ez bada ingurunean alterazioak, kutsadura (akustikoa, esaterako), begetazioaren galera edota faunan eragin negatiboak eratortzen dira (Farías eta Sallent, 2009). Eski pista berri bat eraikitzerako orduan esaterako, ingurunean eragindako aldaketak kontuan hartzekoak dira.

Baina gizakiak beharrezkoa du natura: nolabaiteko dependentzia du naturarekiko nolabait esateko: batetik, gizakion zenbait behar asetzeko baliabideak naturatik eskuratzen dira; elikagai ezberdinak, ura edo airea esaterako. Baina hori gutxi balitz, norbanakoak bere ongizaterako ezinbestekoa du naturarekin kontaktua mantentzea (Brymer eta Gray, 2009).

Horregatik, ingurugiroari eta natur-inguruneari loturiko arazo eta krisi hauen inguruko kontzientzia hartzea giltzarria da, eta ingurugiro galera honi aurre egiteko jarrera eta pentsamendu aldaketa baten beharra dago (De Castro, Cruz eta Ruiz-Montoya, 2009).

Natura ondasun bat balitz bezala ulertzearen ideia alboratu eta gizakiok beraren parte garen komunitate bezala ulertu behar genuke; Errespetuzko eta elkartasunezko harreman bat ezarri Lurrarekin, bere zaintzarako behar diren neurri guztiak hartuz eta arduraz jokatuz (De Castro, Cruz eta Ruiz-Montoya, 2009).

Hau da, natura eta ingurunearekin gizakiak parekidetasunezko erlazio intimoago bat garatu behar du, ingurune honen parte den momentutik, berarekin identifikatuz eta uneoro bi alderdien ongizatearen mesedetan arituz (Brymer eta Gray, 2009).

Bada, beharrezkoa da hezkuntza bezalako esparruetan eragin eta naturarekin harreman sano eta koherenteak sustatzen hastea, eta horretarako aukera ezin

hobea eskaintzen dute jarduera fisikoek. Ingurune naturalean jarduera fisikoa praktikatzean, jarduerak berak jardulearen eta ingurunearen artean erlazio bat ezartzen du; hau da, praktika mota honek bere baitan dakar gizakia eta natura harremanetan jartzea (Lapetra eta Guillén, 2005).

Jarduera fisikoak ezartzen duen elkarrekintza honen baitan, batetik baliteke aurkakotasun harreman bat garatzea: jarduera aurrera eramateko naturako elementu ezberdinei aurre egin behar zaionaren eta hauek gainditu behar direnaren sentimendu bat garatu daiteke. Kasu honetan, lortu nahi den helbururako natura oztopo bat dela ulertzen da, eta ez litzateke arrakastarik lortuko naturaren aurka borrokatu ezean (Lapetra eta Guillén, 2005).

Baina beste aukera bat elkarrekintzazko harreman bat garatzearena da. Brymer eta Gray-k (2009), dantzaren metafora baliatuz, jarduera fisikoa praktikatzerakoan gizakiaren eta naturaren artean harreman harmoniatsu, dinamiko eta arduratsu eta erritmo bateratukoa sortzen denaren ideia defendatzen dute, bi alderdiak elkarrekin eta elkarlanean arituz, elkarren aurka baino.

Gainera, jarduera fisikoko praktiketan jarduleak eta naturak elkarlanean eta errespetuan oinarritutako lotura bat sortzeak gizakiak naturarekiko duen ikuspuntua aldatzea ekar dezake (Brymer eta Gray, 2009).

Argudio hauek direla medio, naturaren eta honekin errespetuzko erlazio sano eta arduratsu bat ezartzearen beharra erdigunean jarriz, eskola kirolek haurrak horretara bideratu behar lirateke. Izan ere, autore ezberdinek aztertu duten erara, ingurune naturalean burututako jarduera fisikoak horretarako abagune eraginkorra dira. Beraz, naturan eta naturarekin bizitzen ikasteko xedeari jarraika, naturan burututako jarduerak espazio zabala behar lukete eskola kirolean.

#### **4.12. ESKOLA KIROLA ETA INKLUSIOA:**

Heziketa proiektuetan inklusioa bermatzearen ere ideia gero eta errotuago dago, eta eskola kirolean ere, dekretua aztertzen badugu, EAEko eskola kirolak ere integrazioa bermatzeko hautua egiten du hasiera batean (125/2008 Dekretua).

Baina, nahiz eta sarri bi kontzeptuek esanahi bera dutela uste izan, inklusio eta integrazio fenomenoek badituzte beraien artean hainbat desberdintasun. Bada, lehenik eta behin bi kontzeptu hauek argitzea komeni da, hezkuntza alorrean hauetako bakoitzak paradigma edo filosofia ezberdin bati egiten baitio erreferentzia (Adirón, 2005; Sinisi, 2010);

Integrazioaren kasuan, aurrez gainerakoekin alderatuta ezgaitasun edo desberdintasunen bat izateagatik baztertuak izan diren pertsonak gainerakoen taldera barneratzea bilatzen da, izaera baztertzaila ahalik eta gehien murrizteko asmoz. Hala ere, integrazioak defendatzen duenez, horretarako baztertua izan den talde hau izan behar da gainerakoek hezkuntza prozesura egokitu behar dena (López et al, 2014; Rosales, 2015). Horrela, integrazioaren ereduak ezgaitasun edo arazoren bat duen oro ezberdintzat jotzen du, eta gainerakoak normalak lirateke. Beraz, integratzeko, talde ezberdin hau pertsona normalen prozesura egokitu behar da (Adirón, 2005; Domínguez y González, 2012).

Inklusioaren kasuan berriz, taldearen aniztasuna eta pertsona oro ezberdina denaren ideia defendatzen du paradigma honek, eta inor beste inorengana egokitzen jardun gabe, talde osoaren eta taldeko kide bakoitzaren beharrak aseko dituen sistema bat sortuko da, sistema hau norbanako bakoitzari egokituko zaiolarik (Adirón, 2005, Rosales, 2015). Hau da, guztiontzako heziketa sistema bat bermatzea litzake, parte hartzea eta parekidetasunaren balioak sustatuz eta diskriminazioak abolituz (Domínguez y González, 2012).

Beraz, esan daiteke integrazioaren kasuan aniztasuna aukera bezala hartu beharrean oztopo kontsideratzen dela, eta ondorioz, ezberdin kontsideratuak diren pertsona hauek gainerakoengana egokitzea bilatzen da. Inklusioan aldiz, komunitate anitza erdigunean jarriz, eta bakoitzaren ezberdintasunak aberastasun direla ulertuz, hauetako bakoitzaren garapena bultzatuko da, guztiak maila berean jarriz (Adirón, 2005; Ríos, 2009). Finean, batean pertsonak izango dira gainerakoek prozeduretara egokitu behar direnak, eta bestean berriz prozedura izango da pertsonetako bakoitzera eta talde osora egokitu behar dena (Avramidis eta Norwich, 2002).

Bi teoria hauek aztertuta, elkartasunezko eta errespetuzko gizarte bat osatzea eta haurrak horretara bidean heztea bada xedea, eskola kirolean ere

inklusioren aldeko hautua egin behar da. Hau horrela, taldearen aniztasuna aintzat hartuta, taldeko kide guztien garapena bermatuko duten praktikak programatu behar dira.

Baina inklusioren atalean ere, beste behin ere, praktikara abiatzean zailtasunak agertzen dira inklusioa bere osotasunean bermatuko duten jarduerak hautatzerako orduan. Dena dela, badaude norabide horretan, eta eksklusio eta segregazioa bazter ditzaketan kontuan hartu beharreko zenbait bideorri:

- Memoriadun praktika lehiakorrek sarritan eskusio eta bazterketa eragile izan daitezke (Parlebas, 2014): irabazle eta galtzaile bereizketa bat egiten duen jarduerak beti izango du joera batzuk (garaileak) goraiatzeko eta besteak (galtzaileak) baztertzeko. (Domínguez y González, 2012). Beraz, ahal den neurria praktiketatik memoria eta markagailua kentzeko hautua egin behar da inklusioren mesedetan.
- Jolas kooperatiboen aldeko hautua: jolas kooperatiboek frogatu izan da taldekideen artean erlazioak sendotzeaz gain, harreman hau erabat inklusiboa dela (Lavega, Planas eta Ruiz, 2014). Gainera, talde kohesioa indartuko du, eta kide guztiak taldeko partaide sentiaraziko ditu, aniztasunaren aberastasuna baliatuko delarik (Domínguez y González, 2012).
- Planteaturiko erronka eta jarduera ezberdinetan, taldearen zein norbanakoaren beharren, ezaugarrien eta nahien arabera arauak eta helburuak egokitu (Domínguez y González, 2012).
- Natur jarduerak burutu: Natur jarduerak, jarduerak lehiakorrak ez direnean eta taldeka burutzen direnean bederen, talde kohesioa eta kooperazioa praktikan jartzeko eremu aproposa dira. Horrela, ingurune basatian aurrera eramandako jarduerak inklusioa indartzeko aukera paregabea izan litezke eskola kirolean ere.

Honenbestez, gizarte inklusibo eta anitza eraiki nahi bada, eskola kirolean, hezkuntzaren adarretako bat izaki, inklusioren eta errespetuaren afera lantzeko beharra agerian geratu da. Hala ere, nahiz eta horretarako hainbat aukera aztertu, jarduerak proposatzerako orduan zailtasunak antzematen dira oraindik ere. Baina inklusioren auzian ere lehiakortasuna albo batera utzi eta natur jarduerak edo erronka kooperatiboak bezalako praktiken aldeko apustua nabarmentzen da.



#### **4.13. ALDAGAI EZBERDINETATIK ATERATAKO OINARRI NAGUSIAK**

Beraz, aldagai guzti hauen azterketa eginik, gaur egungo EAEko eskola kirolean aurki daitezkeen hutsuneak gaindituko lituzkeen eskola kirol eredu berri bat ezartzera bidean norabide bat zabaltzen da, eta laburbilduz, honako oinarri hauek izango lituzke:

- Helburuari dagokionean, eskola kirolak gizarteratzen lagunduko duela ikusita, pertsona burujabe, ahaldundu, kritiko eta osasuntsuak hezteaz izango da xedea; eta elkartasunean eta kolektiboan oinarritutako gizarte batean bizitzen ikasiko duten pertsonak, askeak eta zorientasuna erdigunean jarriko dutenak.
- Proiektuaren muina jarduera fisikoa eta honen bidezko heziketa izanagatik ere, fokua arlo fisiko eta biologikoan jarri gabe pertsonaren garapen osoa izango da eskola kirolaren iparra; alderdi fisiko, sozial, afektibo eta kognitiboetako dagozkien gaitasun ezberdinak landuz.
- Gaur egun nagusitzen diren lehiakortasun eta berekoikeria balioetatik aldenduz, kooperazioa eta elkar laguntza bezalako balioen aldeko hautua egingo da, kolektiboari lehentasuna emango dioten pertsonak heziz. Horretarako kirolak zein memoriadun jokoak ahal den heinean murriztu eta hauek jolas memoria gabeengatik eta kolaboraziozko zein kooperaziozko jolas eta erronkengatik ordezkatuko dira.
- Eguneroko bizitzako egoera ezberdinei irtenbidea eman ahal izateko, gaitasun kognitiboan, inteligentzia motorren eta sormenaren garapena sustatuko dira. Bide horretan, barne logikan ziurgabetasun sozial zein espaziala duten praktikak hautatuko dira, jarduera psikomotor ziurra erabat alboratu gabe.
- Gaur egun ohikoa den adin eta kategoria banaketekin hautsiz, adin ezberdinen arteko elkarrekintza hau bilatuko da jarduera eta dinamika ezberdinen bidez, komunitate eta izaera kolektiboa hauek sendotu nahian. Hala ere, kontu handia izan behar da zenbait jardueretan adinak nahastearekin, desoreka nabarmenak suerta baitaitezke.
- Gurasoak beren seme alaben heziketa prozesuaren arrakastarako ardatz nagusietako bat dira. Hori hala izanik, gurasoak eskola kirolean erabat inplikatu behar dira, beti ere haurrek beharrezko dituzten autonomiazko

espazioak errespetatuz. Jomuga hori lortzera datoz lanean proposaturiko bi neurriak: haurren garapenean eragiten duten balio ezberdinen inguruko formakuntza batetik, eta jarduera ezberdinetan aita-amak eta seme-alabak elkarrekin jardutea bestetik.

- Haurrek etorkizun batean egunerokotasuna euren kabuz antolatu dezaten bilatzen bada, eskola kirolatik hasi behar da autokudeaketa lantzen. Saioetan ikasleen autokudeaketari lekua egingo zaio, beti ere era progresibo batean. Hasi aurreko beharrezko formakuntzatik eta saioa osotasunean ikasleen artean dinamizatzeraino, haurrengan eragina duten erabaki oro haien esku utziz.
- Autokudeaketa indartzearekin batera hezitzailearen funtzioak aldaketa bat jasango du. Jakintzaren jabea eta transmisorea denaren ideia baztertu, eta normalean izan ohi duen autoritateari uko egin eta jakintzaren sorreran bat gehiago izango da, haurren laguntzaile izatera pasako delarik. Bestalde, saioetan eta haurren heziketan eragina duten beste zenbait alderditan ere formatu beharra dute hezitzaileek.
- Genero aldetik eredu mistoa ala banandua hautatzen hasi haurretik, eskola kirola haurrek generoa eraikitako fenomeno bat dela ikas dezaten tresna bat izan behar da. Hori lehentasun gisa jarriz eta puntu honetatik abiatuta, genero ezberdinetatik pertsona anitzetara jauzi egitea izan behar da iparra. Horrela, norbanako bakoitzaren garapena ahalbidetuko duten jarduerak programatuko dira, ahalmen fisikoak erabakigarri diren jarduerak murriztuz.
- Natur-jarduerei eta naturan burutzen diren jardueri pisu handia emango zaie. Bai ziurgabetasun espazialak erabakiak hartu beharra eragingo dielako haurrari, bai norbanakoa autoestimaz eta konfiantzaz josi eta talde kohesioa indartuko dituztelako, bai eta naturarekin errespetuzko eta kolaboraziozko harreman sano eta arduratsu bat ekarriko duelako ere.
- Indarra kolektiboan, elkarlanean eta elkartasunean izango duen gizartea berez izango da inklusioa, eta eskola kirolak ere ezinbestean bermatu behar du inklusioa, norbanako bakoitza ezberdintzat ulertuz eta ezberdintasunean eta aniztasunean aberastasuna bilatuz.

Honakoak lirateke eskola kirol hezitzaile bat indarrean jartzeko errespetatu beharreko jarraibide nagusiak; eta sarreran aipamena eginagatik ere, ezin dugu ahaztu alderdi hauek denak elkarrekin lotuta eta elkar eraginpean daudela. Adibidez, inklusioaren atalean ikusi dugu inklusioaren bermea jarduerak norbanako bakoitzaren garapena baimentzearekin lortzen dela, ezberdintasunak ezberdintasun; eta horretarako, praktika lehiakorrak alboratu behar dira, generoaren aurretik pertsonak jarri edota natur-jarduerei garrantzi gehiago eman behar zaie. Gainera, inklusio hau zorientasun iturri izango da. Honenbestez, argi dago alderdi bakoitzak bestearengan eragina duela. Azken batean, norbanakoaren eta taldearen garapena bultzatuko duten metodologia, forma eta jarduera aiposenak finkatzera datoz alderdi hauek guztiak eta hauetariko bakoitza.

Bukatzeko, eskola kirolean lagungarria izango da alderdi multzo hau eta bakoitzean emandako argibide oro aniztasunaren barnean biltzea. Markatutako pautak errespetatzen diren bitartean, zenbat eta anitzagoa izan eskola kirola jarduera aldetik, orduan eta erakargarriagoa izango da haurarentzat, eta baita garapenerako aberasgarriagoa ere.

## 5. APLIKAZIO PRAKTIKORA HURBILKETA: ITZIARKO ESKOLA KIROLERAKO PROPOSAMEN SAIAKERA

Eskola Kirol eredu baldintzatzen duten alderdien sakontzea egiterako orduan ateratako ondorioetako bat teoriatik praktikara abiatzean topa daitezkeen zailtasunena izan da. Inklusioa jarduera guztietan bermatzea, haurrak lehiakortasunetik aldentzea edo autokudeaketan esperimentatu eta prozesu arrakastatsua izatea ez da erraza izango, eta are zailagoa egingo dute gaur egun egunerokoan eta eskola kirolean ditugun ohitura eta joera ezberdinek.

Dena dela, deskribaturiko gizarte eredu sortzea posible denaren ustearekin, ondorengo atalean Itziarko testuinguruan eskola kiroleko programari forma emateko saiakera bat egingo da, aurreko atalean ateratako printzipioekiko koherentea den plangintza bat garatuz, beti ere ulertuta kostatako prozesua izango dela eskola kiroleko agente ezberdinak (hezitzaile, haur zein gurasoak) egun indarrean dagoen eskola kirolek norabide ezberdineko eredu berri batera ohitzea.

Baina ezeren aurretik, proposamen zehatza egiteko lagungarria izan daiteke batetik Itziarko eskola kirolaren argazki bat egin eta alderdi garrantzizkoenak aztertzea, eta bestetik proposamena garatzeko herriak eskaintzen dituen baliabide eta aukera ezberdinak ezagutzea. Beraz, analisiaren atalean Itziarko Eskola Kiroleko aspektu eta logika orokorrak aztertu ondoren, oraingoan zehaztapen praktikoagoen azterketa egingo dugu: taldearen azterketan, besteak beste.

### 5.1. BALIABIDEEN DIAGNOSIA:

Baina eskola kirolaren zimendu nagusiak ezagutzeaz gain, proposamenarekin aurrera egiteko horretarako ditugun aukerak eta baliabideak ezagutu beharko dira proposamena ahalik eta egingarriena eta errealena izatea nahi baldin bada.

#### **Giza Baliabideak:**

Itziarko Eskola Kiroleko saioak aurrera eramateaz hezitzaile bakar bat arduratzen da. 12 hurrez osaturiko taldea ez da talde handia, eta ondorioz, jarduera gehienetarako nahikoa izan daiteke hezitzaile bakar batekin. Dena den,

zenbait praktika eta dinamika aurrera eramaterako orduan (natur-jarduera ezberdinak esaterako), segurtasunagatik bada ere hezitzaile honek laguntzaile bat izatea komeniko litzake.

### **Baliabide Materialak:**

Egun Itziarko eskola kirolean eskuragarri dagoen materiala aztertuz, elkarrizketatik ondorioztatu gisan, ikasturte hasieran Debatik Itziarko Eskola Kirolerako material sorta bat bideratzen da (petoak, konoak eta baloi gutxi batzuk), zeina ikasturte osoan eskuragarri egongo den (Alberdi, 2018). Baina egari zor, sorta hau ez da batere anitza eta ez du aukera handiegirik ematen.

Horrez gain, elkarrizketatuak dioenez, material bereziren bat behar izatean Debako polikiroldegian eskuratu liteke (Alberdi, 2018).

Oro har, Itziarko eskola kirolaren esku dagoen material sorta oso urria eta homogenea izan arren, Debako polikiroldegiko baliabide ezberdinak izan daitezke material aniztasunerako irtenbide. Baina esanak esan, uneoro eremu horretan behar den materiala egotearen edo ez egotearen zoriaren menpe geundeke.

### **Instalakuntzak/azpiegitura:**

Eskola Kiroleko jarduerak burutzeko espazio bakarra gaur egun frontoia da. Hezitzaileak berak aitortu bezala, porteriak eta saskiak ere badaudenez, frontoian eramaten dira aurrera eskola kiroleko saio guztiak.

Honek ez du esan nahi, dena den, beste aukerarik ez dagoenik. Ohituta gaude heziketa fisikoko klaseak leku itxi, estali eta zurrun batean egitera, eta ondorioz beste zenbait esparrutan pentsamendu hori erreproduzitzeko joera antzematen da.

Kalean jardutea ere erakargarria izan daitekeelakoan nago, batez ere haurrak monotonia batean erortzea ekidin dezakelako; horrela, espazioa txandakatzeak programa aberastu lezake.

Baina kalean jarduteak segurtasun irizpide batzuk bermatzea eskatzen du, batez ere haurrak autoen joan etorrietatik babestuz. Horregatik, Itziarrek nagusiki hiru aukera eskaintzen ditu eskola kirola kalean segurtasunez aurrera eramateko: Herriko plaza, frontoi kanpoko eremua, bere plaza, jolas parke eta

gune aldapatsuarekin, eta eliza atzeko zelaia. Hauek dira autorik ibiltzen ez diren gune ziurrenak.



*Irudia 2. Herriko Plaza*



*Irudia 3. Frontoi kanpoko eremua*



*Irudia 4. Eliza atzeko zelaia*

Beraz, laburbilduz, espazioari dagokionean frontoia, frontoi kanpoko eremua, herriko plaza eta eliza atzeko zelaia baliabide aproposak izan daitezke eskola kirolerako.

### **Ingurune naturalerako eta natur-jardueretarako aukerak:**

Natur jardueretarako aukera anitza Itziarrek duen indargune nagusietako bat dela esan daiteke. Ondoren ikusiko dugun bezala, Itziarren bertan txangoetarako aukera bat edo beste egoteaz gain, inguruko herri eta auzoetan ere ingurune aproposa egoteaz gain, natur-jarduera ezberdinak egiteko eskaintza zabala dago eskuragarri:

Itziarren bertan Andutz mendia dago, bere magala herri erdigunetik 5 minutu ingurura geratzen da oinez joanda, eta 612 metroko altueran dago<sup>5</sup>. Altuera handia ez izatean, haurren ezaugarrietara egokitzen dela esan daiteke. Gainera, ibilbide nagusian ez dago zati teknikorik. Ibilbide nagusia laburra baldin bada ere, tontorraren inguruan ibilbide luzeagoak egiteko aukera zabala eskaintzen digu Andutzek, eta tontorretik oso distantzia laburrera zelai zabal bat dago, bertan dinamika ezberdinak egiteko aukera ematen duena.

Baina Andutz mendiaz gain, Santa Katalinako ermita ere bertatik bertara geratzen da Itziartik. Bertara iristeko ibilbidea porlanezko ibilbidea da, baina ia batere autorik ibiltzen ez denez, aproposa da haurrekin egiteko. Gainera ibilbide erraza da, ia batere aldaparik gabea. Santa Katalinak duen aukera onena, baina, ermitaren inguruan dagoen zelai zabala da, eta jolas zein jarduera ezberdinak egiteko baldintza aproposak eskaintzen ditu.

Txangoetarako azken aukera Deba eta Zumaia lotzen dituen flysch-eko ibilbidea da. Ibilbide honek, kostatik ibiliz, itsasoaren eta mendiaren arteko elkarguneaz gozatzea ahalbidetuko du, besteak beste Sakoneta eta Mendata hondartza txikietara iristeko aukera ematen duelarik <sup>6</sup>.

Baina ingurune der honez gain, Deba eta Zumaia herrien bereizgarrietako batzuk hauen hondartzak dira. Hondartza hauei loturiko jarduerari dagokionean,

---

<sup>5</sup> Andutz mendiaren inguruko informazio gehiago: <https://www.mendikat.net/com/mount/669>

<sup>6</sup> Informazio interesgarria: [https://www.berria.eus/kanalak/mendia/alb\\_ikus.php?id=904](https://www.berria.eus/kanalak/mendia/alb_ikus.php?id=904)

anitzak dira bi herrietan dauden ur jardueren inguruko eskaintzak: surfa eta bere deribatuak, piragua eta arrauna, esaterako<sup>7</sup>.

Bukatzeko, Itziartik oso kilometro gutxira dagoen Lastur auzoan ere, hondarrezaturiko plaza eta frontoi bana egoteaz gain (hauek jarduera ezberdinetarako ematen dituzten aukerekin), zaldi gaineko ibilaldiak egiteko aukera dago, eta halako jarduerak taldean edo familian burutzea ere interesgarria izan daiteke.

### **Garraioa:**

Natur jardueretarako aukeren artean, batzuk inguruko herri eta auzoetan lekutzen dira, eta nahiz eta oso distantzia laburrera egon, beharrezkoa litzake leku horietara gerturatuko gaituen garraiobide bat finkatzea.

Halako jarduera ia denak asteburuan praktikatuko liratekenez, gaur egun asteburuetan partidetara joateko autobus bat izaten dute hurrek; beraz, aukera hau baliatuko litzateke, eta autobus berbera erabili, partida jokatzeko den tokira joan beharrean natur-jarduera egiteko gunera joanez.

Bigarren aukera gurasoena litzateke. Gurasoak hurrekin batera jardutea bilatu nahi bada eta horretarako asteburuak baliatu, elkarrekin jardun behar diren desplazamenduak gurasoen autoetan egitea aukera bikaina litzake.

### **5.2. PROPOSAMENERA HURBILKETA:**

Bukatzeko, adierazle ezberdinen azterketan ateratako ondorio nagusiak errespetatuz eta Itziarko herriak eta bertako eskola kiroleko baldintza ezberdinek (taldea, hezitzaile kopurua, ordutegia ...) emandako aukerak kontuan izanik, hiruhileko bateko programara hurbilketa bat egingo da, aurrez teorikoki landutakoari forma praktikoa eman nahian.

Baina proposamena garatu aurretik, proposamena hurbilketa bat baino ez denez, gaur egungo egoerara ahalik eta zehatzen egokitzeko saiakera egingo den arren, hainbat arlotan malgutasunez jardungo da proposamena burutzerako orduan (baliabide ekonomikoei ez zaie erreparatuko, garraiorako aukera guztiak

---

<sup>7</sup> Intereserako estekak: <http://www.geozumaia.net/es/turismo:51/alternativas-de-ocio:s42>  
<https://yakosurf.com>



egingarri balira bezala jokatuko da, eta material aldetik ere proposamena ez da egungo baliabideetara soilik mugatuko, besteak beste).

Gainera, taldea hain txikia izatean, abagune egokia da adin ezberdinen nahasketa, autokudeaketarako zenbait pausu eta gurasoekin elkarlana praktikan jartzeko, eta baita kideen arteko harremanak indartzeko ere. Desplazamenduak egiteko eta segurtasuna bermatzeko ere abantaila da talde murrizta izatea.

Horrela, honako baldintza nagusiak izango ditu proposatuko den programak:

- Ikasturteko epeak errespetatuz, programa bat urte osokoa dela jakinik, programa baten atal bat soilik proposatuko da; hiruhileko bat, hain zuzen ere. Ikasturteko azkenengo hiruhilekoan kokatuko gara; apirileko, maiatzeko eta ekaineko asteetan.
- Gaur egungo Itziarko ordutegia errespetatuz, aste bakoitzean bi saio egingo dira, astearte eta asteazkenetan, ordubetekoak biak ere. Baina hauez gain, bi astetik behin larunbat goizetan ere eskola kiroleko jardueri tartea eskainiko zaie, goiz guztia aprobetxatuz.
- Antolaketari dagokionean, jarduera denak haur guztiek elkartuta egingo dituzte. Hau da, talde hain murrizak horretarako aukerarik ematen ez badu ere, ez da adinen edo kategorien arabera banaketarik egingo.
- Jardueretan zentratuz, natur jarduerak, jolasak eta kooperaziozko jarduerak nagusituko dira. Honek ez du esan nahi praktika psikomotorrik egongo ez denik edo aldi-aldi jokorik sartuko ez denik, baina pisu handiena aipaturikoei emango zaie.
- Jardueretan aniztasuna bermatuko da. Haurren dibertsioa topatu nahian, jarduera anitzak eta erakargarriak proposatuko dira ahal den neurrian, beti ere helburuak errespetatuko dituztelarik.
- Zenbait saio autokudeaketarako ere baliatuko dira. Horretarako baliatutako lehenengo saioetan espazio eta momentu batzuetan eman ez autokudeaketarako eskumena, eta ikasturte amaieran saio osoa ikasleek kudeatu dezaten utziz.
- Autokudeaketa praktikan jarritako saioetan batez ere, baina bai gainerakoetan ere, azken 10 minutuak saioaren balorazioa egiteko

baliatuko dira, jarduera bakoitza eta hauek eragindako jokabideak baloratzeko besteak beste. Autokudeaketa arrakastatsua izan dadin aurretik ikasleek balio batzuk barneratuta izan behar dituztela aipatu dugu; bada halako espazioak balio hauek barneratzen hasteko eta kolaboraziozko testuinguru bat sortzeko gune izan daitezke.

- Gurasoen inplikazioa sustatuko da, haur eta guraso ezberdinek taldean elkarrekin zenbait jarduera burutzea bilatuz. Horretarako asteburuak baliatuko dira.
- Espazioak txandakatuko dira. Natur ingurunean praktikatzea lehenetsiko da, baina astearte eta asteazkenetan horretarako aukera oso egingarria ez denez (natur-ingurunera bertaratzeak dakarren denbora galeragatik, ordubeteko saioa dela aintzat hartuta), herriko espazio ezberdinak baliatuko dira saioak aurrera eramateko.
- Saioetan laguntasunezko testuinguru inklusibo eta haurrentzako eroso dena eraikitzearen aldeko saiakera egingo da, eta ahal den neurrian, erabaki eta ekintza orok horretara bideratua egon beharko du.
- Amaitzeko, kontuan izan behar da eguraldia faktore erabakigarrietako bat dela, eta kalean edo naturan jardun nahi badugu, eragina izan dezakeela. Hala ere, eguraldi benetan kaskarra egin ezean, jarduerak egokituriko espazio eta baldintza meteorologikoetan eramango dira aurrera, haurrek eguzkiaz gozatzen ikasi behar duten moduan, euriaz gozatzen ere jakin behar dutelako.

Elementu hauek guztiak aztertuta, honako itxura izango luke elementu hauek garatuko dituen programa batek:

**1.TAULA: Ikasturte osoko programa bateko atal baten antolaketa proposamena.**

	APIRILA	MAIATZA	EKAINA
<b>1.astea</b>	Asteartea: Jolasak	Asteartea: Gorputz kontzientziaren lantzea	Asteartea: Autokudeaketa
	Asteazkena: Jolasak	Asteazkena: Autokudeaketa	Asteazkena: Gorputz kontzientzia landu
	Larunbata: Gurasoekin santa katalinara eta jolasak	Larunbata: Piraguismoa	Larunbata: Altxorraren bila herrian zehir gurasoekin
<b>2.astea</b>	Asteartea: Gorputz adierazpena	Asteartea: Jolasak	Asteartea: Erronka kooperatiboak
	Asteazkena: Jolasak	Asteazkena: Erronka kooperatiboak	Asteazkena: Gorputz adierazpena
<b>3.astea</b>	Asteartea: Autokudeaketari tartea	Asteartea: Altxorraren bila herrian zehir	Asteartea: Ur jolasak
	Asteazkena: Erronka kooperatiboak	Asteazkena: Autokudeaketa	Asteazkena: Autokudeaketa
	Larunbata: Gurasoekin Lasturren zaldi ibilaldia	Larunbata: Andutzera txangoa eta bertan orientazio jolasa gurasoekin	Azken asteburua: Andutz mendira gaua pasatzera
<b>4.astea</b>	Asteartea: Erronka kooperatiboak	Asteartea: Gorputz adierazpena	
	Asteazkena: Autokudeaketari tartea	Asteazkena: Malabareak	

Taulan ikus daitekenez, egun bakoitzean jarduera mota bat egitea proposatzen da; baina hau aukera bat baino ez da. Ez da zertan egitura zurrin hau mantendu behar, eta saio berean jarduera mota ezberdinak ere tarteka litezke; gainera, haurren gogoa mantentzean ere lagundu lezake saioetan ere aniztasuna bermatzeak.

Proposaturiko dinamiketan landuko litzatekeena sakonago aztertu nahian, hainbat argibide mahai gaineratuko dira ondorengo atalean:

- Jolasak: jolasetan, esan bezala, batez ere jolas memoria gabeak landuko dira, hauek dakartzaten onurak ikusi ondoren. Haria moztea eta baloi etxe jolasak hauen adibideetako batzuk dira. Jolasen aukera hain zabala izatean, jolas ezberdinak tartekatzea lagungarria izango da, beti berberak errepikatu gabe.
- Erronka kooperatiboak: erronka kooperatiboak taldean burutu beharreko jarduerak dira; talde lanean oinarrituz, jardueran planteatzen den erronka gainditzea izango dute helburu jarduleek. Hona hemen erronka kooperatiboen bi adibide:
  - o Begi estalien erronka: Ikasleak ilaran kokatuko dira, bata bestearen atzean, aurrera begira eta bakoitzak bere eskuak aurreko kidearen sorbaldetan jarriz. Horrela, ikasle guztiek begiak estalita izango dituzte, ilarako azkenak izan ezik. Helburua, ilaran eta batera mantenduz puntu urrun batera desplazatzea izango da, baina hitz egin gabe. Orduan, kideek hasi baino lehen kode batzuk definitu behar dituzte desplazatu ahal izateko (“bi sorbaldak kolpatuz gero aurrera”, “ezkerreko sorbalda soilik kolpatuta ezkerre” edo “eskuak sorbaldetatik askatuz gero gelditu” bezalako kodeak), eta ilarako azkena izango da taldea gidatu behar duena, bera baita ikusten duen bakarra. Horrela, hitzik esan gabe bere aurrekoari komunikatuko dio egin beharreko ekintza, bata bestearen segidan agindua helaraziz ilarako lehenengoarengana iritsi arte, honek mugimendua hasteko. Erronka zehaztutako puntura iristean gainditzen da.
  - o Aulkien jolas kooperatiboa: Aulki dantzaren jolasaren antzekoa da. Musika dagoen bitartean kideak aulkien inguruan itzulika arituko dira, eta musika amaitzean libre dagoen aulki batean eseri beharko dira. Baina jolas honetan, sekuentzia bakoitzean kideak kanporatu beharrean, aulkiak izango dira kanporatzen joango direnak. Beraz, taldearen helburua musika amaitzen den bakoitzean kide guztiak aulki baten gainean lurra ukitu gabe mantentzea izango da.

Helburua ahalik eta aulki gutxienekin kide guztia aulki gainean mantentzea izango da.

- Gorputz adierazpena: Dinamika hauetan, gorputzarekin adierazpen eta komunikazio forma ezberdinak lantzeko jarduerak landuko dira. Hauen barnean biltzen dira mimika jolasak, elkarri eginiko imitazioak, “akrosport” edo zeinuen bidezko komunikazioa.
- Malabareak: Kasu honetan kideek material ezberdina izango dute, eta hauekin teknika eta mugimendu ezberdinak egitea lortzen ahalegindu beharko dira: esaterako, hiru pilota airean biraka mantendu bi eskuen laguntzaz. Halako jarduerekin abilezia motor ezberdinak garatzea bilatzen da, eta banaka edo taldean burutu daitezke teknika hauek.
- Gorputz kontzientzia: dinamika hau batez ere gorputzaren zaintzari zuzendua dago. Hots, gorputzaren kontrola mantentzeko ekarpena egitea bilatuko da, postura egokiak barneratuz, arnasketan zentratuz eta neurri hauen bidez gorputza ezagutzuz.
- Ur-jolasak: kasu honetan ere jolas ezberdinak jarriko dira praktikan, baina jolasera ura tartekatuz. Hau da, partaideak bustitzea eragingo duten material eta prozedura ezberdinak erabiliko dira: Baloiak beharrean urrezko globoak adibidez.
  - o Baldea bete: sorta honetako adibide bat da honako erronka hau. Ikasleak ilaran jarriko dira, bata bestearengandik metro beteko distantziara gutxi gorabehera. Ilarako lehenak plater bat urrez beteko du, eta platera buru gaineratik pasaz, bere atzekoari eman beharko dio. Honek ere prozedura bera errepikatuko du, azken kidearengana iritsi arte. Honek, buru gaineratik platerako ura bere atzean kokatuta dagoen baldera isuri beharko du. Ondoren platerarekin ilararen aurrealdean kokatuko da eta berriro ere hasiera emango dio prozedurari. Helburua baldea urrez betetzea izango da.
- Altxorraren bila: Jarduera hau ere taldean burutuko da. Herrian zehar pista ezberdinak kokatuko dira, ordena batean, zeinak amaierako altxor batera eramango duen parte hartzailea. Horrela, taldea pistarik pista aurrera egiten joan beharko da amaierara, altxorrera heldu arte. Baina helburuaren lorpena zailtze aldera, pista bakoitzean erronka bat gainditu

behar izango du taldeak (erronka kooperatiboetako edozein da baliagarri, beti ere oso luzea ez bada).

- Orientazio jolasa: Altxorraren bilaren oso antzekoa da, baina kasu honetan, jarduera iparrorrazaren baitan egituratuko da, eta pista bakoitzean hurrengo pistara heltzeko graduak eta metroak jarriko ditu. Beraz, iparrorrazaren erabilera maneiatzea ezinbestekoa izango da amaierara heltzeko. Jarduera hau hiruko taldetan egin daiteke, denek batera eginez gero zailagoa baita guztiak inplikatzeko.
- Azken asteburua: ikasturteari amaiera emateko, ikasle eta gurasoak kanping dendak hartu eta Andutz tontorretik metro gutxira dagoen zelaira joango gara gaua pasatzera. Arratsaldean abiatu, bertan guztien artean erabakitako jolas ezberdinak egin eta ondoren gaua bertan pasako da. Hurrengo goizean, egunsentia ikusteko esnatu, eguzkiaren irteera ikusi eta herrira jaitsiko gara.

Honako hau litzake programa plangintza baten proposamen saiakera. Behin eta berriz aipatu bezala, orrian garatutako proposamenean ezin dira jaso eta antzeman praktikan eragiten duten xehetasun guztiak eta praktikak eragiten dituen bizipenak. Ondorioz, ulertu behar da proposamen honen helburua ere, lanaren xedearekin bat eginez, haurren heziketa integral baterako jarduera fisikoaren mundutik norabide bat markatzea izango dela, balio eta bizi eredu zehatz batzuen alde eginez.

## 6. AMAIERAKO HAUSNARKETA

Gaur egun instituzioetatik hezkuntza esparruari norabide zehatz bat emanagatik, jarduera fisiko forma batzuk gizartean hegemoniko bilakatu izanagatik edo eskola kirolean praktika jakin batzuk indartuagatik ere, zabalpen gehien lortu duten forma, pentsamolde eta ereduak izateak ez du esan nahi bakarrak, aproposenak eta perfektuak direnik.

Egun indarrean dagoen formazio sozial kapitalistak gizarte egitura zehatz bat definitzen du, bizimodu jakin bat, eta hezkuntza eta kirol sistema bezalako aparatuez baliatzen da gizabanakoa bizimodu horretara bideratzeko. Horrela, fenomeno hauetako bakoitzak forma konkretu bat bereganatuko du, eta bai eskola kirolak ere, gizarte egitura jakin horretara ekarpena egin ahal izateko.

Lan honetan, horrela, gizarte eredu hau bakarra ez denaren ideiatik abiatuta eta pertsona eta gizarte osasuntsu eta askeagoak eraikitzea posible eta beharrezkoa dela sinetsita, honetara bidean indarrean dagoen eskola kirola eredugarriena ote den zalantzan jarri nahi izan da.

Laneko atal ezberdinetan aztertu daitekeen bezala, eskola kirola izan da zutabea, eta sarreran definitutako asmoari men eginez, alor honetatik gizarte berri bati ekarpena egitea bilatu da, besteak beste. Asmo horretan, eskola kirol berri baten planteamendurako gako ezberdinen sakontze teoriko bat egin da, eta teoriarik ondorioztatutakoari aplikazio praktikorokor bat emateko saiakerarekin eman zaio amaiera lanari, Itziaroko Eskola Kiroleko asteroko saioak esperimenturako esparru gisa baliatuz.

Nolanahi ere, alderdi guztiak aintzat hartu nahi izatean, baliteke hauetako bakoitzean behar adina sakondu ez izana eta aplikazio praktikoa ere hankamotz geratu izana. Gabezia teorikoek landutako aspektu ezberdinen artean desorekak ere eragin zitzakeen, atal batzuetan ondorio errealagoak ateraz beste batzuetan baino.

Bestalde, instituzioetatik indartzen den eskola kirola (bere balio eta oinarriekin) perfektua izango ez den moduan, lanean norabidetu izan den ereduak ere ziur eztabaidatzeko, kritikatzeko eta hobetzeko alderdi ugari izango dituela. Batzuk zenbait hausnarketekin ados egon daitezke, beste batzuei

proposamena ez zaie egingarria irudituko, eta azken batzuk planteaturiko ideia ezberdinekin sutan jarri daitezke.

Baina kritika hutsera mugatu baino, lanaren hutsune, gabezia eta indargune ezberdinak gai honen inguruan sakontzen jarraitzeko motibazio izan behar dira, azken batean lan hau inoiz izan daitekeen horren hazi bat baino ez baita, oraindik hazteko eta loratzeko dagoena; abiapuntu bat, etxea beronen gainean eraikitzen hasteko oinarri bat baino ez.

Beraz, balio beza hausnarketa honek eskola kirol benetan hezitzaile bat sortzen eta pertsona eta gizarte osasuntsuetarako norantzan pausuak ematen jarraitzeko tresna gisa! Balio beza kritikarako, eztabaidarako, baieztapenak galderengatik ordezkatzeko eta bide berriak zabaltzen eta eraikitzen jarraitzeko! Bidean oztopoak aurkituko ditugu, aurrera egiteko zailtasunak, baina uzta jasotzeko modu bakarra hazia ureztatzen eta zaintzen jarraitzea den gisara, hausnarketen, eztabaiden eta saiakera ezberdinen bidez soilik lortu daiteke proiektu berriak egikaritzea! Jarrai dezagun burua astintzen, uztarik oparoena zain dugu-eta!



## 7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

- 02-113/2017 Foru Agindua, 2017ko abuztuaren 28koa, 2017-2018 ikasturteko Eskola Kiroleko jardueren programa onartzen duena. *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*. Donostia, 2017ko irailaren 1a, 167.zbk., 1-42 or.
- 125/2008 Dekretua, 2008ko uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*. Gasteiz, 2008ko uztailaren 16a, 135.zbk, 18669-18685 or.
- Acebedo-Afanador, M. (2015). Ocio, trabajo y cultura: perspectiva de realización humana. *Jangwa Pana*, 14, 148-159.
- Adirón, F. (2005). ¿Qué es la inclusión? La diversidad como valor. Berreskuratua 2018ko maiatzaren 19an Researchgate web orritik: [https://www.researchgate.net/publication/273351711\\_La\\_discapacidad\\_en\\_el\\_contexto\\_puertorriqueno\\_Conceptos\\_legislaciones\\_y\\_normativas\\_para\\_las\\_personas\\_con\\_discapacidad\\_desde\\_el\\_quehacer\\_psicologico](https://www.researchgate.net/publication/273351711_La_discapacidad_en_el_contexto_puertorriqueno_Conceptos_legislaciones_y_normativas_para_las_personas_con_discapacidad_desde_el_quehacer_psicologico)
- Althusser, L. (1988). *Ideología y aparatos ideológicos de Estado: Freud y Lacan*. Buenos Aires: Nueva Visión. (Jatorrizkoa 1970ean).
- Avramidis, E.; eta Norwich, B. (2002). Teachers' attitudes towards integration/inclusion: a review of the literature. *European Journal of Special Needs Education*, 17(2), 129-147.
- Azurmendi Echegaray, A. (2017). *Eskola kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatuta: datuetan oinarritutako proposamena*. Gipuzkoa, Euskal Herria. Berreskuratua hemendik: <http://www.argia.eus/fitx/bestelakoak/EK-mistoa.pdf>.
- Brohm, J.M., (1982). *Sociología política del deporte*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.(Jatorrizkoa 1976an).
- Brymer, E.; Cuddihy, T.; eta Sharma-Brymer, V. (2010). The role of nature-based experiences in the development and maintenance of wellness. *Asia-Pacific Journal of Health, Sport and Physical Education*, 1(2), 21-27.

- Brymer, E.; eta Gray, T. (2009). Dancing with nature: rhythm and harmony in extreme sport participation. *Journal of Adventure Education and Outdoor Learning*, 9(2), 135-149.
- De Castro Cuellar, A.; Cruz Burguete, J.; eta Ruiz-Montoya, L. (2009). Educar con ética y valores ambientales para conservar la naturaleza. *Convergencia, Revista de Ciencias Sociales*, (50), 353-382.
- Domínguez y González, J. (2012). *Atención de la diversidad e inclusión en educación física, a través de juegos cooperativos en escuela primaria* (Tesia). Universidad Pedagógica Nacional, Mexiko.
- Durán Gonzalez, J. (2013). Ética de la competición deportiva: valores y contravalores del deporte competitivo. *Materiales para La Historia del Deporte*, (11), 89-115.
- Engels, F.; eta Marx, K. (2004). *Manifiesto Comunista*. Madril, Espainia: Akal. (Jatorrizkoa 1848an).
- Etxebeste Otegi, J. (2009). Kirol joko-jolasak eta gizartekotze prozesua: Euskal Herriko eta Amerikako Estatu Batuen kasuak. Non: E.X. Dueñas (Ed.), *Jokoak, kirolak eta folklore ikerketa: Jardunaldiak*, Basauri, 2008 (93-109). Euskal Herria: Sociedad de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza.
- Etxebeste Otegi, J.; Del Barrio, S.; Urdangarin, C.; Usabiaga, O.; eta Oiarbide, A. (2014). Ganar, perder o no competir: la construcción temporal de las emociones en los juegos deportivos. *Educatio Siglo XXI*, 32(2), 33-48.
- Etxebeste Otegi, J.; eta Urdangarin Liebaert, C. (Ed.). (2004). Reflexiones sobre la educación física de hoy a la luz de las características de la cultura tradicional vasca. Non: F. Lagardera eta P. Lavega, *La ciencia de la acción motriz* (119-135 or.). Lleida, Espainia: Universitat de Lleida.
- Espinoza-Navarro, O.; Valle, S.; Berrios, G.; Horta, J.; Rodríguez, H.; eta Rodríguez, M. (2009). Prevalencia de alteraciones posturales en niños de Arica-Chile. Efectos de un programa de mejoramiento de la postura. *International Journal of Morphology*, 27(1), 25-30.

- Ewert, A.; eta McAvoy, L. (2000). The effects of wilderness settings in organized groups: A state-of-knowledge paper. *USDA Forest Service Proceedings*, 3, 13-26.
- Farías Torbidoni, E.; eta Sallent, O. (2009). El impacto ambiental de las actividades físico-deportivas en el medio natural. El caso de la práctica del Mountain Bike o bicicleta todo terreno. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (16), 31-35.
- Fausto-Sterling, A. (2006). *Cuerpos sexuados. La política de género y la construcción de la sexualidad*. Barcelona, Catalunya: Melusina.
- Fernández Rodríguez, E.; Santana Pérez, F.; eta Merino Marban, R. (2011). Joseph Hubertus Pilates; Anatomía de un gigante olvidado. *Trances: Revista de Transmisión del Conocimiento Educativo y de la Salud*, 3(3), 353-378.
- Fraile, A.; González Carballude, J.; Monjas Aguado, R.; Romero Granados, S.; Macazaga López, A.; Kirk, D. ... Van Den Bergh, K. (2004). *El deporte escolar en el siglo XXI: análisis y debate desde una perspectiva europea*. Barcelona, Catalunya: Grao.
- Gallahue, D.; eta Cleland Donnelly, F. (2007). *Developmental physical education for all children*. Leeds, Britainia Handia: Human Kinetics.
- Garagarza Cambra, A. (2015). *Bizi Toki hezkuntza eredu eraldatzailea? (Gradu amaierako lana)*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, Euskal Herria.
- García-Pérez, A.; eta Mendía, R. (2015). Acompañamiento educativo: el rol del educador en aprendizaje y servicio solidario. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 19(1), 42-58.
- Goñi Grandmontagne, A.; eta Zulaika Isasti, L.M. (2000). La participación en el deporte escolar y el autoconcepto en escolares de 10 a 11 años de la provincia de Guipúzcoa. *Apunts. Educación Física y Deportes*, (59), 6-10.

- Gutiérrez Sanmartín, M. (2004). El valor del deporte en la educación integral del ser humano. *Revista de Educación*, (335), 105-126.
- Hernández Bourlon-Buon, Y. (2014). Deporte Escolar y educación en valores: fundamentación desde un enfoque sociocultural y pedagógico. *Materiales para La Historia del Deporte*, (12), 111-134.
- Iglesias Diz, J. (2013). Desarrollo del adolescente: aspectos físicos, psicológicos y sociales. *Pediatría Integral*, 17(2), 88-93.
- Iturriotz Etzaniz, M. (2017). *Osasunera bideratutako jarduera fisikoa euskal herrian: egoera eta alternatibak* (Gradu amaierako lana). Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, Euskal Herria.
- Jolashezi. (d.g.). Berreskuratua 2018ko maiatzaren 7an, Gipuzkoakirola webgunetik: <http://www.gipuzkoakirolak.eus/eu/jolashezi>
- Lavega, P.; Planas, A.; Ruiz, P. (2014). Juegos cooperativos e inclusión en educación física. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte*, 14(53), 37-51.
- Lapetra Costa, S.; eta Guillén Correas, R. (2005). La motricidad de las actividades físico-deportivas en la naturaleza. La función recreativa de su práctica en la sociedad contemporánea. *Apunts. Educación Física y Deportes*, (80), 53-62.
- López Gallego, F.; Lara Sánchez, A.; Espejo Vacas, N.; eta Cachón Zabalaz, J. (2016). Influencia del género, la edad y el nivel de la actividad física en la condición física de alumnos de educación primaria. Revisión bibliográfica. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (29), 129-133.
- López, V.; Julio, C.; Morales, M.; Rojas, C.; eta Pérez, M. (2014). Barreras culturales para la inclusión: políticas y prácticas de integración en Chile. *Revista de Educación*, (363), 256-281.

- Lorente, E.; eta Joven, A. (2009). Autogestión en Educación Física: una investigación etnográfica. *Cultura y Educación*, 21(1), 67-79.
- Martos García, D.; Torrent Benavent, G.; Durbá Cardó, V.; Saiz Llopis, L.; eta Tamarit López, E. (2014). El desarrollo de la autonomía y responsabilidad en educación física: Un estudio de caso colaborativo en secundaria. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (26), 3-8.
- Marxismo y opresión de género (2015eko maiatzak 13a). Berreskuratua 2018ko apirilaren 15ean Red Roja webgunetik:  
<https://redroja.net/index.php/documentos/documentos-para-el-debate/3469-marxismo-y-opresion-de-genero>.
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2017). Anuario de Estadísticas Deportivas 2017. Berreskuratua hemendik: <http://www.mecd.gob.es>.
- Monjas Aguado, R. (2004). El deporte en la escuela. Reflexiones previas. La importancia de la justificación coherente de su uso. Non: Blazquez, D., V.M. López (Ed.), R. Monjas (Ed.) eta A. Fraile (Ed.), *Los últimos diez años en la educación física escolar: cursos de invierno 2003, "Los últimos 10 años"* (213-218). Valladolid, Espainia: Universidad de Valladolid, Centro Buendia.
- Murillo Yélamos, J. (2012). *Una investigación educativa: La implantación de la autogestión de problemas en educación física* (Master amaierako lana). Almeriako Unibertsitatea, Almeria, Espainia.
- Murillo Yélamos, J.; Prados Megías, E.; eta Jiménez Liso, M. (2015). Las asambleas de autogestión de problemas en Educación Física. *Campo Abierto*, 34(1), 81-101.
- Nabaskues, I. (2017ko urriaren 9a). Eskola kirola: ostikada batez hezkidetzaz jokoz kanpo. Berreskuratua 2018ko apirilaren 20an Klitto webgunetik:  
<http://www.klitto.eus/eskola-kirola-ostikada-batez-hezkidetzaz-jokoz-kanpo>

- Nuviala Nuviala, A.; Ruiz Juan, F.; eta Garcia Montes, M. (2003). Tiempo libre, ocio y actividad física en los adolescentes. La influencia de los padres. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (6), 13-20.
- Ocampo López, J. (2008). Paulo Freire y La Pedagogía del Oprimido. *Revista Historia de la Educación Latinoamericana*, (10), 57-72.
- Omeñaca Cilla, R.; Puyuelo, E.; eta Vicente Ruiz, J. (2001). *Explorar, jugar y cooperar: bases teóricas y unidades didácticas para la educación física escolar abordadas desde las actividades, juegos y métodos de cooperación*. Badalona, Katalunia: Paidotribo.
- Parlebas, P. (2014). *Juegos, deporte y sociedades. Léxico de praxiología motriz*. Badalona, Katalunia: Paidotribo.
- Pizarro Laborda, P.; Santana López, A.; eta Vial Lavín, B. (2013). La participación de la familia y su vinculación en los procesos de aprendizaje de los niños y niñas en contextos escolares. *Diversitas: Perspectivas en Psicología*, 9(2), 271-287.
- Pujolas P.; Riera, G.; Pedragosa, O.; eta Soldevila, J. (2006). *Aprender juntos alumnos diferentes*. Universitat de Vic, Vic, Katalunia.
- Renzi, G. (2009). Educación Física y su contribución al desarrollo integral de los niños en la primera infancia. *Revista Iberoamericana de Educación*, 50(7), 1-14.
- Rey Cao, A.; eta Trigo Aza, E. (2000). Motricidad... ¿Quién eres?. *Apunts. Educación Física y Deportes*, (59), 91-98.
- Ríos Hernández, M. (2009). La inclusión en el área de educación física en España. análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. *Ágora para la EF y el Deporte*, (9), 83-114 .

- Romero Granados, S.; Garrido Guzmán, M.; eta Zagalaz Sánchez, M. (2009). El comportamiento de los padres en el deporte. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (15), 29-34.
- Rosales Marín, C. (2015). Cómo transformar el aula de integración e aula de inclusión. *Revista Internacional de Apoyo a la Inclusión, Logopedia, Sociedad y Multiculturalidad*, 1(2), 14-24.
- Scharagrodsky, P. (2004). Juntos pero no revueltos: La educación física mixta en clave de género. *Cadernos de Pesquisa*, 34(121), 59-76.
- Silva, L. (1970). *La plusvalía ideológica*. Caracas, Venezuela: Fondo editorial de Humanidades.
- Sinisi, L. (2010). Integración o inclusión escolar: ¿Un cambio de paradigma?. *Boletín de Antropología y Educación*, (1), 11-14.
- Torío López, S. (2004). Familia, escuela y sociedad. *Aula Abierta*, (83), 35-52.
- Tuero del Prado, C.; Zapico Robles, B.; eta González Boto, R. (2012). Deporte en edad escolar y agentes sociales: estudio preliminar sobre la relación entre familia, monitores y deportistas en la provincia de León. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (21), 34-37.
- Zetkin, C. (1896). Solo con la mujer proletaria triunfará el socialismo (panfleto moduan jasotako ponentzia). Berreskuratua 2018ko apirilaren 17an Marxists webgunetik:  
<https://www.marxists.org/espanol/zetkin/1896/0001.htm>

### **Argitaratu gabeko dokumentuak:**

- Egibar Mitxelena, M. (2008). Umeen garapenarekin bat egiten duen Eskola Kirola diseinua. Praxiologia motorretik oinarrituta, emozio eta sentimenduen lanketa. Argitaratu gabeko dokumentua.
- Fernandez de Larrinoa, I. (d.g.). Eskola Kiroleko monitoreak. 1.modulua: Kirolaren antolaketa eta legeria. Argitaratu gabeko dokumentua.

Jarduera Fisiko eta Kirolen hausnarketa (2016). Argitaratu gabeko dokumentua.

Usabiaga, O. (d.g.). Autokudeaketaren aukerak heziketa fisikoan eta eskola kirolean. Argitaratu gabeko dokumentua.

**Elkarrizketak:**

- **Leire Alberdi.** Itziarko Eskola Kiroleko hezitzailea. *2018ko maiatzaren 4an, ostirala*, Itziarren bertan eginiko elkarrizketa. Testuan erabilitako aipua: (Alberdi, 2018).



## 8. ERANSKINAK

### **1.Eranskina: Itziarko Eskola Kiroleko hezitzaileari eginik elkarrizketaren transkripzioa.**

Itziarko Eskola Kirolak egun bizi duen egoera ezagutu nahian informazio bila aritu naiz, eta nor hoberik bertako eskola kiroleko begiralea baino gaiaren inguruan hainbat galdera egiteko. Leire Alberdi ikasturte guztian zehar asteroko jardunean dabil Eskola Kiroleko begirale bezala Itziarko haurrekin, eta herriko egoeraren diagnosa egin nahian eta lanean jorratutako atal teoriko ezberdinen aplikagarritasun praktikoa aztertu asmoz, elkarrizketa bat eskatu nion. Eskaerari baiezkoa eman eta hitzordua zehaztuta, elkarrizketaren nondik norakoak azaldu ondoren hainbat galdera planteatu dizkiot, eta prestutasunez eta zintzo erantzun dizkit guztiak ere, ondorengo transkripzioan ageri den moduan.

**Aitor Zubikarai: Arratsalde on Leire. Gaur egun zu arduratzen zara Itziarko Eskola Kirolaz, eta begirale lanetan diharduzu. Zenbat denbora daramazu funtzio hau betetzen? Zer moduzko esperientzia izaten ari da?**

Leire Alberdi: Arratsalde on zuri ere. Aurtengoa da lehenengo urtea eskola kiroleko monitore funtzioa betetzen dudana. Itziarko udalekuetan begirale ere aritu izan naiz aurrez, baina eskola kirolean hau da lehenengo urtea. Aurreko udan egin nuen eskola kiroleko monitore izateko ikastaroa. Irailean hasi eta hurrek ikasturtea amaitzean eskola kirolak ere amaiera emango dio urteari. Oro har esperientzia polita izaten ari da; beste toki guztietan bezala gora-behera batzuekin, baina gustura nabil.

**A.Z.: Itziar herri ez izatean, historikoki haurrak ikasketa prozesua burutzer Debara joan behar izan dira; gaur egun ere, Lehen Hezkuntzako bigarren mailara arte bakarrik ikas daiteke Itziarren, eta hortik aurrera Deban. Eskola Kirolari dagokionean zein da errealitatea? Noiztik dago aukera eskola kirola Itziarren egiteko?**

L.A.: Zuk esan bezala, ikastera txikitatik Debara joan behar izaten dugu, eta eskola kirolarekin ere duela bi urtera arte berdina gertatzen zen. Baina aurreko ikasturtean lehen aldiz Itziarko hurrek eskola kirola Itziarren bertan burutzeko aukera izan zuten, eta hau bigarren urtea da. Hala ere, Debako eskola kiroleko

adar bat baino ez da. Hau da, nahiz eta aste barneko saioak Itziarren egin, asteburutako partidetarako Debako taldeetara joan behar izaten dugu, eta materiala eta beste baliabide gehienak ere Debatik hartu behar izaten ditugu.

**A.Z.: Zenbat umeko taldea dago Itziarren?**

L.A.: Guztira 12 haur ditut. Badakizu ez garela jende asko bizi Itziarren, eta hau ere horren ispilu da azken batean.

**A.Z.: Eta zein adinetakoak dira? Zein adin tarterekin aritzen zara?**

L.A.: Hain gutxi izatean, talde bakarra osatu da, adin guztiak bateratuz. Horrela, Lehen Hezkuntzako 3.mailatik 6.mailara bitarteko haurrak ditut. Gehienak 5.mailakoak; hau da, 10-11 urtekoak. Baina esan bezala, adin denak nahasten ditut, kopuru ez baita behar adinakoa adinak banatzeko.

**A.Z.: Beraz, esan duzu guztiak batera jarduten direla. Hau uneoro errespetatzen da, ala tarteka adinka banatzen dituzu jarduera konkretuetarako?**

L.A.: Ez; beti batera aritzen dira, azkenean oso jende gutxi baitago. Egia da jarduera askotan gazte eta zaharrenen artean alde handia igartzen dela fisiko aldetik, eta arauak ulertzerakoan eta halakoetan ere aldea nabaritzen da. Baina beti denak batera bai. Gainera, arauekin adibidez askotan zaharrenek gazteenei esplikatzen dizkiete jokoaren arauak zerbait ulertu ez bada, eta hori azkenean aberasgarria da.

**A.Z.: Sexu aldetik nola ematen da banaketa? 12 horietatik zenbat dira neskak eta zenbat mutilak?**

L.A.: zoritxarrez guztiak mutilak dira. Pena da, baina hala da.

**A.Z.: Astean zenbat saio izaten dira? Eta zein egunetan?**

L.A.: Saioak astearte eta asteazkenetan izaten dira, 16:30etatik 17:30etara. Haurrak eskolatik irten eta zuzenean etortzen dira eskola kirolera, eta asko euren meriendarekin etorri ohi dira. Horregatik, hasieran 10 minutu inguru ematen dizkiet lasai egon daitezen saioarekin hasi aurretik. Ondorioz batzuetan minutu batzuk beranduago hasi ohi gara, baina saiatzen naiz puntuala izaten. Aste barneko saioez gain, bi astetik behin partiduak izan ohi dituzte.

**A.Z.: Jarduerei dagokionean, nolakoa da eskola kirola? Zein jarduera egiten dituzue? Zein motatakoak?**

L.A.: Kirol ezberdinak egin ohi ditugu. Haurrek bi astetik behin partidak izan ohi dituzte, eta partida horiek futbolekoak, eskubaloikoak eta saskibaloikoak izaten dira. Horregatik, partidua tokatzen den asteetan, aste horretako modalitateari lotutako saioak egiten ditugu. Hau da, futboleko partida tokatzen bada, saioak futbolaren ingurukoak izaten dira. Baina azken urteetan partidak bi astetik behin jarri dituztenez, partida ez dagoen astean beste kirol berriak praktikatzeko aprobetxatzen dut: Badmintona, pilota, frontenisa, "ultimate", boleibola ... Gero kirol bakoitzaren barnean, hasieran jolas bat egiten dugu berotzeko (harrapaketa esaterako), eta ondoren kirol bakoitzeko oinarrizko ariketak: paseak, jaurtiketak, teknika, gidapena ... eta saioa amaitzeko partida bat.

**A.Z.: Beraz, kirolak bakarrik egiten dituzue?**

L.A.: Bai.

**A.Z.: Espazioa nola antolatzen duzu? Non egiten duzue eskola kirola?**

L.A.: Frontoian egiten dugu. Bertan dauzkagu bi porteria eta saskibaloiko bi saski, eta beraz hor egiten ditugu saioak. Eskolan ping pongeko mahai bat ere badago, eta saiakera egin nuen bertan saio bat edo beste egiteko ere, baina ez zidaten baimenik eman.

**A.Z.: Eta beti frontoian aritzen zarete? Edo kalean edo beste espazioren batean jardutea probatu duzue?**

L.A.: Beti frontoian.

**A.Z.: Saioak prestatzerako orduan, aurrez norbaitek mugaren bat ezartzen dizu? Ala erabateko askatasunez erabakitzen dituzu egingo dituzun saioak?**

L.A.: Beno, aipatu bezala, Itziarko eskola kirola Deabakoaren adar bat da. Orduan, saioak prestatzerakoan, saio bakoitza Debako kiroleko arduradun nagusiari bidali behar izaten diot praktikara eraman aurretik, berak onespena eman diezaion saioari. Baina nik erabakitzen dut zein kirol eta jarduera burutu, eta normalean ez dit inongo oztoporik jartzen. Hori bai, urte hasieratik zehaztu

zidaten partidua tokatzen den asteko saioetan partiduko kirolari loturiko saioak izan beharko zirela. Hori da errespetatu beharreko muga bakarra.

**A.Z.: Eskola Kiroleko begirale izateko ikastaroren bat edo beste egina duzula aipatu duzu. Nolakoa da ikastaroa?**

L.A.: Bai, Foru Aldundiak eskaintzen duen ikastaro bat da, "Asmoz" fundaziokoa, oker ez banago. 40 ordu inguruko ikastaroa da, eta oinarrizko azalpenak ematen ditu, asko sakondu gabe.

**A.Z.: Eta baliagarri izan zaizu? Saioak aurrera eramaterako orduan bertan ikasitakoa praktikan jartzen duzula nabaritzen duzu?**

L.A.: Egia esanda honetan lana egiteko titulua eskuratzetik haratago ez dit askotarako balio izan. Egia esan oso teorikoa iruditu zitzaidan, eta kasu praktikoak lantzearen hutsunea nabaritu nuen. Beraz, ez diot aplikagarritasunik aurkitu orain arte ikastaroari.

**A.Z.: Baduzu aniztasun funtzionala edo bestelako arazoren bat duen haurrik? Izatekotan, bere inklusioa bermatzen saiatzen zara?**

L.A.: Haur bat dut arreta-defizita duena. Duen arazo bakarra azalpenak entzuterakoan arreta jartzeko duen zailtasuna da. Oso azkar distraitzen da, eta edozerrekin. Horregatik, saiatzen naiz azalpenak ematerakoan baloiren bat edo baldin badu inguruan, hartu ez dezan, eta azalpenak behin eta berriz errepikatzen. Baina gainerakoan, jarduera burutzerako orduan-eta ez du arazorik. Bestela, ez dago beste haurrik halako ezgaitasunik edo duenik.

**A.Z.: Material aldetik, zer moduzko baliabideak daude? Nondik lortzen duzu beharrezko materiala?**

L.A.: Debatik ematen digute materiala. Egia da nahiko baliabide urriak eman dizkidatela aurten. Konoak, baloi batzuk eta petoak eman zizkidaten kurtso hasieran, baina gehiagorik ez. Gero jarduera ezberdinen bat egiten dugunean eta material bereziren bat behar dudanean, badmintonean esaterako, Debako polikiroldegian eskatu ohi ditut eta ez didate oztoporik jartzen erabiltzeko. Baina bestela oso justuko materiala daukagu. Gainera, Deban ere eskola kirola egun beretan egiten dute, eta material aldetik normalean haiek izaten dute lehentasuna.

**A.Z.: Zein helburu jartzen dizkiozu saioari?**

L.A.: Nire helburuak hurrek ondo pasatzea eta denek elkarrekin jolasten ikastea dira. Baina kontu bat nik nahi dudana da, eta bestea praktikara iritsi eta ikusten dena. Aurten ikusi dut umeez izugarritzko lehiakortasuna dutela eta buruan irabaztea besterik ez dutela. Beraz alde horretatik egoera kaotiko xamarra da. Nik saio bakoitzean azpimarratzen diet garrantzitsuena ongi pasatzea dela eta ez irabazi ala galtzea, baina ez da erraza. Gero baita ere ohartu nintzen ez nuela bat egiten Debako eskola kiroleko arduradun nagusien pentsamenduekin: hauek helburu nagusi bezala entrenamendua dute, teknikoki hobetzea etab. Eta niri iruditzen zait hori ondo egon daitekeela DBHko din jakin batetik aurrera edo, baina uste dut oraindik haurrak direla eta jolasten ikasi behar dutela eta gauza ezberdinak probatu behar dituztela.

**A.Z.: Amaitzen joateko, beti saioak zuk gidatzen dituzu? Ala badute hurrek aukerarik euren proposamenak egiteko (jarduera aldetik, planteamenduak, talde osaketak ...)?**

L.A.: Hasiera batean nik hartzen nituen erabaki gehienak, baina kirol gehienak probatuta, momentu bat iritsi zen non galdetu nien ea zerekin sentitzen diren gusturago eta zerekin ez ... eta orain saio bukaeran 5 minutu hartzen ditut galdetzeko ea hurrengo astean zer gustatuko litzaieken egitea. Horrela, proposamen ezberdinak ateratzen dira eta gehiengoaren arabera aukeratzen dugu. Ez zait gustatzen ni izatea agintzen duena. Momentu batzuetan bai neurri batzuk hartu behar izaten ditudala –esaterako, beti futbola egin nahi izaten dute, eta beraz nahi dutena proposatzerako orduan futbola ez diet aukera bezala ematen-, baina saiatzen naiz denon artean akordio bat lortzen.

**A.Z.: Azkenik, deskribatu zenezake saio bat nolakoa den?**

L.A.: Saioa? Hasieran, 16:30tan hasten da berez saioa, baina ikastolatik orduan iristen direnez, tarte bat uzten diet lasai egon daitezen eta merienda dezaten. Ondoren beroketa jolas bat egiten dugu, nahiz eta azken aldian ohitura hori galdu dugun. Gero tokatzen den kirola tokatzen dela, pase batzuk, punteria jolasak eta halakoak egiten ditugu. Eta saio bukaerako azken ordu laurdena partidua egiteko uzten diet, saioan landutako kirolarena beti ere.

**A.Z: Ondo da Leire. Nire partetik hau izan da guztia. Jarraitu lanean haurrek merezi duten eskola kirola izan dezaten Itziarren ere! Espero dut ni bezain gustura egon izana tarte labur honetan eta mila esker erakutsitako prestutasun eta zintzotasunagatik! Izan ondo eta beste bat arte, Leire!**

L.A.: Eskerrik asko zuri ere Aitor! Topatuko gara berriro ere!